



ZARAUZKO TOKIKO EKINTZA PLANA-TOKIKO AGENDA 21 (2009-2017)

SINTESI DIAGNOSTIKOA

2009ko ekaina





Auzolan
21



ZARAUZKO TOKIKO EKINTZA PLANA-TOKIKO AGENDA 21 (2009-2017)

SINTESI DIAGNOSTIKOA

2009ko ekaina

Proiektu hau Udalsarea 21en Ekintza Planak Berrikusteko Auzolan 21 Programaren esparruan gauzatu da. Proiektuaren zuzendaritza IHOBeri egokitu zaio, Udalsarea 21eko idazkaritza teknikoaren arduradun gisa

ZUZENDARITZA FAKULTATIBOA

ZARAUZKO UDALA

Gloria Vázquez, Tokiko Agenda 21eko zinegotzia
Begoña Rodríguez, Ingurumeneko teknikaria

LAGUNTZA TEKNIKOA

MINUARTIA ENEA, IKERTALDEekin elkarlanean
Ana López. Koordinazioa. Nekazaritzako ingeniaria
Míriam González. Koordinazioa. Ingurumen Zientzietan lizentziatua
Roser Campeny. Biologian doktorea
Ainhoa Mitxelena. Enpresa Zuzendaritzan lizentziatua
Maties Serracant. Geografian lizentziatua
Susana Torregaray. Geologian lizentziatua



ikertalde

-rekin elkarlanean

ZARAUZKO TOKIKO EKINTZA PLANA-TOKIKO AGENDA 21 (2009-2017) PRESTATZEKO LANETAN PARTE HARTU DUTEN ERAKUNDEAK ETA PERTSONAK

Zarauzko Udaleko langileak eta ordezkariak

POLITIKARIAK

- Jon Urien (alkatea)
- Ubaldo Ortiz (Hirigintzako zinegotzia)
- Mariana Aranburu (Berdintasuneko zinegotzia)
- Alejandro Vázquez (Babes Zibileko eta Ingurumeneko zinegotzia)
- Kontxi Fuentes (Gizarte Ongizateko eta Zerbizuetako zinegotzia)
- Andoni Ibarguren (Gazteriako zinegotzia)
- Maribel Albizu (Gizarte Ekintzako zinegotzia)
- Arantza Iturria (Kulturako zinegotzia)
- Imanol Lasa (Euskara eta Turismoko zinegotzia)
- Gloria Vazquez (Hezkuntza eta Tokiko Agenda 21eko zinegotzia)
- Rafa Olaizola (Merkataritza eta Ostalaritzako zinegotzia)
- Jon Burgaña (Ogasun eta Barne Araubideko zinegotzia)

-

TEKNIKARIAK

- Begoña Rodríguez (Ingurumena eta Tokiko Agenda 21eko koordinazioa)
- Paul Muñoa (Hirigintza)
- Fernando Llopis (Kultura)
- Edurne Urbietta (Berdintasuna)
- Nikolas Bengoetxea (Herrilanak eta Zerbitzuak)
- Arantza Aldalur (Hezkuntza)
- Julen Aranguren (Immigrazioa)
- Sorkunde Portularrume (Prebentzioa)
- Olatz Elustondo (Euskara)

ZARAUZKO TOKIKO EKINTZA PLANA-TOKIKO AGENDA 21 (2009-2017)

SINTESI DIAGNOSTIKOA

2009ko ekaina

AURKIBIDEA

LABURPEN EXEKUTIBOA	1
1. SARRERA	3
2.1. EAEko Tokiko Agenda 21en ezarpen, kudeaketa jarraipen ereduak	3
2.2. Auzolan 21 programa: tokiko ekintza planen berrikuspena	3
2. AURREKARIAK	5
3. PROZESUAREN FASEAK ETA EMAITZAK	7
3.1. Lan programa	8
3.2. Sortutako agirien zerrenda	9
4. ARLO TEMATIKOEN ARABERAKO DIAGNOSTIKOA	11
4.1. Lurralde alderdiak	
- Lurraldea eta plangintza	15
- Mugikortasuna	23
- Biodibertsitatea eta paisaia	31
4.2. Baliabide naturalak, hondakinak eta ingurumenaren kalitatea	
- Ura	41
- Hondakinak	47
- Energia	55
- Ingurumenaren kalitatea, atmosfera, akustika eta lurzoruak	61
- Arriskuaren eta jarduera ekonomikoen kudeaketa	69
- Erosketa publikoa eta udal administrazioaren ingurumen kudeaketa	75
- Aldaketa klimatikoa	81
4.3. Sentsibilizazioa, herritarren partaidetza eta barne koordinazioa	
- Komunikazioa, sentsibilizazioa eta partaidetza	87
- Barne koordinazioa eta zeharkakotasuna	93
4.4. Garapen sozial eta ekonomikoa	
- Biztanleria	99
- Garapen ekonomikoa eta lan merkatua	105
- Gizarte ongizatea eta gizarteratzea	113
- Hezkuntza, euskara, kultura eta kirola	121
- Etxebizitza	127

5. EBALUAZIO OROKORRA	135
5.1. Lurralde alderdiak	137
5.2. Baliabide naturalak, hondakinak eta ingurumenaren kalitatea	139
5.3. Sentsibilizazioa, herritarren partaidetza eta barne koordinazioa	141
5.4. Garapen sozial eta ekonomikoa	143

ZARAUZKO TOKIKO EKINTZA PLANA-TOKIKO AGENDA 21 (2009-2017) SINTESI DIAGNOSTIKOA

LABURPEN EXEKUTIBOA

Zarautzek **Iraunkortasunaren Aldeko Ekintza Plana berrikusi** du Auzolan 21 proiektuaren esparruan. Lehenengo urrats gisa, barne hausnarketa egin da lehenengo planaren alderdirik nabarmenenak balioztatu eta etorkizuneko oinarriak ezartze aldera. Datozen urteei begira, ondorengoak identifikatu dira:

4 ERRONKA NAGUSI

- ➔ **Iraunkortasunaren Aldeko Zarauzko II. Ekintza Plana** diseinatzea eta abiaraztea. Planak izaera estrategikoa eta eragilea izango du eta udalerriko lurralde, ingurumen, gizarte eta ekonomia alderdiak barneratuko ditu.
- ➔ **Aldaketa klimatikoa arintzeko eta horretara egokitzeko tokiko estrategia** prestatzea, berotegi efektuko gasen emisioak murrizteko eta planetaren berotze globalak izan ditzakeen ondorioetara egokitzea ahalbidetuko duten bitartekoak jartzeko konpromiso sendoa hartuta.
- ➔ Iraunkortasunaren Aldeko Ekintza Planaren plangintzan eta kudeaketan **herritarrek duten partaidetza** indartzea eta finkatzea.
- ➔ **Barne komunikazioa** eta **zeharkakotasuna** erraztea, Udaleko arlo ezberdinen artean koordinazio mekanismoak ezarrita.



Plan berria zehazteko, udalerraren **egungo egoeraren diagnostikoa** hartu da abiapuntutzat, ingurumen eta lurralde errealitatea eta errealitate sozioekonomikoa ezagutzeko. Era berean, komunikazioarekin, partaidetzarekin eta barne koordinazioarekin erlazionatutako alderdiak ere aztertu dira. Atera diren ondorio nagusiak jarraian aurkezten dira.

Lurralde alderdiak

- Aipagarria da udalerriko **natura eta paisaia balioen kalitatea**, nahiz eta azken urteotan aldaketa nabarmenak izan diren ibai ekosistema jakinetan.
- **HAPN berriak**, 2008an onartuak, hiri lurzorurako, lurzoru urbanizagarriko eta lurzoru urbanizaezinerako ingurumen neurriak barneratzen ditu eta udalerraren hazkuntza, nagusiki, jada artifizializatuta dauden lurzoruak bihurtuta gertatuko dela ezartzen du.
- **Oinezkoen eta bizikleten mugikortasunaren** indizea oso altua da, bidegorrien sarerik egon ez arren, ezta bideen kudeaketa egokirik ere. Ahalegin txiki bat nahikoa izango litzateke Zarautz arlo honetan udalerraren enblematiko bihurtzeko.

Ingurumen alderdiak

- Ur eta energia kontsumoa eta hondakinen sorrera oro har murriztu edo egonkortu egin direla detektatu da.
- Hondakinen jatorriko bereizketa gero eta modu eraginkorragoan egiten da, baina oraindik EAEko batez besteko balioen azpitik dago.
- Energia ez berriztagarriko iturriekiko menpekotasun handia dago eta horrek berotegi efektuko gasen emisioak handitzea dakar.
- Udal bulegoak ingurugirotzeko lanei ekin zaie eta Udaleko langileek jardunbide iraunkorrak hartzen hasi dira.

Alderdi sozial eta ekonomikoak

- Zarauzko egitura demografikoa ez dago Gipuzkoa osokoa bezain zahartuta. Hala ere, hirugarren adinekoentzako zerbitzuak ez dira nahikoak talde horren beharrei erantzuteko.
- Azken urteotan udalerriko ekonomia eta enpresa sareak bilakaera positiboa izan duela ikus daiteke.
- Ikus daitekeenez, hirugarren sektorerako joera garbia da eta sektore turistikoak garrantzi handia du. Erabateko adostasuna dago udalerriko merkataritza eta ostalaritza sektorea indarberritzeko behararen inguruan.

- Hezkuntza, kultura eta kirolerako ekipamenduen hornidura oso osatua da.
- Kultur eskaintza zabala dago, nahiz eta oso garaikoa den. Udatik kanpoko jarduerak indartzeko beharra detektatzen da.

Partaidetza, komunikazioa eta barne koordinaziokoa


- Biztanleek Tokiko Agenda 21i buruz duten ezagutza orokorra handitu dela nabarmentzen da.
- Zailtasun larriak daude biztanleak parte hartzera mobilizatzeko. Hori azken urteotan foroetako partaidetzan izandako pixkanakako murrizketan islatzen da.
- Nabarmentzekoa da 2007an Herritarren Partaidetzako eta Tokiko Agenda 21eko Batzordea sortu zela, soilik izaera politikokoa.
- Maila teknikoan, komunikazioa erraza da eta prestasun handia dago Tokiko Agenda 21ekin erlazionatutako alderdietan inplikatzeko, baina maila honetan ez dago inolako koordinazio mekanismo egonkorrik.



1. SARRERA

1.1 EAEko Tokiko Agenda 21en ezarpen, kudeaketa eta jarraipen eredua

EAEko Tokiko Agenda 21eko prozesuen garapenak ondorengo lan faseak barneratzen ditu, 1.1 irudian jasotakoak: **Abiaraztea**, **Diseinua** (diagnostikoa eta plangintza), eta **Ezarpena eta jarraipena**. Azken hau aurreraturik dagoenean, **Berrikuspena** egin behar da; honen bidez, diagnostikoa eguneratu eta beste plan bat prestatuko da.



1.1 irudia. Tokiko Agenda 21eko prozesuaren eskema

Ereduren ezarpena errazteko, Udalsarea 21ek, Iraunkortasunerako Euskal Udalerrien Sareak, udalerrri kide guztientzat komunak diren zenbait metodologia definitzen ditu. Horrela, herrien arteko sareko lana eta EAEn gauzatzen diren prozesuen homogeneotasuna bermatzen da.

Udalsarea 21en helburua Tokiko Agenda 21en ekintza planak udalerrietan modu eraginkorren ezar daitezen sustatzea da. Horretarako, udalerriei laguntza zerbitzu ugari eskaintzen dizkie; horien artean aipagarriak dira ekintza planen urteko ebaluazioa eta programazioa, tokiko iraunkortasunaren adierazleen kalkulua, eta Auzolan 21, ekintza planak berrikustekoa, besteak beste, Zarauzko Tokiko Agenda 21en berrikuspena jasotzen duena.

1.2 Auzolan 21 programa: tokiko ekintza planen berrikuspena

Auzolan 21 zerbitzua Udalsarea 21en sortutako berrienetako bat da eta sareko udalerrri aurreratuenei zuzendutako zerbitzu gisa definitzen da. Udalerrri horiek zerbitzu espezifikoak behar dituzte Tokiko Agenda 21eko prozesuarekin berarekin edo esku-hartze eremu espezifikoekin erlazionatutako hainbat gairi heltzeko.

Zehazki, **Auzolan 21: ekintza planen berrikuspena**, EAEko Tokiko Iraunkortasunaren 2008ko I. Txostenean tokiko ekintza planak berritzeko erreferente metodologikoak sortu eta horietan prozesuaren kalitate adierazlea barneratu beharra identifikatzearen ondorioz jaio zen.

Bere **helburu nagusia** euskal udalerrientzako Tokiko Agenda 21eko tokiko ekintza planak berrikusteko metodologia komun baten aplikazioa garatzea eta koordinatzea izan da, EAEko

Tokiko Ekintza Plana-Tokiko Agenda 21 kudeatzeko ereduarekin bat etorriz. Prozesuaren amaieran, argitaratu ahal izango den gida espezifikoa ere prestatuko da.

Helburu nagusiak:

- Udalsarea 21 osorako **metodologia komuna** garatzea, EAEko Tokiko Agenda 21 kudeatzeko eredu integratu eta osatuko duena.
- Ekintza **planak diseinatzeko eta abiarazteko prozesuetan identifikatutako oztopoak** gainditzeko laguntzeko metodologia garatzea.
- EAEko ekintza planetako **kalitatearen pixkanakako hobekuntza** sustatuko duen planak berrikusteko eredu bultzatzea.

Parte hartzen duten udalerrietarako helburu espezifikoak:

- Tokiko errealitatera eta kudeaketa beharretara **hobeto egokitzen den ekintza plana** definitzea.
- Plana **ondorengoetara egokitzea**: udalerriko gizarte, ingurumen eta ekonomia egoeraren bilakaerara, iraunkortasunaren kudeaketak legeei eta metodologiari begira duen bilakaerara eta hasiera batean Planean jasota ez zeuden arlo tematiko berrietara (aldaketa klimatikoaren aurkako borroka, kontsumo iraunkorra...).
- Udaleko kargu **politiko guztietarako erreferente garrantzitsuak** izango diren hausnarketa estrategiko, helburu eta gertaera gogoangarrietan oinarritutako ekintza plana prestatzea.
- Udalaz **gaindiko baliabide ekonomikoak** lortzera bideratuagoa dagoen plana prestatzea, inbertsio berreskuragarria izan dadin.
- Gaur egun duenak (4-5 urte) baino **indarraldi luzeagoko** plana prestatzea, ahal bada, 8 bat urtekoa, ekintza garestiak garatzeko eta gauzatzeko benetako epeetara hobeto egokitzen den plangintzarako tresna izan dadin.

Auzolan 21 programaren esparruan beren ekintza planak berrikusi dituzten udalerriak honako hauek dira: Alonsotegi, Areatza, Azpeitia, Arrasate-Mondragón, Maruri-Jatabe, Zarautz eta Tolosa. Auzolan 21 programan parte hartzeak ondorengo ekarri du udalerrientzat:

- o Beren prozesuak tokiko ekintza planak berrikusteko diseinatutako jarraibide metodologikoekin bat etorriz garatzea.
- o Beren prozesuak egutegi komun bati jarraiki garatzea eta 6 lan taller antolatzea; hauei esker, esperientziak trukatu ahal izan dira, baita prozesuaren faseak testuinguru metodologikoarekin bat etorriz aurreratu eta beren prozesuen aurrerapena eta jarraibide metodologikokiko egokitze maila aztertu ere.
- o Jarraibideak aplikatuta, hobetzen laguntzea eta Udalsarea 21eko gainerako udalerrietan ezartzera bideratzea.

2. AURREKARIAK

Zarautz udalerrri aitzindaria izan da, eta oraindik ere hala da, tokiko iraunkortasunaren aldeko politikak sustatzen. 2001ean, **Udaltalde 21en parte hartu zuen** EAEko beste zortzi udalerrirekin batera, eta lehenengoetakoa izan zen Aalborgeko Gutuna sinatzen eta **Tokiko Agenda 21eko bere ekintza plana** diseinatzen eta abiarazten. Onartu ondoren, 2002an, **Udalsarea 21en** sorreran parte hartu zuen, beste hamasei udalerrirekin batera.

Zarauzko lehenengo ekintza planak **105 ekintza** ditu, lurralde eta ingurumen eremuen eta eremu sozioekonomikoen inguruko **10 ildo estrategikotan** banatuta. Azken urteotan ekintza horiek gauzatzen egindako lanak udal eragileek udalerriko garapen iraunkorraren aldeko politiken inguruan duten ezagutza eta inplikazioa areagotzen lagundu du.

Era berean, Zarauzko Ekintza Plana ezartzearen urteko jarraipenak Tokiko Agenda 21en esparruan abiarazi diren jardunen inguruko informazio xehatua izatea ahalbidetu du. Oro har, eta izaera kuantitatiboarekin, Ekintza Planak izan duen gauzatze maila % 50 inguruan dago, onartu zenetik igaro diren 6 urte hauen buruan.

Errealitate globala eta tokikoa aldatu egin dira. Oztopo asko gainditu dira eta erantzuna behar duten eskari berriak sortu dira.

Horregatik, Zarauzko Udalak plan berri bat prestatzea erabaki du, iraunkortasunari modu integralean helduko diona eta udal kudeaketarako tresna operatibo eta estrategikoa izango dena.

Aurkeztutako lanarekin lortu nahi diren **prozesuko helburuak** ondorengoak dira:

- Udalerriko egungo egoeraren sintesi diagnostikoa prestatzea, **Planaren lehentasunezko esku-hartze eremuak eta jardunak** identifikatzera bideratua.
- **Tokiko errealitatera eta kudeaketa beharretara egokitutako ekintza plana** definitzea, Udaleko zerbitzu teknikoetarako **kudeaketa tresna eraginkor** gisa har dadin erraztuko duena.
- **Aldaketa Klimatikoari aurre egiteko Tokiko Estrategia** definitzea, bere bi alderdietan: berotegi efektuko gasen emisioak **murriztea** eta ondorio posibleetara **egokitzea**.
- **Barne koordinazioko mekanismoak** egituratzea eta **dinamizatzea**, hainbat zerbitzu teknikoren partaidetzarekin, Plana modu eraginkorrean eta zeharka ezartzea ahalbidetuko duena.
- **Biztanleek eta tokiko agenteek parte hartzeko mekanismoak** egituratzea eta **dinamizatzea**, horiek Planaren jarraipenean eta sustapenean integra daitezen ahalbidetuko duena.

3. PROZESUAREN FASEAK ETA EMAITZAK

3.1. Lan programa

Prozesuan jarraitutako lan programa,

3.1 ikus daitekeen bezala, hiru fasetan egituratu da:


- I. Proiektuaren aurkezpena
- II. Sintesi diagnostikoa
- III. Tokiko Agenda 21eko II. Ekintza Plana eta Klima Aldaketari aurre egiteko Udal Programaren formulazio estrategikoa.

Hiru fase horietako bakoitzean, eginkizun teknikoak barne koordinazioarekin eta herritarren partaidetzarekin erlazionatutako eginkizunak elkartu dira:

- Eginkizun teknikoak: aholkularitza taldeak egindako lana, proiektuko zuzendaritza fakultatiboaren laguntzarekin eta Udaleko langileen partaidetzarekin.
- Barne partaidetzako eginkizunak: Udaleko eragile tekniko eta/edo politikoekin batera egindako koordinazio saioak, aholkularitza taldeak dinamizatuta.
- Herritarren partaidetzako eginkizunak: udalerriko gizarte eta ekonomia eragileekin antolatutako partaidetza saioak, aholkularitza taldeak dinamizatuta.

Prozesuan guztira sei dokumentu sortu dira, aurrerago zerrendatuak. Nabarmentzekoak dira, besteak beste:

- I. agiria: Sintesi diagnostikoa
- II. agiria: Zarauzko Tokiko Agenda 21eko Ekintza Plana
- III. agiria: Klima Aldaketari aurre egiteko Udal Programa



Barne parte-hartzeari lotutako lanak

Herritar parte-hartzeari lotutako lanak

Lan teknikoak

3.1 irudia. Tokiko Agenda 21 prozesuaren eskema

3.2. Sortutako agirien zerrenda

Ekintza Plana berrikusteko prozesuan, guztira 6 agiri sortu dira. Horietan, fase ugarietan lortutako emaitzak bildu dira. Jarraian aurkezten diren edukiak *I. agiriari* dagozkio (*sintesi diagnostikoa*).

I. AGIRIA: SINTESI DIAGNOSTIKOA

Diagnostikoak udalerriko ingurumen eta lurralde alderdien, alderdi sozioekonomikoen eta komunikazioarekin, barne koordinazioarekin eta herritarren partaidetzarekin erlazionatutako alderdien analisia eta balorazioa biltzen du. Analisi horretatik abiatuta, esku hartzeko eremuen lehenengo identifikazioa egiten da eta oraindik indarrean dauden eta, beraz, ekintza plan berrian sartzeko modukoak diren aurreko planeko ekintzak biltzen dira. Aztertutako eremuekin erlazionatuta dauden eta planean sartzeko moduko ekintzak aurkezten dituzten Udaleko eta/edo Udalaz gaindiko programak edo planak ere identifikatzen dira.

II. AGIRIA: 2009-2017 ALDIRAKO EKINTZA PLANA

2009-2017 aldirako Ekintza Plana bederatzi ildo estrategikoren inguruan egituratzen da. Hauek, diagnostikoan identifikatutako behar eta lehentasunei erantzuten dieten programak eta ekintzak barneratzen dituzte. Agiri honek 2020an udalerriri izango duen itxura aurkezten du, baita 5 helburu kuantitatibo ere, udalerrirako lehentasunezkoak diren esku hartzeko eremuetan konpromiso zehatzak ezartzen dituztenak. Dokumentu honek, barne koordinazioarako zein parte-hartze mekanismoen funtzionamendua eta Planaren berrikuste prozesuari lotutako komunikazio jarduerak azaltzen ditu ere.

III. AGIRIA: KLIMA ALDAKETARI AURRE EGITEKO UDAL PROGRAMA

Klima Aldaketari aurre egiteko Udal Programak herrian berotegi efektuko gas emisioak murrizteko hartutako konpromisoari eta aldaketa klimatikoaren ondorio posibleetara egokitzeko beharrari erantzuten dio. Programa hau Ekintza Planean bertan integratuta dago eta, horrela, irakurketa bikoitza egitea ahalbidetzen du.

4. EREMU TEMATIKOEN ARABERAKO DIAGNOSTIKOA

Jarraian, diagnostikoan aztertu diren eremuen eskema ageri da. Eremu horien edukiak, balorazioa eta lehentasunezko esku-hartze eremuak honela egituratuta dauden fitxa tematikoetan jasotzen dira:

LURRALDE ALDERDIAK

- Lurraldea eta plangintza
- Biodibertsitatea eta natura ingurunea
- Mugikortasuna eta garraioa

BALIABIDE NATURALAK, HONDAKINAK ETA INGURUMENAREN KALITATEA

- Ura
- Hondakinak
- Energia
- Ingurumenaren kalitatea
 - o Atmosfera
 - o Akustika
 - o Lurzoruak
- Arriskuaren eta jarduera ekonomikoen kudeaketa
- Erosketa publikoa eta udal administrazioaren ingurumen kudeaketa
- Aldaketa klimatikoa eta inpaktu globala

SENTSIBILIZAZIOA, HERRITARREN PARTAIDETZA ETA BARNE KOORDINAZIOA

- Komunikazioa, sensibilizazioa eta partaidetza
- Barne koordinazioa eta zeharkakotasuna

GARAPEN SOZIAL ETA EKONOMIKOA

- Biztanleak
- Garapen ekonomikoa eta lan merkatua
 - o Jarduera ekonomikoaren egitura eta maila
 - o Lehen sektorea
 - o Bigarren sektorea
 - o Zerbitzu eta turismo sektorea
 - o Enplegua eta lan merkatua
- Gizarte ongizatea eta gizarteratzea
 - o Ekitatea eta gizarte zerbitzuak
 - o berdintasuna
 - o Bizikidetzak
 - o Osasuna
- Hezkuntza, kultura eta euskara
- Etxebizitza





Diagnostiko fitxen egitura

Arestian aipatutako eremuen analisia fitxa tematikoetan egituratuta dago. Horiek errazago irakurri ahal izateko, jaso diren alderdiak eta edukiak azaltzen dira jarraian, **fitxa eremuan** oinarrituta.

EREMU TEMATIKOA

Lotura duten Aalborgeko konpromisoak

Aztertutako eremuarekin lotura duten Aalborgeko konpromisoak

AZPIEREMUA	DIAGNOSTIKOA	BALORAZIOA
	Diagnostikoaren aurkezpen sintetikoa, eremu tematiko bakoitzerako identifikatutako azpieroak adierazgarrienen arabera.	
	Diagnostikoa ondorengoetan oinarrituta egiten da:	
	- Eskuragarri dagoen informazio teknikoa (Udaleko eta Udalez gaindiko planak, Ekobarometroa, txosten sektorialak, tokiko iraunkortasun adierazleak...)	
	- Teknikariek eta politikariek egindako elkarrizketak.	
	- Herritarren partaidetzako bilkuretan jasotako ekarpenak.	
	Azpiero bakoitzerako, diagnostiko teknikoaren balorazioa irudikatzen da, ikono baten bidez. Lau kategoria erabili dira, diagnostikatutako alderdietako egoera eta esku hartzeko lehentasuna aintzat hartuta.	

AURREKO TOKIKO EKINTZA PLANA

Lotura duten ildo eta programak (*Lotura duten ildo eta programen kode eta tituluaren erreferentziak*)

Aztertu beharreko eremu tematikoarekin lotura duten Tokiko Agenda 21eko aurreko Ekintza Planeko ildo estrategikoak eta esku-hartze programak identifikatzen dira.

Garatzeke dauden eta garrantzitsuak diren indarreko ekintzak

Plan berrian sartzeko modukoak diren Tokiko Agenda 21eko aurreko Ekintza Planeko ekintzak biltzen dira. Horien artean, amaitu gabe utzi diren eta indarrean dauden ekintzak, ekintza garrantzitsu jarraituak edo amaitu gabeko ekintzak dira.

LOTURA DUTEN PLAN ETA ARAUDIAK

Udalerrian

Eremu tematikoarekin lotura duten Udaleko arauak eta planak identifikatzen dira.

EAEEn

Eremu tematikoarekin lotura duten Udalaz gaindiko arauak eta planak identifikatzen dira.

LEHENTASUNEN JARDUKETA EREMUAK

Egindako diagnostikoan eta azpieremuen balorazioetan oinarrituta, lehentasunez jardutea eskatzen duten eremuak identifikatzen dira. Horixe da Ekintza Plana prestatzeko abiapuntuko informazioa.

Udal eskumena

Udalaren eskumeneko esku-hartze eremuak.

Udalaz gaindiko eskumena

Udalaz gaindiko erakundeen eskumeneko esku-hartze eremuak.

4.1 LURRALDE ALDERDIAK





LURRALDEA ETA PLANGINTZA

Lotura duten Aalborgeko konpromisoak:

5. HIRIGINTZA DISEINATZEA ETA PLANIFIKATZEA

AZPIEREMUA	DIAGNOSTIKOA	BALORAZIOA
Lurralde eremua	<ul style="list-style-type: none">Nortasuna duen udalerrri dinamikoa da, nagusiki hiri izaera duena, itsasertzean kokatutakoa, balio nabarmeneko hondartza duena, eta babes irudi desberdinen bidez guneko natural gisa katalogatutako mendiez inguratuta dagoena. Kokaleku naturala eta Donostiarekiko hurbiltasuna direla eta, garraio azpiegiturek eskaintzen dioten irisgarritasunarekin batera, udalerrriak erakarpen turistikoa nabaria du, eta modu egokian kudeatu behar da hori.Udalerrriak Donostiarekin duen harremanaren oreka positiboa nabarmentzen da. Hurbiltasunak Zarautz periferiako udalerrri gisa xurgatzea ekar lezakeen arren, eskualdeen loturazko harreman positiboari eusten zaio, metropolizazio eta xurgatzerik gabe.	
	Zarautzko ortoargazkia (2008)	
Udalerrriko lurzoruaren egitura organikoa eta erabilerak	<ul style="list-style-type: none">Hiri lurzorua udalerrriko lurzoruaren % 10,36 da (2008), eta horrek oreka egokia eta arrazoizkoa ematen dio udalerrriaren egitura globalari. Gainera, hiri lurzoru gehiena hirigune bakarrean biltzen da, eta hori ere alde du.Hiri lurzoruko biztanleriaren dentsitatea 1.560 bizt./km²-koa da, eta alde handia dago dentsitate handiko hirigunearen eta auzo sakabanatuen artean. EAEko udalerrrien artean	

AZPIEREMUA	DIAGNOSTIKOA	BALORAZIOA
	<p>handienetakoa da dentsitate hau, 302,16 bizt./km²-ko batezbestekoarekin; horrek hiri ehunduraren eraginkortasun handiagoa dakar, eta murriztu egiten ditu energia kontsumoa eta <i>per capita</i> eraginak.</p> <ul style="list-style-type: none"> Hirigunea itsasertzaren pareko lautada batean dago kokatuta, Iñurritza errekaaren bokalearen ondoan eta Santa Barbara, Lonpardo eta Aitza mendiek inguratuta; laborantza inguru batzuk eta baso eremu zabalak daude mendi horietan. Hiriguneak lurraldearen orografiari dagokionez duen kokalekuari esker, paisaian ongi integratzen da -eutsi egin behar zaio horri-, eta, aldi berean, motorizatu gabeko guneak izaten laguntzen du. Kantabriarako autobideak (A-8) ekialdetik mendebaldera zeharkatzen du udalerrria, hirigunearen hegoaldeko ertzetik igaroz, eta oztopo funtzional eta paisajistiko handia da. Horren ondoan, eskualdeko bide sareko ingurabide bat eraikitzen hasiko dira, zirkulazioa hirigunetik desbideratzeko. Trenbideak hirigunea zeharkatzen du kostaldeko lineari jarraituz, bi erditan banatuz, hiri eta zarata iragazgaitasun arazoak sortuz, salgaiak pasatzeagatik bereziki. Lurpetik pasatzea aurreikusten da, hegoalderantz eramanez, egungi industria lurzoruaren erreformarekin bat eginez, eta, aldi berean, egungo bide bakarra bitan banatuz. Erabilera turistikoek garrantzi berezia dute, gehienbat udan izaten dira, eta golf zelaiak eta kanpalekuak hartzen duten lekua nabarmentzen dira, baita hiriguneko zerbitzu eskaintza ere. 	
<p>Hiri egitura eta sarea</p>	<ul style="list-style-type: none"> Hiriguneak bizitza anitzeko eraikinak ditu bloke altuetan, dentsitate handiarekin eta eta dentsitate txikiko leku gutxirekin. Lurzoruaren erabileraren intentsitatea (artifizializatutako lurzoru hektarea bakoitzeko biztanle kopurua) 94,12 bizt./ha-koa zen 2006an, 2005etik gora egin ondoren. Hirigunean industria sektoreak mantentzen dira, eta horietako batzuk zaharkituta daude jada. Udalerrri osoan 26 auzo daude, eta horien erdiak landa sektoreei edo bizitza bakarreko eraikin sakabanatuak dituzten guneei dagozkie, horietako gehienek ez dute jarraipenik hiri sarearekin eta oso biztanle gutxi dituzte. 	
	<ul style="list-style-type: none"> Bizitegi lurzoruko etxebizitzaren dentsitatea hektarea bakoitzeko 89,22 etxebizitzakoa da (2008), eta 2004koa baino pixka bat txikiagoa. Hiria berritzeko eta hiri garapenerako sektore berriak urbanizatzeko prozesuek dentsitatea handitzea ekarriko dute. 	



Iturria: Guk egindakoa, UDALMAPen datuetan oinarrituta

- Udalerriko etxebizitza okupatuen % 25 bigarren bizitokiak dira, 2008ko Zarauzko etxebizitza hutsen azterlanaren datuen arabera; gertaera hori udalerrriaren izaera turistikoak baldintzatzen du. Etxebizitza hauen okupazioa askotarikoa da, asteburuetako edo soilik udako hilabeteetako okupazio egonkorra tartean.
- Etxebizitza hutsak % 0,3 dira (Zarauzko etxebizitza hutsen azterlana, 2008), eta kopuru horri erabilera aldetik intentsitate txikikoak diren etxebizitzei dagokien % 2,5 gehitu behar zaio (urte osoan hilabete baino epe laburragoan okupatzen direnak). Datu honek murrizketa izan dela erakusten du 2001eko erroldako % 6,9rekin alderatuta, 1991ko eta 1996ko % 4tik beherako balioetatik gora egin ondoren.
- Turismo eta zerbitzu eskaintzak eta hazten ari den industria sektoreak udalerriko erabileren aniztasunaren eta nahasketaren alde egiten dute.

Hiriko eta hiri inguruko berdeguneak



- Hiriko zona berdeak hondartzarekin osagarriak dira gune ireki garrantzitsuen gisa. Era horretan, hiriguneko biztanleen % 99 gune publiko irekietatik 300 metrora edo gutxiagora bizi dira. Berdeguneek biztanleko 19,58 m² hartzen dute (hiri lurzorua % 30). Hala ere, nabarmentzekoa da batezbesteko honetan kontuan hartzen direla Vista Alegre eta Mutxio parkeak, hirigunearen periferian daudenak. Hiri eraldaketa eta trenbidea lurpetik eramateak osatu beharko dute berdeguneeen sarea.




Hiri paisaia eta gune degradatuak

- Hiri paisaia erakarpen turistikoaren oinarritzko elementua da, itsasaldea, bereziki.
- Udalerrian ez dago auzo edo sektore marjinalik.
- Utzitako lurzoruen azalera 25.475 m²-koa da, eta kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen azalera 96.527 m²-koa izaten jarraitzen du 2004az geroztik. Badira utzitako lurzorua zati handi bat,



AZPIEREMUA	DIAGNOSTIKOA	BALORAZIOA
	<p>bereziki hirigunean dagoen industria lurzorua, leheneratzeko hirigintza proposamenak.</p>	
<p>Ondare arkitektoniko eta kulturala</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Hirigune historikoa Kultura Ondare izendatu zuten 1994an, Monumentu Multzo kategoriarekin. Izendapen hau dela eta, berariazko babes erregimena du, eraikin zehatzak ez ezik, hiri egitura ere zaintzeko xedez. Babes hau zehazteko eta kudeatzeko Hirigintza Plan Berezia onartzeko bidean da. • Santa María La Real monumentu multzo arkeologikoaren presentzia nabarmentzen da, Zarauzko kanpandorrea, Zarauzko Artearen eta Historiaren Museoa, Santa María la Real parrokia eta bi eraikin horietan aurkitu den aztarnategi arkeologikoa biltzen dituena. • Hiri Antolamendurako Plan Nagusiaren esparruan, zaindu beharreko udalerriko ondare historikoa biltzen duen katalogoa prestatu da. Horrez gain, babes neurri batzuk zehaztu dira, eta, horiei esker, nabarmen hobetu da hirigunea. • Menosca proiektuaren bidez, informazioaren teknologia berriak erabili dira udalerraren ondarea ezagutarazteko. 	
<p>Lurralde eta sektore plangintza</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Zarautz-Azpeitiko Lurralde Plan Partzialak (LPP) hiri sustapeneko esku-hartze estrategikoarekin identifikatzen du hiria; babes ofizialeko etxebizitza eraikuntza, birgaitze lanak eta hiria eraldatzeko jarduketak. • Hirigunea gune sendotuztat hartzen da nagusiki, egungo hiri ehundura berri eta hedatzearen bidez dentsitate handiko egoitza garapeneko eremu nabarmenekin. Badu dentsitate txikiko garapen eremua ere (Talaimendi auzoa). • LPPak jarduera ekonomikoko eremuen garapen estrategikoa aurreikusten du, Abendañoako industrialdea eta beste zona tertziario bat zabaltzearen bidez jarduera ekonomikoko garapen zonekin. Udalerriaz gaindiko ekipamenduen eta zuzkidura publikoen bi zona identifikatzen dira. • LPPan natur intereseko guneak, nekazaritza intereseko eremuak eta itsasertzeko eremu interesgarri bat ere zehazten dira, eta hori berme handia da. • LPPan lehen mailako banaketako bide sarearen saihesbidea aurreikusten da, nazionala, autobidearekiko paraleloki eta mendebaldearekin lotuta, tunel baten bidez, Zarautz-Getaria bide zatiarekin. LPPn trenbidea lekuz aldatzea, bitan banatzea eta lurpetik eramatea aurreikusten da, egoitza garapenari eta garapen tertziarioari loturiko beste tren geltoki batekin. Oinezkoentzako bideen eta bidegorrien zirkuituen sarea ere prestatu da kostaldeari jarraituz, bai Oriorantz, bai Getarirantz. 	



Zarautz-Azpeitiko Lurralde Plan Partzialaren Lurralde Eredua

Iturria: Zarautz-Azpeitiko Lurralde Plan Partziala (Urola Kosta). Lurraldearen Eredu Planoa

Hirigintzako plangintza

- Zarauzko Hiri Antolamendurako Plan Nagusia onartu zen 2008an. Udalerriaren ezaugarri geografikoez eta hirigunea inguratzen duten naturguneen babesgarriek mugatu egiten dute zabalkundea. Hazkunde aurreikuspenek, funtsean, jada artifizializatuta dauden lurzorua eraldatzea aurreikusten du, batez ere autobidearen iparraldeko industria eremuetan (Salberdin eta Hegoalde). Bizitegi azalera urbanizagarria % 17,18 da (2008).
- Salberdingo, Aldapetako eta Kortazarko sektoreak garatzeke daude. Plan nagusia garatzeko lehenengo lau urteetan sektore horietan babestutako 650 etxebizitza inguru eraikitzea aurreikusten da.
- "Sektorizatu gabeko urbanizagarri" gisa zehazten dira Lurralde Plan Partzialean identifikatutako sektore hedagarriak. Ez da komenigarritzat jotzen epe laburrera sektore horiek garatzerik, eta hurrengo garapen etapetan haiek garatzea komeni den balioetsi beharko da.



Iraunkortasun irizpideak plangintzan eta eraikuntzan integratzea

- Zarauzko Hiri Antolamendurako Plan Nagusiak (ZHAPN) ingurumen neurri orokorrak ezarri ditu hiri lurzorurako, lurzoru urbanizagarriko eta lurzoru urbanizaezinerako, dauden baliabide naturalak babestea bermatzeko eta jarduketak ingurunean ahalik eta ondoen integratzea lortzeko xedez.
- ZHAPNrekin batera aurkeztutako ingurumen txostenean jasotako neurrien artean, garatu behar den ingurumeneko udal ordenantzaren idazketa dago.
- Badira eguzki plakak jartzeko hobariak, eraikuntzako energia



eraginkortasuna sustatzeko zerga pizgarri gisa.

AURREKO TOKIKO EKINTZA PLANA

Lotura duten ildo eta programak (*Lotura duten ildo eta programen kode eta tituluen erreferentziak*)

- 1. BALIO NATURAL ETA PAISAJISTIKOAK UDALERRIAREN ELEMENTU BEREZI GISA SUSTATZEA.
- 1.4 Lurzoru degradatuen kalitatea zaintzea.
- 2. HIRI ESPAZIOAREN KALITATEA BULTZATZEA.
- 2.1 Bide azpiegituren lurralde eraginak saihestea eta hesi efektuko hiri hazkundera saihestea.
- 2.2 Ondare Historiko Arkitektonikoa zaintzea.
- 2.3 Etxebizitzaren politika integrala bultzatzea.
- 2.4 Ekipamenduetako defizitak konpontzea.

Garatzeke dauden eta garrantzitsuak diren indarreko ekintzak

- 1.4.2 Lurzorua babestearen arloko udal jarduketak gauzatzeko IHOBekin hitzarmena ezartzeko bideragarritasuna aztertzea. (*Zati bat egin da*)
- 2.1.2 Saihesbidearen Ingurumen Eraginaren Azterlanaren emaitza dagoen aukerarik onena zein den erabakitzeke baliatzea.

LOTURA DUTEN PLAN ETA ARAUDIAK

Udalerrian

- Zarauzko Hiri Antolamendurako Plan Nagusia (2008)

EAEEn

- 4/1990 Legea, maiatzaren 31koa, EAEko Lurralde Antolamenduari buruzkoa.
- EAEko Lurralde Antolamenduko jarraibideak (1997ko otsaila)
- Zarautz-Azpeitiko Lurralde Plan Partziala (Urola Kosta). (2006ko martxoa)
- EAEko Nekazaritzako, Basozaintzako eta Ingurumeneko Lurralde Plana (Hasierako onarpena, 2005eko urtarrila)
- EAEko Garraioaren Sare Intermodal eta Logistikoaren Lurralde Plan Sektoriala. (2003ko aurrerapena)
- Jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren eta ekipamendu komertzialen sorrera publikorako Lurralde Plan Sektoriala. (2004ko abendua)
- EAEko Energia Eolikoaren Lurralde Plan Sektoriala (2002ko apirila)
- EAEko trenbide sarearen Lurralde Plan Sektoriala (2001)
- Gipuzkoako Errepideen Lurralde Plan Sektoriala 2007-2017 (2006)
- Ibai eta erreka bazterren Lurralde Plan Sektoriala (1998)

LEHENTASUNEZKO JARDUKETA EREMUAK

Udal eskumena

- Hirigintza Plangintzaren eta Lurralde Plangintzaren aurreikuspenak garatuz hiri sektore zaharkituak berreskuratzea, eta etxebizitza publikoa eta jarduera ekonomikoak (dendak eta bulegoak) ezartzen laguntzea, hiri eremu mistoak (bizitegiak eta zerbitzuak) sortzeko.
- Hiri paisaia hobetzea eta mantentzea espazioak mugikortasun iraunkorrerako berreskurtzeko jarduketekin integratutako gune publikoetako (bide sarea eta berdeguneak) jarduketa koordinatuaren bidez.
- Aurreikusitako ekipamendu proiektuak garatzea (arte eszenikoak, Santa M^a la Real aztarnategia, etab.).
- ZHAPNan aurreikusitako ingurumeneko udal ordenantza onartzea.

Udalaz gaindiko eskumena

- Sektore eta lurralde plangintzetan aurreikusitako bide eta trenbide azpiegiturak garatzea, integrazio paisajistikoko eta leheneratze ekologikoko alderdiei arreta berezia jarrita.



MUGIKORTASUNA

Lotura duten Aalborgeko konpromisoak:

6. MUGIKORTASUNA HOBETZEA ETA ZIRKULAZIOA MURRIZTEA
10. TOKIAN TOKIKOTIK MUNDU GLOBALERA


AZPIEREMUA

DIAGNOSTIKOA

BALORAZIOA

Eguneroko mugikortasuneko eskariaren ezaugarriak

- 2008ko Ekobarometroaren datuen arabera, azken lau urteetan murriztu egin da desplazamendu sistematikoen proportzioa, lanera edo ikastera joateatekoak; egun, desplazamendu guztien % 45 dira. Gorantz doaz biztanle bakoitzak egunean egiten dituen desplazamenduen batezbestekoa (% 41,5 hazi da azken lau urteetan) eta egunean eginiko batez besteko distantzia ere (biztanle bakoitzak egunean eginiko distantzia 12,67 km-tik 15,05 km-ra igaro da).
- Mugikortasun jarraibideei esker, udalerrriak oinezkoen mugikortasun handia eta bizikleta bidezko mugikortasun nabarmena ditu bereizgarri. Desplazamenduen erdiak baino gehiago oinez egiten dira, eta auto pribatuan egiten diren desplazamenduak pixka bat murriztu dira, eta guztira egiten direnen laurdena dira.
- Desplazamenduen ia % 12 bizikletaz egiten dira, eta nabarmentzekoa da 2004. urtetik hona izandako hazkundera, orduan % 7,6koa baitzen bizikleta bidezko desplazamenduen proportzioa. Bizikletaren egungo erabilera udalerrriaren aktibo garrantzitsutzat hartu behar da, eta indartu egin behar da erabilera hori.
- Udalerriko bertako laneratzea % 59koa da (2001), 1991ko datuen aldean (% 63) behera egin du pixka bat. Udalerriko lanpostuen % 77 bertakoek dituzte, eta gainerakoetan kanpotarrak daude.
- Bertakoen % 11k Donostian lan egiten dute, eta horrek erakusten du Zarautzek eta Donostia hiriburuak duten bertako laneratze maila handia.



Iturria: Guk egindakoa, Ekobarometroaren datuetan oinarrituta

Mugikortasunaren kudeaketa eta plangintza

- Udalerriak 2005ean onartutako Mugikortasun Plana du, diagnostiko sakona eta jarduketa ildo oso zabalak dituen proposamena biltzen dituen. Jarduketa ildo horietako batzuk martxan dira dagoeneko.
- Zarautzek Urola Kostako Mankomunitateak kudeaturiko "Autoa partekatu" proiektuan parte hartzen du.



Garraio publikoa

- Garraio publikoak eginkizun garrantzitsua du bai bertakoentzat bai Zarautza erakarrirako bidaiarientzat. Eskaintako zerbitzuen maiztasuna baliabide desberdinen eta ordutegi fidagarritasunaren arteko koordinazioaren bidez doitu beharko litzateke. Auto pribatuaren aurrean garraio bide lehiakorra izateko, zerbitzuak maizago eskaini beharko lirateke.
- Azken lau urteetan hiriko bi autobus linea jarri dira martxan. Herritarrek garraio publikoari dagokionez duten asebetetze maila, ordea, txikitu egin da denboraldi honetan, eta horren erakusgarri da erabilera maila oso txikia.
- Oinezkoek geltokietarako duten irisgarritasuna 5-10 minutu artekoa da, udalerriko biztanleria eta enpleguak kontuan hartuta. 2005eko datuen arabera, **biztanleen % 96 garraio publikoaren lineetatik 300 m-ra edo gutxiagora bizi da**, eta lineak maiz igarotzen dira (ordu erdiro). 2008ko ekobarometroan elkarriketatutakoen % 48k, berriz, oinez 5 minutu baino gutxiago egin behar ditu garraio bide publikoaren geltoki batera iristeko.
- Tren zerbitzuak daude ordu erdiro Donostiara eta Bilbora, baita autobus zerbitzuak ere ordu erdiro Donostiarantz.



Oinezko eta bizikletentzako sareen ezaugarriak

- Hirigunearen erdi-erdiko gunearen zati bat oinezkoentzat jarri da, oztopo-zutoinak ipinita, ordu jakinetan hiriguneko eremu zabalagoa ere oinezkoentzat jartzeko aukera izateko.
- Zarautz bizikleta asko erabiltzen deneko udalerrria izan da. Hala ere, ez du bidegorri sarerik, ezta bizikletentzako bide kudeaketa egokirik ere. Bide tarte isolatuak egin dira udalerriko zenbait gule lotzeko, baina ez dute sare bat osatzen. Horrez gain, oraindik hedatzeke dagoen aparkaleku eskaintza handia ere egin da.
- Bada 2005ean onartutako Irisgarritasun Plan bat. Partaidetza saioan oso positibotzat hartu dira espaloi batzuetan egin diren obrak, eta oraindik bukatzeke daude galtzadako zein udal ekipamendu eta eraikinetako hesiak kentzeko aurreikusitako jarduketak.



Bide sarea

- Bide sareko lekuek hiri ingurunean beharrezkoak diren baketze jarduketak egiteko eta hiriko bide sarea hierarkizatzeke politikak garatzeko aukera ematen duten hiri intentsitateak dituzte. Partaidetza saioan merkataritza gunen batzuen inguruko zirkulazio arazo puntualak azaldu dira.
- Sarea gehiago hierarkizatu behar da, bide tarte gehiagotan abiadura motelaraziz eta baketuz. Saihesbidearen eraikuntzak hiri ibilbidea leheneratzeko aukera eman behar du.



Lurralde loturak eta irisgarritasuna

- Zarautzek oraindik garraio publikoaren bidezko lotura eskasa du probintziako beste udalerriekin eta EAEko Donostia, Bilbo eta Gasteiz hiriburuekin.
- Duela gutxi jarri da martxan Landabus; Aia udalerrria eta Orioko landa auzoak Zarautzekin lotzen dituen autobus zerbitzua.




Aparkalekuak

- Mugikortasun Planaren datuen arabera, bertakoentzako aparkaleku zuzkidura nahikoa baino gehiago da, izan ere, plaza asko daude bidean (5.356), baita garajeetan ere (7.509). Vista Alegre, Itxasmendi eta Izeta Plazako ingurua dira gauez aparkatzeko zailtasun handienak ematen dituztenak, haien inguruan lekua egoten den arren. Udalerri osoan 1.299 plaza libre daude gaueko zenbaketan, eta 373 ibilgailu gaizki aparkatuta.
- 2007an TAO sistema jarri zen martxan Zarauzko herrigunean, aparkalekua kudeatzeko neurri gisa, hiru erregulazio zona bereizita. Horietako bi udan bakarrik egoten dira martxan.
- Udan nabarmen areagotzen dira aparkatzeko arazoak. Periferian aparkatzeko guneak adieraziz proba egin den arren, ez dago aparkatzeko eskaeraren hazkunde nabarmenari erantzuten dion neurririk.
- Aparkatzeko arazoak izaten dira anbulatorioan, partaidetza saioan azaldu bezala, eta ohikoa izaten da debekatutako lekuetan (biribilguneak, espaloiak, etab.) aparkatzea ere.






Motorizazioa eta ibilgailuak

- EAE osoko dinamikei jarraiki, motorizazio indizean (ibilgailu kopurua mila biztanleko) etengabeko hazkunde handia izan da, **probintziako gainerako tokiekin alderatuta motorizazio indizea nahiko baxua** den arren; dena dela, horrek ez du balizko hazkunde baterako aitzakia izan behar.
- Azkeneko datuek, 2007koek, aurreko urtearekin alderatuta indize globala pixka bat murriztu dela erakusten dute, baina ez turismoen indizea; horrek gorantz jarraitzen du.



Iturria: Guk egindakoa, Eustaten datuetan oinarrituta

AZPIEREMUA	DIAGNOSTIKOA	BALORAZIOA
Istripu tasa	<ul style="list-style-type: none"> Hiri bideetan ez dira istripu asko izaten, baina Mugikortasun Planean islatzen diren 2002. eta 2003. urteetan 80 istripu izan ziren, eta beharrezkoa da kopuru hori murriztea. 	
Salgaiak	<ul style="list-style-type: none"> Ez dago salgaien garraioa behar bezala kudeatzeko berariazko azpiegiturarik. Oztopo-zutoin edo pibot batzuk ipini dira herrigunean, ibilgailu hauek goizeko ordu jakin batzuetan sartu ahal izateko. 	
Bide hezkuntza	<ul style="list-style-type: none"> Urtero egiten dira udalerriko eskola-umeei zuzenduriko bide hezkuntzako kanpainak. Udaltzainek beraiek ematen dituzte ikastaro praktikoak, bizikleta behar bezala erabiltzeko. Horrez gain, udalerriak hainbatetan parte hartu du mugikortasun iraunkorraren astearen ospakizunean. 	

AURREKO TOKIKO EKINTZA PLANA

Lotura duten ildo eta programak (*Lotura duten ildo eta programen kode eta tituluen erreferentziak*)

- 3. UDALERRIAN IBILGAILUEN TRAFIKOA ANTOLATZEA ETA IBILGAILU PRIBATUEN PRESENTZIA MURRIZTEA.
- 3.1 Hirigunetik igarotzea saihesten duten bide azpiegiturak garatzea.
- 3.2 Aparkatzeko guneen kudeaketa hobetzea.
- 3.3 Ibilgailu pribatu erabiltzearen eraginak murriztea eta mugikortasun sistema alternatiboak sustatzea, hirigintzako plangintzan eta jarduketetan oinez eta bizikletaz mugitzea bultzatzeko irizpideak gehituz.
- 3.4 Udalerriaren kalitate akustikoa hobetzea.
- 3.5 Udalerriaren irisgarritasuna bermatzea.
- 3.6. Bide sarea hobetzeko programa.

Garatzeke dauden eta garrantzitsuak diren indarreko ekintzak

- 3.3.1 Bizikletentzako bidegorriak eta aparkalekuak sortzen eta mantentzen jarrai dadin sustatzea.
- 3.3.2 Trenbidearen bi aldeetako pasealekuen arteko lotura hobetzea.
- 3.3.4 Udalerri barruan mugikortasun sistema alternatiboak sustatzera bideratutako sentsibilizazio, jarraipen eta kontrol planak bultzatzea.
- 3.4.1 Zaratari buruzko ordenantza berrikustea eta bertan ezarritako mugak egokitzea.
- 3.4.3 Udal zerbitzuetarako ibilgailu berriak (garbitzaileak, autobusak, etab.) erostean zein kontratatzean, oraingoek baino zarata txikiagoa ateratzen dutenak kontuan hartzea.
- 3.4.4 Jardueren ondoriozko zaratengatiko salaketa eta kexen etengabeko jarraipena egitea.

LOTURA DUTEN PLAN ETA ARAUDIAK

Udalerrian

- Zarauzko Mugikortasun Plana (2007)

EAEen

- Bilbo Metropolitarraren Lurralde Plan Partziala (2006ko azaroa)
- EAEko Trenbide Sarearen Lurralde Plan Sektoriala (2007)
- EAEko Garapen Iraunkorraren Plan Zuzentzailea (2002ko azaroa)
- Gipuzkoako Bizikletentzako Bideen Lurralde Plan Sektoriala (Aurrerapena, 2008ko abuztua)
- EAEko Errepideen 2. Plan Nagusia 1999/2010 (1999)

LEHENTASUNEZKO JARDUKETA EREMUAK

Udal eskumena

- Mugikortasun Planean aurreikusitako jarduketak garatzea eta bide sarearen hierarkizazioa osatzea, garraiobide iraunkorrei lehentasun handiagoa emate aldera.

- Irisgarritasun Planean aurreikusitako jarduketak garatzea (Azken Portu auzoaren urbanizazioa, Zelaiondo auzoaren urbanizazioa eta udal eraikinaren egokitzapena, batez ere).
- Bidegorrien sarea garatzea bizikletarentzako berariazko plan bat eginez.
- Hiriko garraio publikoaren eskaintza hobetzea eta garraiobide publikoen erabilera sustatzea.
- Aparkamendu eraginkorra kudeatzeko beharrezkoak diren hobekuntzak aztertzea, bereziki udarako, eta disuasio aparkalekuekin lotzen diren anezka autobusen proposamena garatzea.
- Kudeaketa neurriak eta sentsibilizazio kanpainak bultzatzea; “eskolako bide” seguruen proiektuak garatzea, adibidez.
- Ibilgailuen eragin akustikoa murrizteko kanpainekin jarraitzea, zerbitzu publikoetako ibilgailuei arreta berezia jarrita.

Udalaz gaindiko eskumena

- Hiri arteko garraio publikoaren eskaintza hobetzea, garraiobide desberdinen eskaintzaren maiztasunak eta osagarritasuna areagotuz.
- Trenaren trazadura banatu eta lur azpitik eraman, hirigunearen iragazkortasuna hobetzeko eta egungo trazaduraren eragin akustiko eta paisajistikoa murrizteko.
- Saihesbidea garatu eta hiri ibilbidea birmoldatu, baketutako hiri bide bihurtzeko.



BIODIBERTSITATEA ETA PAISAIA

Lotura duten Aalborgeko

konpromisoak:

3. NATUR ONDASUN KOMUNAK

AZPIEREMUA	DIAGNOSTIKOA	BALORAZIOA
Natura eta paisaia balioak	<ul style="list-style-type: none"> • Udallerriak natura eta paisaia balio oso aipagarriak ditu; babestutako habitat asko, askotariko fauna eta turismo eta ondare aldetik interes handia duen paisaia. 	
	<ul style="list-style-type: none"> • Landaredia naturala eta bertako basoak udal lurraldearen % 16 baino ez dira. Antzinako zuhaitz hostotsuen basoen ordeko belardien eta labore atlantiarren azalera, berriz, % 50ekoa da. Konifero exotikoen baso sailek eta eremu urbanizatuek lurraldearen % 27 hartzen dute. 	
	<ul style="list-style-type: none"> • A-8 errepidearen hegoaldeko ia eremu osoa nagusiki belardiak eta labore atlantiarrak dituen nekazaritza paisaia da. Aldapa handieneko hegaletan baso misto naturalak eta landatutako baso sailak sastrakadiekin tartekatzen dira, erabilera desberdinen arteko kontraste kromatiko handiko paisaia eratuz. Aldiz, A-8 errepidearen iparraldean, hiri eremuak eta Santa Barbara eta Talaimendi gainak alboan dituzten azpiegiturak dira nagusi. 	
	<ul style="list-style-type: none"> • 12 landare mota desberdin identifikatu dira, eta, horien artean, kostaldeko duna eta hondartzetako landaredia eta artelatze basoak nabarmentzen dira beren balioarengatik. 	
	<ul style="list-style-type: none"> • Iñurritza ibaiaren bokalearen inguruan eremu murrizta baina natura aldetik balio handia duen gunek bat eratzen da. Euskal Autonomia Erkidegoko itsasertzeko duna eremu zabalena eta ondoen kontserbatutakoa da, marisma zati txikiekin batera. Gune honek natura aldetik balio handia du EAEn, mota honetako espazioetako flora berezia dela eta (kostaldeko hondartzetako flora, bereziki). EAeko flora psammofiloa kontserbatzeko gune baliotsuena da. Bertan daude EAEn ezagutzen diren <i>Medicago marina</i>, <i>Galium arenarium</i> (EAeko eta Akitaniako kostaldeetako endemismoa) eta <i>Alyssum loiseleurii</i> (Kantabriako eta Frantziako hego-mendebaldeko kostaldeetako endemismoa) espezieen populazio bakarrak. 	
	<ul style="list-style-type: none"> • Faunak ez ditu hain ezaugarri baliotsuak, habitat zingiratarren tamaina murriztaren eta gizakien bertaratze maiztasunaren ondorioz. Estuarioaren antzinako eremuaren parte izanik, padura subhalofilo partzela ugari geratzen dira, ikuspegi ornitologikotik oso interesgarriak diren lezkadi eta sastrakadiekin kolonizatutakoak, migrazio paseriforme zingiratarrean habia egiten baitute edo sedimentatzen baitira. Azken hamarkadetan murriztu egin dira hegazti hauen banaketa eta ugaritasuna EAEn. 	
	<ul style="list-style-type: none"> • Iñurritza eta Oria ibai bazterren artean kosta tarte arrokatu bat 	

dago, olatuen zipriztinak hartzen dituen habitat bateko baldintza gogorretara egokitutako flora baliotsua mantentzen duten labarrekin. Gainerako itsasertza habiak egiteko gune egokia da beren bizitza zikloaren gainerakoa estuarioetan eta kostaldeko itsasaldean egiten duten hegaztientzat.

- **Garate - Santa Barbara gunean daude Euskal Autonomia Erkidegoko artelatzen baso bakarrak**, horietako asko hondarrak baino ez diren arren. Zuhaitzi hauetako flora beste multzo azidofilo batzuen antzekoa da, arteak, ametzak eta haritzen bat barne direla. Sektoreko landaredian intsinis pinu sailak, baserri inguruetako belardiak eta ote zuri eta garo sastrakadiak dira nagusi. Azken urteetan, lurralde honetan indarrez agertu da nekazaritzako erabilera berri bat; "Getariako txakolina" izendapeneko ardoa ekoizteko "Hondarribi" barietateko mahastiak. Paisaia multzoa landazabal kantabriar gisa definitzen da, eta egitura eta izaera desberdineko elementu biologikoak biltzen dira bertan.
- **Udalerrian lau zuhaitz berezi identifikatu dira, interes berezia dutenak:** Albertia mendiko hagina, "Hendaia"-ko ginkoa, Zeleta Berriko eta Sanz Eneako magnoliak eta Balentzegiko artea. Horietako bat bera ere ez dago EAEko Naturgune Babestuen Sarean zuhaitz berezizat hartutakoen artean, baina nabarmentzekoa da Pagoetako haginarekiko eta Getariako artelatzenarekiko duten hurbiltasuna.
- **Zuhaitzi handiak (hariztiak eta pagadiak) dira nagusi Pagoeta mendiaren iparraldeko hegaletako paisaian, eta horietako gutxi batzuk Zarauzko udalerrian daude.** Hariztiak, Pagoetako sektorean gaur egun beste landaredia batzuen aldean azalera murrizta hartzen dutenek, balio ekologiko handia dute, izan ere, probintziako gainerako tokietan ia ez dago aintzat hartzeko moduko harizti sailik. Pagoetako sektorea landazabal atlantiarreko balio handiko paisaiak kontserbatzeagatik nabarmentzen da. Paisaia horiek estrategikoki oso garrantzitsuak dira hegazti-fauna migratzaile edo negutarrarentzat, eta hainbat mustelido hartzen ditu bertan; lepazuria, katajineta, erbinudea eta ipurtatsa, eta intereseko beste ugaztun batzuk ere bai; basakatua, muxar grisa eta ekialdeko ur-arratoia, baita hainbat harrapari ere; miru beltza, zapelatz liztorjalea, sai zuria, belatz handia eta sugezale europarra.






Natura sistemaren eta paisaiaren kontserbazio egoera

- Egungo landare panorama asko aldatu da, iparraldean batez ere; kostaldeko padura eta hondartza inguruetako landaredia bereizgarria hiri eremuekin ordeztu da. Hegoaldeko herenean, aldiz, badira zuhaitz hostotsuen sail batzuk sakanetan, belardi eta laboreekin tartekaturiko labore bakarreko (koniferoak) baso hegalean ohiko mosaikoa osatuz.
- Ibaietako ekosistemek aldaketa handiak jasan dituzte lautada alubial estuei lurra irabaztearen kontura hiri edo industria lurzorua lortzeko beharraren ondorioz, eta horrek erriberako landaredia desagerrarazi du.
- Iñurritza aldeko zati handi bat duna eremuaren morfologia eta bertako landaredia aldatu zituen golf zelai batek hartzen du. Nabarmenezkoa da aldaketa gutxien jasan duten inguruetan, golferako ereindako zelaien artean, itsasertzeko hondarretako berezko flora espezieak mantentzen direla, baina eremuaren kudeaketak eta erabilerak habitateko baldintzak alda ditzakete. Iñurritza ingurua txikia da, eta horrek zaildu egiten du ornodunen fauna populazioak bertan modu iraunkorrean finkatzea.
- Iñurritza sektorea kontserbatzeko mehatxu nagusia jasaten duen presio bizia da. Hondartza, bi kanpaleku eta finkatuta dauden eta jende asko ibiltzen deneko pasealekuak dituzenez, presio handia du aisialdiko erabileren aldetik. Mareak edo ibairako isurketek ekartzen dituzten hondakin solidoek, berriz, paisaia hondatzen dute.
- Iñurritza aldeko uretan gora, ibaiaren egitura nabarmen aldatzen da (Irita parkean bideratuta) eta padura subhalofilo inguruek eraldatzeko arriskua dute. Ibaiko uren kalitatea ez da onena, azken urteetan arazketa ekintzei esker hobetu egin den arren. Hori ere aipatu da partaidetza saioan.
- Bestalde, komeni da adieraztea lursail alubial askotan baratzeak




AZPIEREMUA	DIAGNOSTIKOA	BALORAZIOA
	<p>eta komunikabideak egin direla, eta habitat baliotsuen azalera eta funtzionalitatea murriztu direla. Azkenik, aipagarria da flora komunitateetan geroz eta presentzia handiagoa dutela landare inbaditzaileek.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Etorkizunera begira, hainbat azterlanek aldaketa klimatikoaren ondorioz itsasoaren maila igo egingo dela aurreikusten dute. Udalerriko itsasertzaren dinamikari buruzko azterlana egiten ari dira, eragin horien magnitudea zehaztasun handiagoz ezagutzeko (ikusi aldaketa klimatikoari buruzko fitxa-diagnostikoa ere). • Pagoeta sektoreko kontserbaziorako mehatxu nagusia gunen horren erabilera publiko bizia da. Inguru zehatz batzuetan bada gehiegizko abeltzaintzaren presioa ere. Gizakiaren esku-hartzeak, ikatza egiteko baso mozketak batez ere, pagadia hedatzen lagundu du. Horrez gain, akaziak (<i>Robinia pseudoacacia</i>) espezie inbaditzaile gisa jokatzen du eta unada monoespezifikoak eratzten ditu. • Garate - Santa Barbara eremuko artelatz eremu potentzialaren zati handiena baso sailek hartzen dute, nekazaritza eta abeltzaintzako ustiaketen presio handiarekin. Epe luzera oso zaila izango da unadak mantentzea, oin isolatuak desagertzen ari baitira, birsortzeko aukerarik gabe. • Hiri Antolamendurako Plan Nagusiak (HAPN) azkenaldian udalerriko landa ingurunean eragina izan duten arazo desberdinak nabarmentzen ditu: erreka nagusien isurialdeetako hegaletan bertako landaredia koniferoen baso sailekin ordeztzea, homogeneotasun kromatikoa eta paisajistikoa aldatuz eta baso mozketak garaietan higitze prozesuak eta uholdeak erraztuz; azpiegitura linealek eta industrialdeek eragindako inpaktu paisajistikoa; ibai ibarretako landazabala eremu urbanizatuekin ordeztzea; erreka bazterretako basoak kentzea; ubideak eta erriberak eraldatzea, kanalizazioen bidez eta haien trazadura aldatuz; nekazaritza ibarrean sakabanatutako betelan, hondakindegia eta zabortegeak; ubideetara zuzenean egiten diren nekazaritzako eta hiriko isurketen ondorioz gainazaleko urak kutsatzea; padura bazter urrien gaineko hirigintza presio oso handia. 	
<p>Naturgune babestuak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Udallerriaren azalera osoaren % 13,7 babestutako azalera da (2005eko datuen arabera). Udalerrian Europar Batasuneko eremuan Interes Komunitarioko Toki (IKT) izendatutako hiru gune daude, eta horrek ondare natural honen garrantzia erakusten du eta babesten laguntzen du. • Iñurritza eremuko biotopo babestua, hirigunearen ekialdean, interes handiko gune naturala da. Babestutako biotopo izendapen ofiziala otsailaren 25eko 40/1997 Dekretuaren bidez eman zion administrazio autonomikoak. Natura 2000 Sarean 	

sartuta dago (ES2120009). Gune honek 50 ha baino gehixeagoko azalera du, eta, **biodibertsitate handia** izateaz gain, **paisaia bereizgarria** du. **Interes komunitarioko 13 habitat** ditu (2 lehentasunezkoak), gunearen % 78 hartzen dutenak. Lehentasunezko gisa nabarmentzen dira belar landaredia duten kostaldeko duna finkoak (duna grisak) (2133 eta 2137 kodeak), % 11ko presentziarekin. Inurritzako Biotopoko Plan Berezia egin da, eta hasierako onarpena eman zaio Inurritza eremuko Baliabide Naturalen Antolamendu Planari.

- **Garate - Santa Barbara** ingurua, udalerrriaren ipar-ekialdean, Europako naturguneen Natura 2000 Sarean sartuta dago (ES2120007) EAeko artelatzen lekuko gehienak bertan daudelako. **Interes komunitarioko 5 habitat** ditu (ez dira lehentasunezkoak), gunearen % 60 hartzen dutenak. Gune horretarako Babes eta Kontserbazio Plan Berezia egin zen, eta Natur Intereseko Eremu kalifikatu zen. Gune hau Natura 2000 Sarean sartzearen helburua, alde batetik, gaur egungo zuhaitz masen hedadura mantentzea da eta, bestetik, egun desagertuta dagoen inguruetan berreskuratzea. Gunea katalogatzearen helburu nagusia hori den arren, baditu beste balio nabarmen batzuk, eta, horien artean, nabarmentzekoak dira kordaletik kostaldera dauden ikuspegi zoragarriak edo Zarauzko aisialdirako eremu gisa betetzen duen funtzioa.
- Horrez gain, aipagarria da **Pagoetako Parke Naturalarekiko** hurbiltasuna; haren zati txiki bat Zarauzkoa da. Udalerrriaren hegoaldeko muga dagoen parke hau eskualde osorako birika bikaina da. 1998an izendatu zen ofizialki parke natural, eta Natura 2000 Sarean dago (ES2120006). **Interes komunitarioko 6 habitat** ditu, eta horietako 3 lehentasunezkoak dira: belardi lehor erdinaturalak eta karezko substratuen gaineko sastrakadi faziesa (*Festuco-Brometalia*), mendi inguruetako substratu silizeoen gaineko *Nardus*-dun egitura belartsuak eta *Alnus glutinosa* eta *Fraxinus excelsior* espezieen baso alubialak.
- Aurrekoetz gain, aipatzekoak dira **udalerrriaren mendebaldeko itsaslabarrak** eta, oro har, itsasoko zein lurreko jabari publikoko eta haren babes zortasuneko azalerak, eta ubide naturalen jabari publiko hidraulikoko azalerak.
- **Zarauzko HAPNk babes bereziko gune** batzuk zehazten ditu, eta horien artean daude *Quercus suber* espezieko zuhaitzi txikiak. Babestuta egoteak espezie hori mantentzea bermatzen du.
- **Zarauzko HAPN** EAeko Korridoreen Sarera egokitzen da Pagoetako eremua Babes Bereziko Eremu gisa hartzean, sare honetan nukleotzat hartzen da eta. Ubideen korridore ekologiko funtzioa sustatzeko beharra ere jasotzen du eta, horren haritik, Gainazaleko Urak Babesteko Eremu kategoria ezartzen da, eta zona batzuk Baso Babesle kategorian sartzen dira, helburu

horrekin, hain zuzen.

- Nekazaritza intereseko eremuak, interes hidrologikoko eremuak (gainazalekoak eta lurpekoak) eta itsasertzeko intereseko eremuak ere zehazten dira udalerrriaren barruan.
- Ingurune naturala babestearen erakusgarri dira hezeguneen Lurralde Plan Sektoriala (LPS), ibai eta erreken LPS eta itsasertzeko LPS bezalako beste tresna batzuk ere.



Zarauzko naturgune babestuak

Iturria: EAEko paisaia berezi eta bikainen katalogoa

Ingurune naturalaren kudeaketa

- PAGOETako sektoreak badu Baliabide Naturalen Antolamendu Plana (BNAP), urriaren 28ko 205 zk.ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratutako 253/1998 Dekretuaren bidez behin betiko onartutakoa. Beste naturgune batzuetan ez bezala, gune hau kudeatzen duen organoa ia lursail osoaren jabea da, eta hori mesedegarri da kudeaketarako.
- 2006ko abenduan hasierako onarpena eman zitzaion Iñurritza eremuko Baliabide Naturalen Antolamendu Planari. Oraindik ez da behin betiko onartu.
- Santa Barbara babesteko eta kontserbatzeko plan berezia hasierako prestaketa fasean dago.



AURREKO TOKIKO EKINTZA PLANA

Lotura duten ildo eta programak *(Lotura duten ildo eta programen kode eta tituluen erreferentziak)*

- 1. BALIO NATURAL ETA PAISAJISTIKOAK UDALERRIKO ELEMENTU BEREZI GISA SUSTATZEA.
- 1.1 Udalerriko biodibertsitatea eta paisaia zaintzea.
- 1.2 Udal antolamenduan udalerriko eremu eta elementu garrantzitsuak babesteko erabakiak barne hartzea.
- 1.3 Udalerriko sistema naturalak dibulgatzeko jarduketak egitea.
- 1.4 Lurzoru degradatuen kalitatea zaintzea.

Garatze dauden eta garrantzitsuak diren indarreko ekintzak

- 1.1.2 Natura, ekologia eta paisaia aldetik interesa duten beste inguru batzuek gain, berdegune babestuak ere hobeto kudea daitezela bultzatzea.
- 1.1.4 Zarauzko hondartzaren irudia ziurtatzea, hondartzako zerbitzuak esleitzeko baldintza agiriari ingurumen eta paisaia aldetik irizpide batzuk ezarritik.
- 1.1.5 Inguruko biodibertsitate natural guztia identifikatzera eta kudeatzera bideratutako planak eta azterlanak garatzea.
- 1.2.1 Inhurritzako biotopoa leheneratzeko plan berezia betetzen dela kontrolatzea.
- 1.2.3 Berdeguneak, gune publikoak eta hiri altzariak mantentzeko ingurumen praktika onen eskuliburua idaztea (Urola Kostako Mankomunitatean birplanteatuta).
- 1.3.2 Herritarrek bidezidorrerik, aisialdiko inguruerik eta hondartzari dagokienez zein balorazio egiten duten jakitea.
- 1.3.3 Dauden sistema naturalen eskualdeko eskaintzari lotuta egiten diren heziketa eta sentsibilizazio programen jarraipena egitea.

LOTURA DUTEN PLAN ETA ARAUDIAK

Udalerrian

- Zarauzko Hiri Antolamendurako Plan Nagusia (2008ko otsaila)

EAEan

- EAEko Lurralde Antolamendurako Jarraibideak (1997ko otsaila)
- Zarautz-Azpeitiko Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partziala (Urola Kosta), 2006ko otsaila
- Ibai eta erreka bazterren Lurralde Plan Sektoriala (1998)
- Pagoetako Baliabide Naturalen Antolamendu Plana (BNAP), 253/1998 Dekretua.
- Inhurritza eremuko Baliabide Naturalen Antolamendu Plana. Hasierako onarpena. 2006ko abenduaren 20ko AGINDUA.

LEHENTASUNEZKO JARDUKETA EREMUAK

Udal eskumena

- Dagoeneko zehaztuta dauden eta natura eta paisaia aldetik interesgarriak diren guneak babesten eta kudeatzen jarraitzea.
- Lurraldea zaintzeko mekanismoak garatzea eta lurzoruaren erosketa puntuala estrategikoki ebaluatzea.
- Dagoeneko babestuta dauden guneetatik kanpo udalerrian dauden balio ekologiko, paisajistiko eta zientifiko-kulturalen kontserbazioa eta gune degradatuen leheneratzea eta birsorkuntza bermatzea eta sustatzea.
- Ibai ingurunearen ezaugarriak leheneratzea, Irita parkearen parean Iñurritza ibaia desbideratuz, eta Igerain ibaiaren egoera naturala leheneratzea.
- Jarduera tradizionalak eta landako biztanleak baliabideen kontserbazioarekin lotzea erdiestea, modu arrazionalen ustia daitezen planifikatuta.
- Ingurune naturalaren balioak eta balio horiek behar bezala mantentzeko jarraibidea dibulgatzeko kanpainak egitea, aire zabaleko aisialdi guneak eta natur ibilbideak eskainiz, biztanleen eskaria asetze aldera.

Udalaz gaindiko eskumena

- Iñurritzako Baliabide Naturalen Antolamendu Plana behin betiko onartzea eta bertan jasotako jarduketak garatzea.
- Pagoetako Baliabide Naturalen Antolamendu Planean eta Erabilera eta Kudeaketa Plan Gidarian jasotako jarduketak garatzea.
- Ingurune naturalaren antolamenduari buruzko Lurralde Plan Sektorialen aurreikuspenak garatzea.

4.2 BALIABIDE NATURALAK, HONDAKINAK ETA INGURUMENAREN KALITATEA



URA

Lotura duten Aalborgeko


konpromisoak:

3. NATUR ONDASUN KOMUNAK

AZPIEREMUA	DIAGNOSTIKOA	BALORAZIOA
------------	--------------	------------


Hornikuntza eta banaketa sarea

- Hornikuntza eta altako banaketa, eta edateko uraren kobrantza eta osasun kontrola, Gipuzkoako Ur Kontsorzioak kudeatzen du. Udala bajako sarearen kontrolaz eta mantentze lanez arduratzen da. Zarautz Urola erdialdea-behereako hornikuntza sisteman sartzen da. Sistema horrek udalerrri hauek barne hartzen ditu: Azkoitia, Azpeitia, Zestoa, Zumaia, Getaria, Zarautz eta Orio.
- Banatutako uraren gehiengoa Ibai-Eder urtegitik ateratzen da. Urteta auzoa bakarrik hornitzen da bertako akuiferoko urarekin. Azpiarro horretako hornikuntzarako autosufizientzia maila egokia dela uste da.
- Uraren guztizko altako banaketa % 11 jaitsi da 2004 eta 2007 artean. 2007ko banaketa 2.036.697 m³-koa izan zen.
- Era berean, **zenbatu gabeko kontsumoek ere jaisteko joera dute** eta, 2007an, EAeko II. Ingurumen Esparru Programan zehaztutako zenbatu gabeko bolumenak % 25 baino baxuagoak izateko konpromisoaren azpitik zeuden.



Iturria: Gipuzkoako Ur Partzuergoa

- Banatutako uraren kalitatea onargarritzat hartzen da eta dagokion araudia betetzen du, kalitate maila egonkorrari eutsiz.



Iturria: Udalmap


(Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Osasun Publikoko Zuzendaritza Nagusia. EAEko Edateko Uraren Informazio Sistema (Ekuis): 3 Ona; 2 Onargarria; 1 Eskasa; 0 Zehaztu gabea)

- Edateko uren sare eta azpiegituren estaldura maila nahikoa dela uste da, ia udalerrri osoa hartzen baitu.
- Gaur egun, ez dago euri uren ustiapenerako sistemak ezartzeko aurreikuspenik.
- Modu positiboan baloratzen da bideak garbitzeko zerbitzuak tratatu gabeko ura erabiltzea, garbiketa lanak egiteko.




Eskaria eta kontsumoa

- Gipuzkoako Ur Partzuergoak altako eskariari eta udalerriko kontsumoari buruzko informazioa ematen dio Udalari.
- Modu positiboan baloratzen da etxeetako ur kontsumoaren beheranzko joera. 2007ko balioa Udalsarea 21eko batezbestekoaren gaineratik badago ere (2006rako, 120,8 l/bizt/egun, EAEko II. Iraunkortasun Txostenaren arabera), datu egokia dela uste da, Zarautz udalerrri turistikoa dela kontuan hartuta. Horri dagokionez, kontsumoak urtean zehar biztanleriaren kopuru altuago edo baxuagoen arabera izaten dituen aldaketak azpimarratu behar dira.



Iturria: Gipuzkoako Ur Partzuergoa

- Sektorekako sareko uraren kontsumoari dagokionez, etxeko kontsumoa industriakoaren edo zerbitzuetakoaren gainetik dago argi eta garbi. Ereku horretan, aipagarria da ez dagoela industrian eta nekazaritzan egindako hartzeen kontrolik, beraz, kudeaketa orokorrerako beharrezko informazioa ez da osoa. (!)



Iturria: Gipuzkoako Ur Partzuergoa

- Gaur egun, ez daukagu udal bulego eta eraikinetan egiten den kontsumoaren daturik. GIS sistemari esker, kontadoreetako datuak lortuko direla aurreikusten da, beraz, laster zuzenduko da gabezia hori. (!)








Saneamendua eta arazketa


- Udalak kudeatzen ditu bajako saneamendu sarea eta euri urak bereizteko sarea.
- Hondakin uren saneamendurako sare eta azpiegituren estaldura maila % 95ekoa da, beraz, egokia dela uste da.
- Landa lurzoruan dauden eraikinetan, sarera konektatu gabeko isuriak egoten dira. Era berean, urbanizazio lanak direla eta, euri uren sarera konektatutako saneamenduak edo zuzenean ubidera egindako isurketak hauteman dira. **Saneamendurik gabeko isuriak egotea aldi baterako arazoa dela eta udalak kontrolpean duela uste da. (!)**
- Parte-hartze bilkuran isurpenak ibaien zati altuenetan egiteak uraren kalitatean duen eragina azpimarratu zen.



- **Modu positiboan baloratzen da euri urak bereizteko sarea egotea, energia aurrezte eta hondakin urak garbitzean kalitatea hobea izatea ahabidetzen duelako, eta euri urak hondartzan ez direla isurtzen bermatzen duelako.**
- Altako saneamendu sarea Gipuzkoako Ur Partzuergoak kudeatzen du, eta baita Zarautz eta Oriñorri zerbitzua ematen dion Inurritzako HUA (hondakin uren araztegia) ere, ohantze fluidizatuzkoa (bioiragazkiak)



	<p>eta prozesu fisiko-kimiko bidezkoa.</p> <ul style="list-style-type: none"> HUAK lohiak tratatzen ditu, zentrifugazio eta lehorketa bidez. Gaur egun, HUAtik datozen lohiak hiri hondakin solidoen zabortegian uzten dira. Hala ere, Gipuzkoako Lurralde Arloko Planak hondakin horiek lehortu eta erraustea aurreikusten du, eskualdeko zabortegia itxi ondoren. Gaur egun, araztutako urak ez dira berrerabiltzen. Golf zelaiak horiek erabiltzeko interesa erakutsi du, baina HUAK ez du aukera hori onartzen. 	
Uraren zikloaren inguruko arauak eta kudeaketa	<ul style="list-style-type: none"> Ur edangarriaren hornikuntzagatiko lau tarifa mota daude, erabileraren arabera: etxekoa, nekazaritzakoa, suteak itzaltzeko eta beste batzuk. Modu negatiboan baloratzen da egitura inposatzaile horrek ez barne hartzea ura aurrezteko sustapen mekanismorik, ez baitago kontsumo tartetan banatuta. (!) Parte-hartze bilkuretatik, etxeetan ura aurrezteko sistemen ezarpena sustatzea proposatzen da, sustagarri ekonomikoen bidez. Udalerriak Zarauzko Udalaren kolektorera isurketak araupetzen dituen erregelamendua du, estolderia publikoaren sarera egindako isurketak arautzen dituena. 	 
Sentsibilizazioa	<ul style="list-style-type: none"> Udalerriko uraren erabilera eta iraunkortasunarekin zerikusia duen sentsibilizazio jardura nabarmena dela uste da. 2007an, urteroko sentsibilizazio kanpainako gai nagusia ura izan zen. Gipuzkoako Ur Kontsortzioak hiru hilez behin bidaltzen duen faktura herritarrak ura arrazoiz erabiltzeko kontzientziatzeko erabiltzen du. Era berean, Udalak herriko eraikin eta bulegoetan, iturri publikoetan eta ikastetxeetan jarri diren eranskailuak egin ditu, ura aurreztera bultzatzen dutenak. Zarauzko biztanleen % 12k uste dute uraren kutsadura eragozpen gehien sortzen dituen ingurumen arazoa dela (2008ko Ekobarometroa) eta, inkesta egin zuten pertsonen arabera, alderdi horrek laugarren tokia hartzen du Udalaren lehentasunezko ekintzen artean. Inkesta egin zuten biztanleen % 79k normalean etxeko ur kontsumoa murrizteko asmoz jotzen dutela baieztatu zuten (2004an % 56k). Eta % 97 bere ohiturak aldatzeko prest egongo lirateke, etxeko ur kontsumoa murrizteko. Sentsibilitate maila altu horrek eta kontsumoa jaitsi izanak egindako sentsibilizazio kanpainak eraginkorrak direla adieraz dezakete. 	
Uraren kalitatea	<ul style="list-style-type: none"> Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailari dagokio bainatzeko uren kalitatea kontrolatzea. Azken urteetan, lagin gehienek kalitate ona edo onargarria adierazten dute. 	



Iturria: Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza

AURREKO TOKIKO EKINTZA PLANA

Lotura duten ildo eta programak (*Lotura duten ildo eta programen kode eta tituluaren erreferentziak*)

- 6. UR KONTSUMOA GUTXITZEA ETA HONDAKIN UREN SANEAMENDU SISTEMA HOBETZEA.
- 6.1 Uraren hornikuntza sarearen kudeaketa hobetzea eta ur kontsumoa gutxitzea.
- 6.2 Hondakin uren tratamendua saneatu eta hobetzea.

Garatzeke dauden eta garrantzitsuak diren indarreko ekintzak

- 6.1.4 Uraren kontsumoa aurrezteko neurriak aintzat hartzea proiektu berrietan eta udal berrikuntzetan.

LOTURA DUTEN PLAN ETA ARAUDIAK

Udalerrian

- Zarauzko Udalaren kolektorera isurketak araupetzen dituen erregelamendua

EAEan

- 1/2006 Legea, ekainaren 23koa, urari buruzkoa.
- Uraren esparru zuzentaraua (2000/60/EE)

LEHENTASUNEZKO JARDUKETA EREMUAK

Udal eskumena

- Udal ekipamenduen kontsumoen kontrola eta segimendua.
- Hornikuntza sarea pixkanaka ordezkatzeko, batez ere, zuntz-zementuzko sareak beste material batzuekin ordezkatzeko.
- Inbertsio plan baten elaborazioa, pixkanaka hornikuntza eta saneamendu sarea hobetzeko.
- Saneamendurik gabeko isurien arazoa konpontzea.
- Uraren tarifiaren aurreztera bultzatzen duten aldaketak sartzea.

Udalaz gaindiko eskumena

- Ez da antzeman udalaz gaindiko eskumeneko lehentasunezko jarduketaren eremurik.



HONDAKINAK

Lotura duten Aalborgeko konpromisoak:

4. KONTSUMO ETA BIZIMODU ARDURATSUAK
10. TOKIAN TOKIKOTIK MUNDU GLOBALERA


AZPIEREMUA

DIAGNOSTIKOA


BALORAZIOA

Hiri hondakinen sorrera

- Hiri hondakinen sorrerak joera egonkorra du, 1,5 kg/bizt/egun inguruan. 2007an, 1,53 kg hondakin/bizt/egun sortu ziren; balio horrek EAEn 2005eko batezbestekoa berdintzen du. Hala ere, udalerrri turistikoa denez, beharrezkoa da kontuan izatea urtaroen arabera biztanle kopuru gehigarria.
- Gaur egun, EAEk 2012rako duen helburua gainditu egiten da (1,44 kg/bizt/egun), beraz, oso garrantzitsua da 2006tik egon den beheranzko joera egonkortzea.




Iturria: Urola Kostako Udal Elkarte eta Zarauzko Udala



Iturria: Urola Kostako Udal Elkarte eta Zarauzko Udala

Gaikako bilketa

- 2005ean behera egin bazuen ere, goranzko joera egon da hondakinen berreskuratze bilakaeran. 2007an gaika jasotako 2.003.301 kg egon ziren (% 16).
- **Hondakinen bereizketa indartzeko beharra** dago, EA Eren batezbestekoaren azpitik baitago (2005ean % 29). Gainera, EAEko II. Ingurumen Esparru Programan zehaztutako % 35eko konpromisoa eta 2016rako % 45,3ko helburua (Gipuzkoako Hondakinen Plan Orokorrak ezarritakoa) lortu behar da. (!)



Iturria: Urola Kostako Udal Elkartea

Hiri hondakinen kudeaketa eta tratamendua

- Udalerriko hondakinen bilketa eta kudeaketa zerbitzuen zati handi bat Urola Kostako Udal Elkartearen esku dago. Udal Elkartea da gaikako bilketen eta eskualdeko garbigunearen eta zaborteagiaren arduraduna. Era berean, Udala arduratzen da gainontzeko frakzioa biltzeaz, tamaina handiko gauzak jasotzeaz eta etxeetako hondakinekin bateragarriak diren hondakin industrial, komertzial eta instituzionalen (EHIBH) gaikako bilketa egiteaz industrialdeetan, Udal Elkarteak gaur egun eskaintzen dituen aukeren osagarri gisa.
- Zerbitzu ezberdinak egiteko, emakidadun enpresa espezializatuak azpikontratatzeko dira.
- Gaikako bilketa egiteko, material hauek edukiontzietan biltzen dira: beira, papera eta kartoia, ontziak, ehunak, eta pilak; eta, landare olioak eta hondakin arriskutsuak, berriz, kamioneta baten bidez jasotzen dira. 2008. urtearen amaieratik, martxan dago hondakin organikoaren gaikako bilketaren proba pilotua, "norbanakotutako 5 sistema" ereduaren bitartez. Sistema horretan, edukiontzi espezifikoaren giltza ematen zaie bilketan parte hartu nahi dutenei. **Modu positiboan baloratzen da hondakinak sortzean bereizteko aukera.**
- Parte-hartze bilkuran modu positiboan baloratu zen hondakin organikoak gaika biltzeko zerbitzua egotea, eta hondakin horientzako edukiontzi gehiago instalatzea proposatu zen.



- Edukiontzia guztiak gainazalekoak dira. 2008an gaikako bilketari dagozkionak berritu egin ziren eta, lehengoan ordez, aldamenetik kargatzen diren edukiontzia jarri ziren. Gainera, Udalak "gainontzeko" frakzioaren edukiontzien ordez, bolumen handiagokoak jartzea aurreikusten du, aldamenetik kargatzea ahalbidetzen dutenak.
- Parte-hartzean adierazi zen beharrezkoa dela ontziak biltzeko edukiontzien zuloa aldatzea, hondakinak sartzeko errazteko.
- Abendaño, Errotaberri eta Hegoalde industrialdeetan egurra, papera eta kartoia, eta hondakin geldoak gaika biltzeko atez ateko zerbitzua ezarri da. Era berean, 2008an zerbitzuen sektoreak sortutako kartoia atez ate jasotzeko proba pilotu bati hasiera eman zitzaion. **Hondakin industrial bateragarrien gaikako bilketaren alde egiten duten zerbitzuak egotea positiboa dela uste da.**
- Udalerrian dago eskualdeko bi garbiguneetako bat. **Azken urteetan garbigunera egindako sarrera kopurua hazi izana** modu positiboan baloratzen da.







	2004	2005	2006
Garbigunerako sarrerak/1.000 biztanle	131	258	675

Iturria: Urola Kostako Udal Elkarte eta Zarauzko Udala

- Birziklagarriak ez diren hiriko hondakinak Urtetako zabortegira (Zarautz) eramaten dira. Zabortegia 2012an ixtea aurreikusita dago.(!)
- Gaur egun, udalerrian hondakinentzako bi azpiegitura daude: Zarauzko garbigunea eta Urtetako eskualdeko zabortegia. Biek Urola Kostako Udal Elkarte osatzen duten udalerriei zerbitzua ematen diete: Aia, Getaria, Zarautz, Zumaia eta Orio. Orain zabortegiak San Markos Mankomunitateko hondakinak ere bere gain hartzen ditu.
- Parte-hartze bilkuran, zabortegiaren ondorioz kaioak ugaritzearen arazoa konpontzeak duen garrantzia azpimarratu zen.
- Urtetako zabortegia ixteaz gain, Gipuzkoako Hondakinen Azpiegituren Arlokako Lurralde Planak egungo zabortegiaren inguruan **hiriko hondakinen transferentzia instalazioa eraikitzea** aurreikusten du.
- Era berean, Zarauzko Udalak eraikuntza eta eraipen hondakinak tratatzeko instalazio bat egin nahi du toki horretan bertan. Baina, oraingoz, Foru Aldundiak ez du onartu.
- Udalerrian ez dago kontrolik gabeko isurpen kasu esanguratsurik.



	<ul style="list-style-type: none"> • Zarautzek hiriko hondakinen bilketa eta kudeaketa arautzen dituen hiru ordenantza ditu. Horietako batek hiriko hondakinei egiten die erreferentzia, beste batek industrialde eta enpresa eremuetako hondakin bateragarrien bilketa zerbitzua ezartzen du eta, hirugarrenak, hondakin edukiontzia bide publikoetan jartzeko irizpideak ezartzen ditu. • Ez da aipatzen hondakinak murrizteko sustagarririk partikularren eta zerbitzuen sektorearen hiri hondakinak biltzeko zerbitzuaren tasa arautzen duten (etxebizitzaren edo jarduera ekonomikoaren arabera) zerga ordenantzetan. • Aldiz, modu positiboan baloratu da industrialde eta enpresa eremuetan EHIBH bilketaren zerga ordenantzaren hondakin gutxiago sortzeko sustagarriak sartzea. Bilketa hori instalazio gainazalaren eta kendutako edukiontzien arabera zehazten da. 	
Sentsibilizazioa	<ul style="list-style-type: none"> • Udan, Udalak herritarrei eta turistei zuzendutako sentsibilizazio kanpainak egiten ditu hondartzan hondakinak bereiztea sustatzeko, informazio liburuxken bidez. Hala ere, bereizketaren kalitatea baxua da. • Era berean, ostalaritza sektorea sentsibilizatzeko kanpaina egin da, ez ditzaten herritarrei zuzendutako malekoiko beira edukiontzia erabili. • Bestalde, Urola Kostako Udal elkarteak herritarrei zuzendutako sentsibilizazio kanpainak bultzatu ditu, dauden hondakinen kudeaketa zerbitzuak ezagutzera emateko eta hondakinak sorreran murriztu eta gaika biltzeari buruz kontzientziatzeko. Modu positiboan baloratzen da hondakinen murrizketarako lanekin hasi izana, nahiz eta emaitzak oraindik oso nabarmenak ez izan. • Herritarren % 12k uste dute hondakinena eragozpen gehien sortzen dituen ingurumen arazoa dela udalerrian (2008ko Ekobarometroa). Dena den, inkesta egin zutenen arabera, puntu horrek udal jardueraren lehentasunean bederatzigarren tokia hartzen du. • Era berean, inkesta egin zuten herritarren % 87k ezagutzen dituzte hondakinen gaikako bilketa puntuak (beira, papera, ontziak, olioak eta fluoreszenteak). Hondakinak ez bereizteko arrazoi nagusia etxeetako toki falta da eta, gero eta neurri txikiagoan, hurbileko edukiontzien falta, denbora falta edo ezjakintasuna. 	
Industria hondakinak	<ul style="list-style-type: none"> • 2005ean, 458 t hondakin arriskutsu egon ziren eta, horietatik, % 33 balioztatu ziren. Kopuru hori II. Ingurumen Esparru Programak ezartzen duen 2010ean hondakin arriskutsuen % 65 balioztatzeko helburutik urrun dago oraindik. (!) 	



Iturria: Ihobe

- Ekoizle txikiek sortutako hondakin arriskutsuen aitorpena murriztu egin dela uste da, beraz, ezin da horien kudeaketa egokia bermatu. Gipuzkoako Merkataritza Ganberak sektore hori informatzeko eta garraio kostuak murrizteko zerbitzuak emateko ekimenak ditu.

Nekazaritza hondakinak

- Abeltzaintza hondakinen sorrera neurritzkoa da. Orokorrean, abeltzainek hondakinak lurra ongarritzeko erabiltzen dituzte. Baina, batzuetan, hondakinak toki desegokietan erabili eta zuzenean ubideetara isurtzen dituzte. Praktika horien ondorioz, lurzorua eta urak hondakin organiko gehiegiren ondorioz kutsatuta egotea udalerriko arazo orokorra da.



Bideen garbiketa

- Bideen garbiketa hondakinak biltzen dituen emakidadun enpresa berak egiten du. 2009ko udatik aurrera kontratazio berri bat egingo da. Bestalde, hondartza garbitzea Gipuzkoako Foru Aldundiaren ardura da. Zerbitzua egokia dela uste da.



AURREKO TOKIKO EKINTZA PLANA

Lotura duten ildo eta programak (*Lotura duten ildo eta programen kode eta tituluaren erreferentziak*)

- 4. HONDAKINEN ETA HORIEK INGURUMENEAN DUTEN ERAGINAREN MURRIZKETA, ETA HONDAKINEN BERRERABILERA ETA BIRZIKLAPENA SUSTATZEA.
- 4.1 Hiri hondakinak murriztu eta birziklatzeko, herritarren sentsibilizazioa eta parte-hartzea areagotzea.
- 4.2 Gaikako bilketa egiteko beharrezko azpiegiturak ezartzea.
- 4.3 Udalerriko enpresek sortutako hondakin arriskutsuen kontrola handitzea eta industria hondakinen murriztapena indartzea.
- 4.4 Eraikuntza hondakinen kontrola areagotzea.
- 4.5 Udalerriko hondakinen kudeaketa hobetzea.

Garatzeke dauden eta garrantzitsuak diren indarreko ekintzak

- Eremu honetan ez da identifikatu oraindik garatzeko dagoen aurreko planeko ekintzarik.

LOTURA DUTEN PLAN ETA ARAUDIAK

Udalerrian

- Hiri hondakin solidoen kudeaketari buruzko udal ordenantza (GAO, 130 zk., 2008ko uztailaren 11koa)
- Industrialde eta enpresa eremuetako hondakinak biltzeko zerbitzua arautzen duen ordenantza (GAO, 104 zk., 2006ko ekainaren 2koa)
- Zarauzko udalerraren barruan edukiontzia bide publikoan jartzea arautzen duen udal ordenantza (GAO, 21 zk., 2003ko otsailaren 3koa)

EAEEn

- 3/1998 Lege Orokorra, otsailaren 27koa, Euskal Herriko ingurumenaren babesari buruzkoa. III. titulua. Ingurumenari eragiten dioten jardueren antolamendua. IV. kapitulua. Hondakinak
- Gipuzkoako Hiri Hondakinen Kudeaketako Plan Integrala (2002-2016)

LEHENTASUNEZKO JARDUKETA EREMUAK

Udal eskumena

- Hiri hondakinak gutxitzeko neurrien ezarpena sustatzea.
- Herritarrek eta turistek sortutako etxeetako hondakinen gaikako bilketa areagotzea, bereziki hondakin organikoena.
- Eraikuntza eta eraipen hondakinak tratatzeko instalazioa eraikitzea.

- Hondartzan sortutako hondakinak hobeto bereiztea lortzea.
- Hondakinen bilketa hobetzeko aukera aztertzea, gaikako bilketa eredu alternatiboak erabiliz.

Udalaz gaindiko eskumena


- Ekoizle txikiek sortutako industria hondakinen murrizketa eta birziklapena indartzea.
- Hondakin arriskutsuen balorizazioaren alde egitea.



ENERGIA

Lotura duten Aalborgeko konpromisoak:

- 3. NATUR ONDASUN KOMUNAK
- 4. KONTSUMO ETA BIZIMODU ARDURATSUAK
- 10. TOKIAN TOKIKOTIK MUNDU GLOBALERA


AZPIEREMUA	DIAGNOSTIKOA	BALORAZIOA
Energia egitura	<ul style="list-style-type: none">• Zarauzko iturriak banatutako azken energia kontsumoaren egitura hauek osatzen dute: energia elektrikoa (Iberdrolak kudeatzen du), gas naturala (Naturgas Energía SAK kudeatzen du), garraio sektoreko erregai likidoak, eta banakako instalazioetan erabiltzen diren C gasolioa eta petrolioaren gas likidotuak (PGL). Egitura hori negatiboki baloratzen da, islatzen duen energia iturri berriztaezinekiko menpekotasun handia dela eta. (!)	

ENERGIA-KONTSUMOA, AZKEN ENERGIA-ITURRIAREN ARABERA (2007)

Iturria	Porzentaia
Erregai likidoak	60%
Elektrizitatea	26%
Gas Naturala	11%
GLP	3%


Iturria: Guk egindakoa, Iberdrolaren, Naturgas Energiaren eta DGTren datuak kontuan hartuta.

- Udalerrian azken kontsumo gisa gehien erabiltzen diren energia iturriak petrolio eta gas naturala dira. Egitura energetiko hori EAEko beste udalerririk batzuen oso antzekoa da eta berotegi efektuko gas isurien ekarpen handia egiten dela adierazten du. Gainera, energia hornikuntzarako kanpoko menpekotasun handia eskatzen du. (!)




Iturria: Guk egindakoa

- Energia kontsumoa handiagoa da garraioen eta mugikortasunaren sektorean, batez ere, industria sektorearen pisu txikiagatik. Ondorioz, erregai likidoen kontsumoa altua da, hein handi batean, automobil industriarekin lotura duelako.




Iturria: Guk egindakoa



Iturria: Guk egindakoa

- Azken urteetan, etxeko kontsumoak (elektrizitatea eta gas naturala) egonkortzeko joera hartu du eta Udalsarea 21eko udalerrien batezbestekoa baino pixka bat altuagoa da (2006an 0,20 ptb/bizt, EAEko II. Iraunkortasun Txostena).



Iturria: Iberdrola eta Naturgas Energía SA

- 2007an, elektrizitate eta gas kontsumoa 10.465 PTBkoa izan zen guztira. Kontsumo horren % 75 inguru energia elektrikoari dagokio eta, gainontzekoa, gas naturalari.

Energia berriztagarrien ekoizpena

- Zarauzko energia berriztagarrien batez besteko tokiko ekoizpena 4,33 PBTkoa izan zen 2007an, hau da, 0,000192 PBT/bizt. Kopuru hori urte berean udalerrian kontsumitutako energia elektrikoaren % 0,058 sortzearen baliokidea da.(!)
- Gaur egun, Zarautzen sortzen diren energia berriztagarriak eguzki energia fotovoltaikoari probetxua ateratzetik lortzen dira



gehienbat.

Potentzia instalatua (kW/10.000 bizt)	2005	2006	2007
Eguzki energia fotovoltaikoa	10,26	13,80	22,18
Eolikoa	0,18	0,18	0,18
Hidraulikoa	0	0	0
GUZTIRA	10,44	13,98	22,36

Iturria: Udalmap

- Udalerrri mailan, eguzki plakak instalatzeagatiko hobariak daude.



Toki administrazioko energia kontsumoa eta kudeaketa

- Udal instalazioen iturrika banatutako azken energia kontsumoaren egitura hauek osatzen dute: energia elektrikoa, gas naturala, erregai likidoak eta C gasolioa. Gas naturala pixkanaka erabiltzen hasi da udal eraikinak klimatizatzeko.
- Gaur egun, ez ditugu ezagutzen udal bulego eta ibilgailuen, eta argi publikoen, energia kontsumoak. Alderdi hori negatiboa dela uste da. (!)



- Udal Kiroldegian energia ikuskaritza egin da, eta horren emaitzak Energia Aurrezteko Plana diseinatzeko oinarritzat erabili dira.
- Udal ekipamenduei dagokienez, energia aurrezteko eta eraginkorra izateko hainbat ekimen egin dira. Eguzki plakak jarri dira eguneko zentroan eta Orokieta Herri Eskolan. Potentzia kontratatua eta ordutegi diskriminazioa adostu da, eta kondentsadore bateriak ipini dira udal instalazioetan kontsumoa murriztu eta energia eraginkortasuna hobetzeko. Era berean, pixkanaka gas naturalaren erabilera udal eraikin guztietan sartzen ari da.
- Argi publikoei dagokienez, positibotzat hartzen da udalerriko fluxu erregulatzaile eta kontsumo murriztuko argien instalazioaren garapen handia.
- Parte-hartze bilkuran, udal eraikin guztietan kontsumo txikiko bonbillak erabiltzearen eta udalerriko argi intentsitatearen eraginkortasunaren azterketa egitearen garrantzia azpimarratu zen, energia aurrezteko neurriak zehaztu ahal izateko.



Sentsibilizazioa	<ul style="list-style-type: none"> • 2008-2009 ikasturtean, eskoletako lanerako gaia energia da. Era berean, 2009an, urteroko sentsibilizazio kanpaina gai horri buruzkoa izango da. • 2008an, Udalak energia aurreztera bultzatzeko eranskin batzuk egin zituen. Eranskin horiek udal bulego eta ikastetxe guztietan jarri dira. Era berean, parte-hartze bilkuran kontsumo txikiko bonbillak banatzea proposatu zen, ohiko bonbillen ordezkapena sustatzeko asmoz. • 2008ko Ekobarometroaren arabera, energia berriztagarrien sustapena lehenengo postuan dago udal ekintzaren lehentasunen zerrendan. Baliabide naturalak aurreztu eta modu eraginkorren erabiltzearen alde egitea laugarren tokian dago. • Era berean, inkesta egin zuten biztanleen % 77k normalean etxeko energia kontsumoa murrizten ahalegintzen direla baieztatu zuten. Gainera, % 96 bere ohiturak aldatzeko prest egongo lirateke, etxean energia aurrezte aldera. 	
Eraikuntza	<ul style="list-style-type: none"> • 47/2007 Errege Dekretua betetzeko asmoz, eraikuntzentzat zehaztutako eskakizunak aplikatzeko mekanismo egokiak zehazten ari dira. (!) • Ez dakigu udalerrian badagoen energia eraginkortasunaren ziurtagiria duen eraikinik. 	

AURREKO TOKIKO EKINTZA PLANA

Lotura duten ildo eta programak (*Lotura duten ildo eta programen kode eta tituluaren erreferentziak*)

- 7. ENERGIA KONTSUMOA OPTIMIZATU ETA MURRIZTEA, ETA ISURI ATMOSFERIKOAK GUTXITZEA.
- 7.1 Etxeko eta zerbitzuen sektoreko energia kontsumoa optimizatu eta murriztea.
- 7.2 Udal administrazioko energia kudeaketa optimizatu eta murriztea.
- 7.3 Energia kontsumoa optimizatzea, udalerriko sektore guztietan energia berriztagarrien erabilera areagotuz.

Garatzeke dauden eta garrantzitsuak diren indarreko ekintzak

- 7.2.3 Kontsumoak kontrolatzeko kudeaketa informatiko sistema bat ezartzea, udal instalazioetako kontsumoak zehazki ezagutzea eta horien bilakaeraren segimendu bizkorra egitea ahalbidetuko duena.

LOTURA DUTEN PLAN ETA ARAUDIAK

Udalerrian

- Ez dago araudi zehatzik udalerrri mailan

EAEEn

- 47/2007 ERREGE DEKRETUA, urtarrilaren 19koa, eraikin berriek energia eraginkortasunaren ziurtagiria lortzeko oinarritzko prozedura onartzen duena.
- Euskadiko Energia Estrategia 2010. Energia garapen iraunkorrerantz (EEE, 2005)

LEHENTASUNEZKO JARDUKETA EREMUAK

Udal eskumena

- Iturri berriztagarrietako energiaren ekoizpena sustatzea.
- Kontrol sistema bat ezartzea eta fluxu erregulatzaillearen segimendua egitea (kontsumoak, matxurak, etab. erregistratzen dituen programa informatiko baten bidez).
- Udal eraikinetako kontadoreen irakurketak sistematizatzea, udal kontsumoak kontrolatzeko.
- Berrikuntza eta udal ekipamendu berrietan iraunkortasun irizpideak aplikatzea.
- Etxebizitzaren ziurtagiri energetikoa lortzeko eskaerak aplikatzea.
- Sektore ezberdinak energia aurreztera eta arrazoiz erabiltzera bultzatzea, sentsibilizazioaren eta horretarako araudi espezifikoen bitartez.

Udalaz gaindiko eskumena

- Iturri berriztagarrietako energiaren ekoizpena sustatzea.
- Energia kontsumoan aurreztea lortzea, laguntza ildo espezifikoen bidez.



INGURUMENAREN KALITATEA, ATMOSFERA, AKUSTIKA ETA LURZORUAK

Lotura duten Aalborgeko

3. NATUR ONDASUN KOMUNAK

konpromisoak:

AZPIEREMUA	DIAGNOSTIKOA	BALORAZIOA
Atmosferarako emisioak	<ul style="list-style-type: none">• Daturik ez badugu ere, zentzuduna da pentsatzea Zarauzko udalerriarengan eragin gehien izan dezaketen emisio kutsatzaileen iturri nagusia ibilgailuen trafikoa dela. Hori pentsatzeko arrazoiak hauek dira: udalerriko bide azpiegituren garrantzia eta intentsitatea, horiek bizilekueetatik hurbil egotea, eta udalerriko industria sektoreak ingurumean duen eragin txikia.• Udalerria zeharkatzen duten errepide nagusiak N-634 eta A-8 dira. Errepide horietan dago batez besteko zirkulazio intentsitate (IMD) handiena eta horietatik igarotzen dira ibilgailu pisutsuenak eta azkarren igarotzen direnak. Udalerriko turistikoak denez, IMDa igotzen joaten da turistak etortzen diren heinean, batez ere N-634an. Gainera, aipatu beharra dago bi errepide horiek, eta baita GI-2633 errepidea ere, bizitegi guneeetatik hurbil igarotzen direla. Epe ertainean, Zarauzko saihezbidea egingo da eta, ondorioz, hirigunea gurutzatzen duten ibilgailuen kopurua jaitsi egingo da.• Industria guneei dagokienez, Zarautzek industria jarduera biltzen duten 5 gune dituela aipatu behar da. Sektore nagusienak metalen eraldaketa, egur arotzeria eta pintura aplikazioa dira. Atmosferara isurpen kutsatzaile askorik egiten ez duten tamaina txikiko enpresak dira. Udalerriko enpresen tipologia ikusita, pentsatzekoa da disolbatzaileen erabilera altua izan daitekeela, beraz, kontuan izan behar da enpresa horiek konposatu organiko hegazkorrak (COV) isur ditzaketela.• Epe motzean, Salberdin industrialdea hustu egingo da eta gaur egun gune horretan dauden enpresek Errotaberrin egingo dute beren jarduera. Horrek aipatutako industria guneeetako batzuk bizitegi guneeetatik urruntzea ahalbidetuko du.• Ez dago atmosfera nabarmen kutsatzen duen A taldeko jarduerarik (talde horretan sartzen dira atmosfera gehien kutsatzen duten jarduerak), eta ez dugu atmosfera nabarmen kutsatzen duten B eta C taldeetako jardueraren berririk. Informazio falta badago ere, ez dago industria sektoreak Zarauzko airearen kalitatean eragin nabarmena duela pentsaraz dezakeen aztarnarik.• Biztegi eta zerbitzu sektoreak erregai fosilen kontsumoari lotutako emisioak bakarrik egiten ditu (berogailua, etxeetako ur korrontea eta sukaldea martxan jartzeko), eta ez luke zertan emisio iturri larria	

izan.

- Obrak, bai azpiegitura handienak bai bide publikoetako lan txikiak, atmosferarako emisioen beste iturri bat dira, bereziki material partikulatuena. Bide publikoetako obra txikietan ez da ezartzen atmosferara isurtzen diren partikula kopurua gutxitzeko neurririk, baina emisio horiek ez dute asko irauten eta ez dute kalte esanguratsurik eragiten atmosferako airearen kalitatean. Azpiegitura handiak egitean, kaltea garrantzitsuagoa izan daiteke, hala ere, lan mota horietan ingurumen inpaktuaren ebaluazioarekin zerikusia duten neurri zuzentzaileak ezartzen dira.

Airearen kalitatea

- Zarautzen ez dago airearen kalitatea ezagutzea ahalbidetzen diguten tresnarik. Dena den, udalerrirako estrapola daitezkeen hurbileko eta antzeko inguruneetan kokatutako kontrol geletako datuek airearen kalitate ona edo onargarria duten egunen portzentajea oso altua dela adierazten dute. Ondorioz, pentsa dezakegu udalerrian airearen kutsadura ez dela arazo garrantzitsua.



Airearen kalitate ona edo onargarria duten egunak (%)	2005	2006	2007	2008
Zarautz (Kostaldearen datuak)	98,10	98,90	98,4	98,91
Gipuzkoa	90,90	88,80	89,70	95,15
EAE	93,84	91,54	93,29	96,77

Iturria: Guk egindakoa, Eustaten datuetan oinarrituta

Kalitate akustikoa

- Zarautzek udalerriri eragiten dioten kutsadura akustikoaren gune nagusiei buruzko informazioa du, 2006an "Zarauzko soinu inpaktuaren ebaluazio plana" izeneko azterketa egin baitzen. Azterketa hori udalerriko soinuaren kudeaketa plana martxan jartzeko abiapuntu gisa erabil daiteke, 37/2003 Legean, 1513/2005 EDan eta Eusko Jaurlaritzaren zarata mapak egiteko gida metodologikoan oinarrituta.
- Soinuari buruz egindako azterketak ez ditu Udaleko talde teknikoaren itxaropenak bete eta azterketa zehatzagoa egitea beharrezkoa litzatekeela proposatzen dute.
- Dena den, azterketaren emaitzek zarataren gune nagusia errepideetako ibilgailuen trafikoa dela adierazten dute. Horren atzetik daude trenbidea, kaleetako ibilgailuen trafikoa eta industria.
- Errepideetako ibilgailuen trafikoagatiko zarata gune nagusiak N-364, A-8 eta GI-2633 bideak dira, ez sortzen dituzten soinu mailengatik bakarrik, baita akustikari dagokionez sentikorrek diren guneetatik hurbil daudelako ere (bizitegi eraikinak, eraikin sentikorrek eta gune naturalak). Gainera, udalerrian planifikatuta dauden bizitegi eraikuntzen zati handi batetik hurbil daude.
- Udalaren ekimenez egin den kutsadura akustikoari buruzko kexa eta iradokizunen bilketaren ondorioz, zarata gune nagusiak hauek direla



ikusi da:

- Tabernak, terrazak eta ostalaritzako beste lokal batzuk.
 - Autobidea.
 - Gaueko merkantzia trenak.
 - Motorrak eta autobusak.
 - Kontzertuak eta jaialdiak.
 - Zabor bilketa.
 - Banaketa kamioien zamalanak.
- 2008ko Ekobarometroan zarata aipatzen da udalerrian eragozpen gehien eragiten dituen ingurumen alderdi gisa (% 36) eta horrekin zerikusia duen zerbati egitea, berriz, lehentasunezko bigarren jarduera gisa (% 34). Datu horiek 2004ko Ekobarometroan bildutakoan oso antzekoak dira.
 - Lan horren esparruan egindako herritarren parte-hartze foroan, motorren zarata arazo bat dela adierazi da.

Kalitate akustikoaren kudeaketa

- Pertsonak zarata eta bibrazioetatik babesteko **udal ordenantzaren** helburua hau da: pertsonak energia akustikoa askatzeak sortzen dituen eragozpenetatik babesteko udal jarduera arautzea.
- Ordenantza hori 2000. urtean onartu zen. 2007an, 7. artikulua aldatu zen, **zamalaren ordutegia eta egunak mugatzeko**.
- Zaratagatiko kexa eta/edo salaketak egiten diren kasuetan, **udaltzainek soinu mailaren ikuskapena eta neurketa egiten dute**.
- Udaltzaingoak udako hilabeteetan motorren eta ziklomotorren soinu eta segurtasun kontrolak egiten ditu. Herritarren parte-hartze foroan **positiboki baloratu dira motorrek egiten duten soinua kontrolatzeko** egindako ahaleginak.
- Zarata guneei dagokienez, fase ezberdinetan gauzatuko diren hainbat garapen plan daude. Horiek, burutzen direnean, udalerriko egoera akustikoa hobetzen lagunduko dute:
- N-634 saihesbidea egitea (epe motzean). (Gipuzkoako Foru Aldundia)
- trenbidea lurperatzea (epe luzean). (Eusko Jaurlaritza)
- zebra bideak igotzea, zirkulazioa lasaitu eta soinu maila jaisteko. (Udala).
- autobidean pantailak instalatzea. (Gipuzkoako Foru Aldundia)



Lurzoruen kutsadura

- Gaur egun lan egiteko abiapuntutzat eraibiltzen den kutsatuta dauden lurzoruen inbentarioa 1998koa da. Eusko Jaurlaritza hori eguneratzen ari da, baina oraindik ez dago behin betiko txostenik.
- Taula honetan inbentarioko datu aipagarriak azaltzen dira (1998ko inbentarioko datuak sartu dira, Salberdin eremuan egindako ikerketatik ateratako informazioarekin eguneratuta).



	Zarauz	Gipuzkoa	EAE
Kutsatutako leku kopurua (unit.)	41 (33+ inbentariatu gabeko 8)	1.575	3.795
Azalera kutsatua (Ha)	43,90(42,40+ inbentariatu gabeko 1,50) (udalerriko azalera osoaren % 2,96)	3.348,75 (%1,75)	7.898 (azalera osoaren % 1,11 eta azalera erabilgarriaren % 16,5)

Iturria: Kutsatutako lurzoruen inbentarioa (IHOBE, 1994)

- Zarauzko kutsatutako azaleraren proportzioa Gipuzkoakoa eta EAEkoa baino handiagoa da.
- Inbentariatutako lekuak eremu hauetan daude kokatuta:





Iturria: Geoeuskadi. Kutsatutako lurzoruen inbentarioa

KUTSATUTAKO LURZORUEN INBENTARIOAN SARTUTAKO LEKU KOPURUA ETA HORIEN AZALERA, LEKU MOTAREN ARABERA

	Leku kop. (unit.)	Jarduera kop. (unit.)
Aktiboak	24	25
Jarduerarik gabeak	2	2
Vertederos	3	3
Aldatutakoak	2	2
GUZTIRA	31	32

Iturria: Kutsatutako lurzoruen inbentarioa (IHOBE, 1994)

	<ul style="list-style-type: none"> • Kutsatutako azaleraren zati handiena jarduera aktiboei eta zabortegei (horiek ere jarduera aktiboa dute) dagokie. 	
Lurzoruen kalitatearen kudeaketa	<ul style="list-style-type: none"> • Gaur egun, Salberdin eremuko lurzoruen kalitateari buruzko ikerketa bat martxan dago. Ikerketa horren lehen fasea egin da eta bigarren fasea laster hasiko da. Gaur egun industriarako erabiltzen den eremu hori berriro kalifikatu da bizitegi erabilera emateko, baina, urbanizazio prozesua ez da onartu oraindik. • Esperientzia hori Udaleko teknikariek lurzoruen kalitatearen adierazpena egiteko prozeduran prestakuntza eta esperientzia lortzeko baliagarria izan da. Gainera, Udaleko teknikari taldearen hirigintza prozeduretan “lurzoruen kalitatea” irizpidea barneratzea ahalbidetu du. • Plan orokorrean kutsatutako lekuak sartu dira eta lurzoruen kutsadurari dagokion indarreko araudia betetzeko beharra aipatu da. • Kutsatutako lurzoruarekin zerikusia duten hainbat jarduera egin dira. Baina, ez dira lurzoruen babesera zuzendutako estrategiak landu (!). • Horri dagokionez, jarduera lizentzia ematearekin erlazionatutako ikuskapenean, Eusko Jaurlaritzak ezarritako neurri zuzentzaileak betetzen direla eta horiek lurzoruen babesera zuzenduta daudela egiaztatzen da. • Ez da ezarri akuifero kuaternarioa jasan dezakeen kutsadura posibletik babesteko neurririk (!). Lurzoruko jarduera kutsatzaileak lur azpiko urak kutsatzera irits daitezke. 	
Trebakuntza, sentsibilizazioa eta komunikazioa	<ul style="list-style-type: none"> • Zarautzek airearen kalitateari buruzko Ekitaldean parte hartzen du. • 2007an zarataren aurkako sentsibilizazio kanpaina egin zen. Kanpaina horretan hainbat jarduera egin ziren: • Erakusketak Foruen Enparantzan eta taulak bide publikoetan. Taula horietan, Udalari eragiten dioten zarata iturri nagusiei eta zaratari buruzko udal ordenantzari buruzko informazioa eman zen. • Kexa eta iradokizun bilketa. • Zaratak osasunean eta bizikidetzan duen eraginari buruzko lan tailerrak Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleekin. Tailer horien grabazioak ZTBn eman dituzte. • Kutsatutako lurzoruei dagokienez, Udaleko ingurumen teknikariei ez zaie prestakuntza espezifikorik eman. Hala ere, Salberdingo esperientzia baliagarria izan da lanean parte hartzen duten Udaleko gainontzeko langileek gaiari buruzko ezagutzak eskuratzeko. • Talde ezberdinei zuzendutako sentsibilizazio jarduera espezifikoak egiten dira, beharren arabera. Adibidez, Salberdingo lanak egiten ari ziren bitartean, industrialdeko jabeen zuzendutako kutsatutako lurzoruei buruzko prestakuntza jardunaldi bat egin zen. 	

AURREKO TOKIKO EKINTZA PLANA

Lotura duten ildo eta programak (*Lotura duten ildo eta programen kode eta tituluaren erreferentziak*)

- 7. ENERGIA KONTSUMOA OPTIMIZATU ETA GUTXITZEA, ETA ATMOSFERARAKO EMISIOAK MURRIZTEA.
- 7.1 Etxeetako eta zerbitzuetako sektoreko energia kontsumoa optimizatu eta gutxitzea.
- 3. IBILGAILUEN TRAFIKOA ORDENATZEA ETA UDALERRIAN IBILGAILU PRIBATUAK GUTXITZEA.
- 3.4 Udalerriko kalitate akustikoa hobetzea.

Garatzeke dauden eta garrantzitsuak diren indarreko ekintzak

- 7.4.1 Eusko Jaurlaritzari inmisio sareko kabina bat instalatzeko eskatzea, ondoren, horren jarraipena eta plangintza egiteko.
- 7.4.3 Atmosferarako emisioen (industrialak, etxeak eta garraioak) kontrola handitzea, indarrean dagoen legediaren arabera.

LOTURA DUTEN PLAN ETA ARAUDIAK

Udalerrian

- Pertsonak zarata eta bibrazio emisioetik babesteko udal ordenantza

EAEn

- Otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra, Euskal Herriko ingurumenaren babesari buruzkoa.
- Irailaren 30eko 165/2008 dekretua, lurra kutsatzen duten jarduera edo instalazioak jasan dituzten lurren inbentarioari buruzkoa.
- Urriaren 10eko 199/2006 dekretua, lurraren kalitatea ikertu eta berreskuratzen duten erakundeak akreditazio sistema ezarri eta erakunde horiek egin beharreko lurraren kalitateari buruzko ikerketen edukia eta irismena zehazten duena.
- Otsailaren 4ko 1/2005 Legea, lurraren kutsaduraren prebentzio eta zuzenketari buruzkoa.
- Euskal Herriko lurzoru kutsatuen plana 2007-2012.

Estatuan

- Airearen kalitatea
- 34/2007 Legea, azaroaren 15ekoa, airearen kalitateari eta atmosfera babesteari buruzkoa.
- 1073/2002 ED, airearen kalitatearen ebaluazio eta kudeaketari buruzkoa, hauekin lotura duena: sufre dioxidoa, nitrogeno dioxidoa, nitrogeno oxidoak, partikulak, beruna, bentzenoa eta karbono monoxidoak.
- Lurzoruen kutsadura
- 10/1998 Legea, apirilaren 21ekoa, hondakinei buruzkoa.
- 9/2005 Errege Dekretua, urtarrilaren 14koa, lurzoru kutsatzen duten jardueren zerrenda, eta lurzoru kutsatuak aitortzeko irizpide eta estandarrak onartzen dituena.
- Zarata

- 1367/2007 ED, urriaren 19koa, zaratari buruzko 37/2003 Legea, azaroaren 17koa, garatzen duena, zonakatze akustikoari, kalitate helburuei eta emisio akustikoei dagokienez.
- 1513/2005 Errege Dekretua, abenduaren 16koa, zaratari buruzko 37/2003 Legea, azaroaren 17koa, garatzen duena, ingurumen soinuaren ebaluazio eta kudeaketari dagokionez.
- 37/2003 Legea, azaroaren 17koa, zaratari buruzkoa.

LEHENTASUNEZKO JARDUKETA EREMUAK

Udal eskumena

- Airearen kutsadura iturriak sakonago ezagutzea.
- Zarataren mapa estrategikoa egitea
- Zaratari dagokion araudia aplikatzeko prestakuntza eskuratzea.
- Lurzoruaren kudeaketan parte hartzen duten eragileek lurzoruaren kutsadurari buruz duten ezagutza areagotzea. Eragile ezberdinen ekintzak sustatzea, sentsibilizazioaren, informazioaren eta prestakuntzaren bitartez.
- Lurzoru kutsatuei dagokien strategiari ekitea.
- Lurzoruaren kutsadura prebenitzeko ekintzak ezartzea (inbentariatutako lekuetatik, gehienak jardunean daude).
- Akuifero kuaternarioaren ezaugarriak ezagutzea.
- Ingurumen eta hirigintza jarduerak koordinatzea.

Udalaz gaindiko eskumena

- Ez da udalaz gaindiko eskumeneko jarduketa eremurik identifikatu.







ARRISKUAREN KUDEAKETA ETA JARDUERA EKONOMIKOAK

Lotura duten Aalborgeko

konpromisoak:


3. NATUR ONDASUN KOMUNAK

AZPIEREMUA	DIAGNOSTIKOA	BALORAZIOA
Arrisku natural eta teknologikoen eragina	<ul style="list-style-type: none">Larrialdietarako Udal Planaren arabera, hauek dira arrisku natural nagusiak: lur mugimenduak (oinarrian metaketa kolubialak dituzten malda handiko eremuetan), uholdeak (malda txikiko ur lasterren eta material alubialak dauden tokien ondoan dauden eremuetan) eta baso suteak (baso sailak dauden eremuetan).Horiez gain, Larrialdietarako Udal Planean agertzen ez diren beste arrisku batzuk aipatu behar dira, adibidez, ekaitz edo olatuengatiko arriskua. Arrisku hori itsasertz kantauriarreko arriskuei buruzko ikerketa batean aztertzen ari dira.Larrialdietarako Udal Planak ez du zehazten arrisku horietako zein diren eragin gehien dutenak. Hala ere, garrantzitsuena hegaletako lur jausien arriskua dela esan daiteke, gehien gertatzen dena delako.Larrialdietarako Udal Planak industria arrisku esanguratsuenak IPPCren eragina duten industria jarduerak (uztailaren 1eko 16/2002 Legea, kutsaduraren prebentzio eta kontrolari buruzkoa) eta substantzia arriskutsuak biltegitratzeagatik udalerrri mailako larrialdi egoera bat sor dezaketen jarduerak direla adierazten du:<ul style="list-style-type: none">Urtetako zabortegiaZarauzko gasolina zerbitzuguneaIñurritzako gasolina zerbitzuguneaHauek dira Larrialdietarako Udal Planak identifikatzen dituen beste arrisku mota batzuk:<ul style="list-style-type: none">Merkantzia arriskutsuak N-634 eta GI-2633 errepideetatik garraiatzarekin zerikusia duten arriskuak.Garraio publikoak errepidean duen arriskua.Hiriko sute arriskua.Jende asko biltzeari lotutako arriskuak.Gizartearen aurkako ekintzak.Ur, gas eta elektrizitate hornikuntza falta.	

<p>Arrisku natural eta teknologikoren kudeaketa</p>	<ul style="list-style-type: none"> • 2009an Larrialdietarako Udal Plan berria onartu da. Plan hori ezarri eta zabaltzea beharrezko zeregina da udalerriko arriskuak modu egokian kudeatzeko (!). • Bestalde, SGAREN (biltegien kudeaketa sistema) esparruan egindako beste larrialdietarako plan bat dago, EMAS eta ISO 14001 araudien arabera egindakoa. Plan hori Zarauzko hondartza zerbitzuan ezarri da. Plan horren arabera, arrisku esanguratsuenak galernak eta bainatzeko uren kalitate txarra dira. 	
<p>Jarduera ekonomikoen ingurumenean eragiteko arriskua¹</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko 16/2002 Legearen eragina dagokion arrisku bakarra Urtetako zabortegia da. Une honetan, ingurumen baimen integratua izapidetze prozesuan dago. • IPPC jarduera ez bada ere, hondakin uren araztegia ingurumen arrisku handiko jarduera da. • Zarautzek 5 industrialde ditu eta horietan biltzen da udalerriko industria jarduera. Sektore garrantzitsuenak metalen eraldaketa, egur arotzeria eta pinturen aplikazioa dira. Kasu zehatz batzuetan izan ezik, ahalmen kutsakor baxuko enpresak dira (jarduera motagatik eta enpresen taimaina txikiagatik). • Errotaberri industrialdea zabaltzea aurreikusi da, bertara igaroko baitira Salberdin eremuan dauden enpresak. • Gaur egun, Zarautzen ingurumen arrisku handiena duten jarduerak Urtetako zabortegia, sortzen dituen lixibiatuengatik, eta araztegia, bere efluateagatik, dira. 	
<p>Jarduera ekonomikoen kudeaketa</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ez dago industria eremuetako sailkatutako jardueren errolda zehazturik. Jarduera lizentzia duten enpresa kopurua ezezaguna da. • Jarduera berriei modu sistematikoan eskatzen zaie jarduera lizentzia. • Bizitoki lurzoruan kokatutako jardueren errolda badago eta behar adina kontrolatzen da. 2005ean, jarduera mota horien inbentario bat egin zen eta noizean behin eguneratu egiten da. • Udalerriko industria enpresen artean, gaur egun, 4k dute Ingurumen Kudeaketa Sistema bat, ISO 14001:2004 arauaren arabera. Lortutako ziurtagiri kopuruaren denboraren arabera • bilakaera taula honetan ikus daiteke (ISO 14001 eta hondartzako EMAS hartzen dira kontuan): 	

¹ Ingurumeneko eraginaren balorazioa ingurumen kalitateari, hondakinei eta urari dagozkien eremuetan egiten da.

2000 ETA 2008 ARTEAN LORTUTAKO ZIURTAGIRIEN BILAKAERA



Iturria: Guk egindakoa, IHOBEn datuak (2008) erabilia

- Ingurumen ziurtagiria (EMAS, ISO 14001 eta/edo Ekoscan) duten jardueren kopuru alderatuak taula honetan adierazita daude.

CAPV	1.929 unit.
Gipuzkoa	383 unit.
Zarautz	6 unit.

Iturria: IHOBE (2008)

- Udalak ez du sare ekonomikoa ingurumenarekin bat etortzeko ekintzarik sustatzen (!).

AURREKO TOKIKO EKINTZA PLANA

Lotura duten ildo eta programak

- 8. JARDUERAK KUDEATZEKO SISTEMA INDARTZEA ETA INGURUMEN ARRISKUA PREBENITZEKO MEKANISMOAK MARTXAN JARTZEA.
- 8.1 Udalerriko jardueren kontrola hobetzea.
- 8.2 Larrialdietarako Udal Plana eguneratzea eta enpresek larrialdietarako planak betetzen dituztela egiaztatzea.

Garatzeke dauden eta garrantzitsuak diren indarreko ekintzak

- 8.1.1 Jardueren errolda egitea, ingurumenean eragin gehien izan dezaketenak eta istripu larri buruzko araudiaren menpe daudenak identifikatzea, eta noizean behin errolda eguneratzea.
- 8.1.2 Urtero, arrisku handiena duten enpresei beren jarduerekin zerikusia duen ingurumen informazioa eskatzea: hondakin urak, hondakinen ekoizpena eta tratamendua, kontsumoak, etab. Eta baita ezarri dituzten arriskuen prebentzio sistemei buruzko informazioa ere.
- 8.2.2 Aldizka larrialdi simulazioa egitea.

LOTURA DUTEN PLAN ETA ARAUDIAK

Udalerrian

- Larrialdietarako Udal Plana
- Hondartzetako Larrialdietarako Plana (larrialdietarako prozedurak, hondartzetako SGAREN esparruan)

EAEan

- 1/1996 Legea, apirilaren 3koa, larrialdien kudeaketari buruzkoa.
- 3/1998 Lege Orokorra, otsailaren 27koa, Euskal Herriko ingurumen babesari buruzkoa.
- 153/1997 dekretua, ekainaren 24koa, Euskadiko Babes Zibilaren Plana (LABI) onartzen duena.
- Euskadiko Arrisku Sismikoari Aurre Egiteko Larrialdietarako Plana (2007ko abenduaren 19eko EHAA).
- EAEko Uholde Arriskuari Aurre Egiteko Larrialdietarako Plan Berezia (2000ko otsailaren 19ko EHAA).
- EAEko Baso Suteetarako Larrialdietarako Plana (1998ko martxoaren 23ko EHAA).

LEHENTASUNEZKO JARDUKETA EREMUAK

Udal eskumena

- Larrialdietarako Udal Plan berriak zehaztutako neurriak ezartzea.
- Herritarrei Larrialdietarako Udal Planari buruzko informazioa ematea eta larrialdi simulazioa egitea.
- Jardueri buruzko ezagutza zabaltzea eta horien kontrola bizkortzea, inpaktu handienekoei lehentasuna emanaz.
- Sailkatutako jardueren errolda eta jardueren egoerari buruzko diagnosia egitea (enpresa irekitzeko lizentziaren izapidetzearekin lotuta).
- Udalerriko enpresak ingurumenarekin bat etortzera bultzatzea.
- Ingurumen arrisku handiena duten jarduerak ingurumenean duten inpaktua kontrolatzea.

Udalaz gaindiko eskumena

- Ez da udalaz gaindiko eskumeneko jarduketa eremurik identifikatu.



EROSKETA PUBLIKOA ETA UDAL ADMINISTRAZIOAREN INGURUMEN KUDEAKETA


Lotura duten Aalborgeko


konpromisoak:

2. IRAUNKORTASUNAREN ALDEKO UDAL KUDEAKETA

AZPIEREMUA	DIAGNOSTIKOA	BALORAZIOA																		
Erosketa eta kontratazio publiko berdea	<ul style="list-style-type: none"> Zarautzen erosketa eta kontratazio publiko berdearen ebaluazioa egin da, IHOBEEK 2008an argitaratutako Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Eskuliburu Praktikoan adierazitako irizpideen arabera (jarraian adierazita daude). Iraunkortasunarekiko konpromisoa eta kontratazio prozedura batzuen ezarpena identifika badaitezke ere, erosketa kontratazio publiko berdearen ezarpena hasi besterik ez da egin. (!) 																			
	<table border="1"> <thead> <tr> <th>IRIZPIDEA</th> <th>EGOERA</th> <th>EZARPEN MAILA (0-3)</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>Iraunkortasunarekiko konpromisoa</td> <td>Iraunkortasunarekin zerikusia duten gaiekiko oinarritzko konpromisoa hartu da. Iraunkortasuna ingurumen teknikariaren erantzukizuna da eta antolamenduaren jarduera batzuetan barneratuta dago.</td> <td>1. maila: oinarritzkoa- 2. maila: aurreratua</td> </tr> <tr> <td>Erosketa eta kontratazioaren antolamendua</td> <td>Udalak estandarizatutako kontratazio prozedurak, kontratazio langile espezializatuak eta, kasu zehatzetan, ingurumen arloko gaietan adituak diren teknikarien laguntza du. Erosketa eta kontratazio publiko berdearen ezarpena puntuala da.</td> <td>1. maila: oinarritzkoa-2. maila: aurreratua</td> </tr> <tr> <td>Erosketa eta kontratazio publiko berdearen politika</td> <td>Baliabideen kudeaketarako konpromiso politikoa hartu da.</td> <td>1. maila: oinarritzkoa</td> </tr> <tr> <td>Ekintza plana/Estrategia</td> <td>Ez dago erosketa eta kontratazio publiko berderako ekintza plan zehatzik, baina planak hondartza zerbitzuarekin harremana duten kontratuetan sartzen ari dira (EMAS ziurtagiria dauka).</td> <td>1. maila: oinarritzkoa</td> </tr> <tr> <td>Erosketa eta kontratazio eta/edo erosketetako arduradunak diren langileen prestakuntza.</td> <td>Erosketa eta kontratazio publiko berdearen prozesuan funtsezkoak diren pertsonak ez dute kontratazioan ingurumen irizpideak erabiltzeari buruzko prestakuntzarik jaso.</td> <td>0. maila</td> </tr> </tbody> </table>	IRIZPIDEA	EGOERA	EZARPEN MAILA (0-3)	Iraunkortasunarekiko konpromisoa	Iraunkortasunarekin zerikusia duten gaiekiko oinarritzko konpromisoa hartu da. Iraunkortasuna ingurumen teknikariaren erantzukizuna da eta antolamenduaren jarduera batzuetan barneratuta dago.	1. maila: oinarritzkoa- 2. maila: aurreratua	Erosketa eta kontratazioaren antolamendua	Udalak estandarizatutako kontratazio prozedurak, kontratazio langile espezializatuak eta, kasu zehatzetan, ingurumen arloko gaietan adituak diren teknikarien laguntza du. Erosketa eta kontratazio publiko berdearen ezarpena puntuala da.	1. maila: oinarritzkoa-2. maila: aurreratua	Erosketa eta kontratazio publiko berdearen politika	Baliabideen kudeaketarako konpromiso politikoa hartu da.	1. maila: oinarritzkoa	Ekintza plana/Estrategia	Ez dago erosketa eta kontratazio publiko berderako ekintza plan zehatzik, baina planak hondartza zerbitzuarekin harremana duten kontratuetan sartzen ari dira (EMAS ziurtagiria dauka).	1. maila: oinarritzkoa	Erosketa eta kontratazio eta/edo erosketetako arduradunak diren langileen prestakuntza.	Erosketa eta kontratazio publiko berdearen prozesuan funtsezkoak diren pertsonak ez dute kontratazioan ingurumen irizpideak erabiltzeari buruzko prestakuntzarik jaso.	0. maila	
IRIZPIDEA	EGOERA	EZARPEN MAILA (0-3)																		
Iraunkortasunarekiko konpromisoa	Iraunkortasunarekin zerikusia duten gaiekiko oinarritzko konpromisoa hartu da. Iraunkortasuna ingurumen teknikariaren erantzukizuna da eta antolamenduaren jarduera batzuetan barneratuta dago.	1. maila: oinarritzkoa- 2. maila: aurreratua																		
Erosketa eta kontratazioaren antolamendua	Udalak estandarizatutako kontratazio prozedurak, kontratazio langile espezializatuak eta, kasu zehatzetan, ingurumen arloko gaietan adituak diren teknikarien laguntza du. Erosketa eta kontratazio publiko berdearen ezarpena puntuala da.	1. maila: oinarritzkoa-2. maila: aurreratua																		
Erosketa eta kontratazio publiko berdearen politika	Baliabideen kudeaketarako konpromiso politikoa hartu da.	1. maila: oinarritzkoa																		
Ekintza plana/Estrategia	Ez dago erosketa eta kontratazio publiko berderako ekintza plan zehatzik, baina planak hondartza zerbitzuarekin harremana duten kontratuetan sartzen ari dira (EMAS ziurtagiria dauka).	1. maila: oinarritzkoa																		
Erosketa eta kontratazio eta/edo erosketetako arduradunak diren langileen prestakuntza.	Erosketa eta kontratazio publiko berdearen prozesuan funtsezkoak diren pertsonak ez dute kontratazioan ingurumen irizpideak erabiltzeari buruzko prestakuntzarik jaso.	0. maila																		

Langileak informatzea (ohitura aldaketa)	Zehazki erosketa eta kontratazio publiko berdearekin zerikusia duten langileak informatu dira. Ingurumen gaiei eta ohitura aldaketei buruzko argibideak eman zaizkie Udaleko langileei.	1. maila: oinarritzkoa
Produktu eta/edo zerbitzuetarako ingurumen irizpideak	Erosketa publiko berderako irizpideak sartu dira lorezaintza zerbitzuaren kontratazio orrian eta hondartzako garbiketa eta kabinen kontratuetan. Erosketa publiko berderako irizpideak sartuko dira hiri hondakinak biltzeko kontratazio orrian. Erosketa publiko berdean aditua den aholkulari batek berrikusi du orri hori. Zarauzko hondartzak EMAS ingurumen ziurtagiria du. Jarduerak antolatzeke prozedura bat dago ezarrita eta, bertan, jarduera bakoitza egin ahal izateko bete behar diren ingurumen irizpideak daude zehaztuta.	1. maila: oinarritzkoa
Emaitzaren neurketa, adierazleak eta berrikuspena	Hondartzako zerbitzuarekin zerikusia duten emaitzak neurtzen dira.	0. eta 1. maila artean: oinarritzkoa
Hornitzaileen katearen kudeaketa antolamendua	Ingurumen irizpideekin zerikusia duten harreman informal eta noizean behingoak daude egungo hondartza zerbitzuen hornitzaileekin.	0. eta 1. maila artean: oinarritzkoa
Lankidetzeta eta sare lana beste administrazio publiko eta erakunde batzuekin, erosketa eta kontratazio publiko berdea sustatzeko	Udalak erosketa eta kontratazio publiko berdeari buruzko Ekitaldeko bi bilkuretan parte hartu du eta IHOBEn hiri hondakin solidoen bilketaren kontratazio baldintzen orria berrikusteko eskatu dio.	1. maila: oinarritzkoa



	<ul style="list-style-type: none"> • Aldi berean, erosketa publiko etiko eta sozialaren aldeko proiektu bat martxan dago, Emaús erakundearekin batera 	
<p>Udal administrazioaren ingurumen kudeaketa</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Udal Zerbitzu Teknikoen Sailak kudeatzen dituen hondartzako zerbitzuak Aenor-ek ziurtatu zituen 2002an, UNE-EN ISO 14001 Arauari jarraituz. 2004tik, Udal Zerbitzu Teknikoen Saila, Zarauzko hondartzaren kudeaketa integralaz arduratzen dena, Ingurumena Kudeatzeko eta Ikuskatzeko Europar Batasuneko Sistemari (EMAS) erregistratuta dago. • IKS horren barruan Zarauzko hondartzako ingurumenarekin erlacionatutako alderdiak kontrolatzeko hainbat prozedura garatzen dira. Urtero, ingurumen arloko portaera hobetzeko ekintza plana zehaztu eta ezartzen da. Sistema horrek, hondartzaren kudeaketa kontuan hartzeaz gain, inguruneko eremu sentikorrenen alde lan egiten du (adibidez, Inurritzako biotopoa edo akuiferoa). Modu sendoan ezarritako eta finkatutako sistema da. • Ez dago ingurumena kudeatzeko sistema bat ezarrita duen udal instalazio edo zerbitzurik. • Bestalde, 2007an Udal Gobernu Kontseiluak Udaleko eguneroko jardueretan lan eredu arduratsuak erabiltzeko konpromisoa hartu zuen. Konpromiso horri erantzuna emateko, energia (argiztapena eta ekipoa) eta papera aurrezteko argibide praktikoak egin dira eta Udaleko langile guztiei banatu zaizkie. • Gaur egun, ez dakigu udal instalazioetako energia eta ur kontsumoa zenbatekoa den. Dena den, esan beharra dago etorkizunean datu horiek jakitea ahalbidetuko duen azpiegituren GIS sistema bat garatzen ari direla. (!) • Udalak bere instalazioetan aurreztera eta energia eraginkorragoa bihurtzera zuzendutako neurriak ezartzeari ekin dio. Neurri horien artean aipagarrienak kiroldegi berrian energia aurrezteko neurriak ezartzea eta kogenerazioa instalatzea, eta udaletxe berriaren diseinuan energia eraginkorragoa izateko neurriak sartzea izan dira. • Ura aurrezteari dagokionez, azpimarratu behar da kiroldegi berrian igerilekuetako ura garbitzeko sistema berri bat instalatu dela. Sistema horri esker, urteko 80.000 m³ ur aurreztuko direla aurreikusten da. 	

Prestakuntza,
sentsibilizazio
a eta
komunikazioa

- Udalak modu aktiboan parte hartu du Udalsarea 21en esparruan antolatutako hainbat ekitaldetan: udalerrria-enpresa, airearen kalitatea, biodibertsitatea eta erosketa publiko berdeari buruzko 2 bilkura. Hala ere, parte hartze hori egungo Tokiko Agenda 21eko koordinatzailearen bitartez artikulatu da ia bere osotasunean. (!)
- Gobernu Batzordean, Udaleko eguneroko jardueretan herritarrei lan eredu arduratsuak erabiltzeko konpromisoa helaraztea adostu zen, herritarrak kontsumo arduratsua egiteko sentsibilizatzeko. Horretarako, prentsaren bidez jakitera eman zen Udalak hartutako neurria. Mota horretako ekintza batek Udalak eman behar duen eredia indartzen laguntzen du eta etorkizunean horri jarraipena ematea eskatzen du.
- 2004tik Zarauzko hondartzako IKSrekin erlazionatutako komunikazio ekintzak egiten dira. Ekintza horiek ingurumen kalitatea udalerrriak norako turistiko gisa duen kalitatearekin modu positiboan lotzen laguntzen dute:
 - Bai Udaleko web orrialdean bai turismo bulegoan eskuragarri daude Zarauzko hondartzako ingurumen politika eta horri dagozkion ingurumen adierazpenak.
 - 2008an Zarauzko hondartzako kudeaketarekin zerikusia duten alderdi garrantzitsuenak azaltzen zituen liburuxka dibulgetzaile bat argitaratu zen.



AURREKO TOKIKO EKINTZA PLANA

Lotura duten ildo eta programak *(Lotura duten ildo eta programen kode eta tituluaren erreferentziak)*

- 5. IRAUNKORTASUNAREN BALIOEI BURUZKO SENTSIBILIZAZIOA EGITEA ETA INGURUMEN KUDEAKETA INDARTZEA
- 5.2 Udaleko kudeaketa politikari modu jarraituan eustea eta aurrera egitea
- 7. ENERGIA KONTSUMOA OPTIMIZATZEA ETA EMISIO ATMOSFERIKOAK GUTXITZEA
- 7.2 Udal administrazioaren energia kudeaketa optimizatu eta gutxitzea
- 7.3 Energia kontsumoa optimizatzea, udalerriko sektore guztietan energia berriztagarri gehiago erabiliz

Garatzeke dauden eta garrantzitsuak diren indarreko ekintzak

- 5.2.1 Ingurumen irizpideak barneratzea materiala erostean, hornitzaileak aukeratzean eta zerbitzuak kontratatatu eta ematean.
- 5.2.2 Udaleko eremuren batean ingurumena kudeatzeko sistema bat ezartzea esperientzia pilotu gisa, eta Udalean ezarritako jardunbide egokiak zabaltzea.
- 7.2.2 Energia ikuskaritzaren emaitza oinarritzat hartuta, Energia Aurrezteko Plana egitea, emaitza bakoitzeko aurrezteko helburu jarraituak ezarriz.
- 7.2.3 Kontsumoak kontrolatzeko kudeaketa sistema informatikoa ezartzea, udal instalazioetako kontsumoak zehazki ezagutzea eta horien jarraipena modu azkarrean egitea ahalbidetuko duena.
- 7.2.5 Energia eraginkorragoa bihurtzeko eskakizunak barneratzea instalazio berrien, edo birmoldatzen direnen, baldintzen orrietan.
- 7.3.1 Udal ibilgailuen erosketak berdea sustatzea.
- 7.3.3 Udal kiroldegian eta beste eraikin publiko batuzetan plaka fotovoltaikoak jartzea.

LOTURA DUTEN PLAN ETA ARAUDIAK

Udalerrian

- Ez dago alderdi honekin zerikusia duen udal araurik.

EAEan

- Gobernu Kontseiluaren akordioa, Autonomia Erkidegoko administrazioa eta bere sektore publikoa kontratatzean gizarte eta ingurumen irizpideak, eta beste politika publiko batzuk, erabiltzeari buruzkoa (2008ko apirilaren 29koa).
- Aldaketa Klimatikoari aurre egiteko Euskal Plana (2008-2012).
- EAEko Hondakin Ez Arriskutsuak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana (2008-2011).
- Ingurumen Esparru Programa (2007-2010).

- Ingurumenaren Aldetik Iraunkorra den Euskal Kontsumo Plana (2006-2010).

LEHENTASUNEZKO JARDUKETA EREMUAK

Udal eskumena

- Erosketa eta kontratazio publiko berdea egiteko plan bat diseinatu eta ezartzea, eta horren jarraipena egitea.
- Udala ingurumenarekin bat etortzeko estrategia bat diseinatzea.
- Udaleko langileak ingurumenaren arloan eta, zehazki, erosketa publiko berdearen arloan prestatu eta informatzea.
- Urari, energiari eta hondakinei dagozkien diagnostiko fitxetan, udal administrazioa ingurumenarekin bat etortzeari buruzko lehentasunezko esku-hartze eremuak identifikatzen dira bektore horietako bakoitzarentzat.

Udalaz gaindiko eskumena





- Ez da udalaz gaindiko eskumeneko jarduketa eremurik identifikatu.




ALDAKETA KLIMATIKOA

Lotura duten Aalborgeko
konpromisoak:


4. KONTSUMO ETA BIZIMODU ARDURATSUAK
10. TOKIAN TOKIKOTIK MUNDU GLOBALERA

AZPIEREMUA	DIAGNOSTIKOA	BALORAZIOA
Aldaketa klimatikoari egindako ekarpena	<ul style="list-style-type: none">Gaur egun, ez dakigu zein den berotegi efektuko gas emisioen bolumena, ez udalerrri osoarena ezta Udalarena ere. (!)Administrazioaren eta tokiko enpresen karbono aztarna ere ez dugu ezagutzen.	
Aldaketa klimatikoari aurka egiteko ekimen espezifikoak	<ul style="list-style-type: none">Era berean, tokiko administrazioak ez du aldaketa klimatikoari aurka egiteko tresna espezifikorik garatu edo ezarri, ezta berotegi efektuko gas emisioak orekatzeko ekimenik ere. (!)Gainera, ez da ziurra udalerriko eragile sozial eta ekonomikoek maila partikularrean aldaketa klimatikoari aurka egiteko tresnak garatzen dituztenik.	
Aldaketa klimatikora egokitzea	<ul style="list-style-type: none">Zarautzek, kostaldeko udalerrria delako eta itsasoarekiko duen irekitasun mailagatik, aldaketa klimatikoarekin zerikusia duten inpaktu hauek jasateko arriskua dauka: itsasoaren maila nabarmen igotzea edo olatuen indarra areagotzea. (!)Aldaketa klimatikoak itsasertz kantauriarreko udalerrietan izan dezakeen eraginari buruzko azterketen arabera, Zarautz zaurgarritasun maila altuenetakoa dutenen artean dago.Kostaldeko lerroak atzera egingo duela dioten aurreikuspenak betez gero, eragin gogorrena jasango lukeen sektorea turismoa izango litzateke, udalerriko ekonomiaren motorretako bat.Gaur egun itsasertzaren dinamikari buruzko ikerketa bat martxan dago. Epe luzerako aurreikusi diren ikerketa horren emaitzak udalerriak itsasoaren ekintzagatik jasan ditzakeen inpaktuak gutxitzeko hartzea komeni den neurriak zein diren identifikatzeko baliagarriak izango dira.	
Sentsibilizazioa	<ul style="list-style-type: none">Zarauzko biztanleen % 64 oso edo nahikoa arduratuta dago aldaketa klimatikoaren inpaktuagatik. Gai honengatik oso arduratuta dauden pertsonen proportzioa altuagoa da Zarautzen (% 22) EAE osoan baino (% 16); baina, nahikoa arduratuta dauden pertsonen portzentajea baxuagoa da.	



Iturria: IHOBE. 2008ko Ekobarometroa.

- Zarauzko biztanleen % 50ek uste dute beren jokoerak aldaketa klimatikoa arintzen lagun dezakeela. EAEn, kopuru hori baxuagoa da, % 35 inguruan kokatzen baita.



Iturria: IHOBE. 2008ko Ekobarometroa.

- Ez da aldaketa klimatikoari buruzko ingurumen hezkuntzako jarduera edo sentsibilizazio jarduera zehatzik egin.

AURREKO TOKIKO EKINTZA PLANA

Lotura duten ildo eta programak (*Lotura duten ildo eta programen kode eta tituluen erreferentziak*)

- 7. ENERGIA KONTSUMOA OPTIMIZATU ETA GUTXITZEA ETA EMISIO ATMOSFERIKOAK MURRIZTEA
- 7.4 Jardueren emisio atmosferikoen kontrola areagotzea, horiek gutxiagotzea bultzatuz

Garatzeke dauden eta garrantzitsuak diren indarreko ekintzak

- 7.4.2. Fuel eta gasolio berotze sistemak gas natural sistemengatik ordezkatzeko bultzatzen jarraitzea.
- 7.4.3. Emisio atmosferikoen (industrialak, etxeak eta garraioak) kontrola handitzea, indarrean dagoen legediaren arabera eta Udalaz gaineko organoekin batera.

LOTURA DUTEN PLAN ETA ARAUDIAK

Udalerrian

- Eremu honetan ez da udal izaera duen plan edo arau zehatzik identifikatu.

EAEn

- Aldaketa Klimatikoaren aurkako Udal Ordenantza Eredua ("Udalerria eta Klima II" Ekitaldearen esparruan egindakoa)
- Aldaketa Klimatikoaren aurkako Euskal Plana (2008-2012)

LEHENTASUNEZKO JARDUKETA EREMUAK

Udal eskumena

- Berotegi efektuko gasen inbentarioa kalkulatzeko eta horiek murrizteko helburuak ezartzea.
- Aldaketa klimatikoaren aurkako estrategia edo tokiko plana egitea, horretarako Ekintza Planaren berrikuspen prozesua bera balioztatuz eta horrekin guztiz bat etortzea bermatuz.
- Zarauzko Udala berotegi efektuko gasen murrizketarako ekimen eta koordinazio plataformatan parte hartzea bultzatzea, eta udalerriko eragileen horiekiko atxikimendua sustatzea.
- Hiritarrak, aldaketa klimatikoari dagokionez, sensibilizatu eta erantzukizunaren zati bat beren gain hartzea bultzatzeko ekintzak garatzea.
- Aldaketa klimatikoari lotutako arriskuak eta udalerraren egungo eta etorkizuneko zaugarritasun maila identifikatzea.
- Aurreikus daitekeen arabera, identifikatutako inpaktuak laztasun handiagoz jasango dituzten sektore ekonomikoak eta sistema naturalak identifikatzea.
- Aldaketa klimatikoak izan ditzakeen inpaktuak murriztu edo txikiagotzeko neurriak ezartzea.

Lehentasunezko eremu horien osagarri gisa, agiri honetako hainbat fitxatan aldaketa klimatikoa arintzen

eta/edo egokitzen lagun dezaketen jarduera eremuak gehitu dira. Jarduera eremu horiek, lehenago aipatutakoekin batera, beren kabuz osa ditzakete aldaketa klimatikoaren aurkako tokiko planaren oinarritzko edukiak:

Aldaketa klimatikoa ia bere osotasunean arintzen laguntzen duten jarduera eremuak barne hartzen dituzten gaien araberako fitxak: *Mugikortasuna eta Garraioa, Hondakinak (bideen garbiketa eta emisioen kontrola izan ezik), Energia, Sentsibilizazioa eta Erosketa Publikoa.*

Aldaketa klimatikoa arintzen eta/edo horretara egokitzen laguntzen duten jarduera esparruak barne hartzen dituzten gaien araberako fitxak: Lurraldea eta Plangintza, Biodibertsitatea eta Natura Ingurunea, Ura, Jarduera Ekonomikoen Ingurumen Kudeaketa, Udal Administrazioaren Ingurumen Kudeaketa eta Arriskuaren Kudeaketa.

Udalaz gaidiko eskumena

- Zarautzek jasan ditzakeen aldaketa klimatikoaren inpaktuak murriztu edo gutxitzeko Udalaz gaidiko eskumeneko neurriak ezartzea (bereziki, kostaldeari dagozkionak).


4.3 SENTSIBILIZAZIOA, HERRITARREN PARTAIDETZA ETA BARNE KOORDINAZIOA




KOMUNIKAZIOA, SENTSIBILIZAZIOA ETA PARTAIDETZA

Lotura duten Aalborgeko konpromisoak:

4. KONTSUMO ETA BIZIMODU ARDURATSUAK
10. TOKIAN TOKIKOTIK MUNDU GLOBALERA

AZPIEREMUA	DIAGNOSTIKOA	BALORAZIOA
Komunikazioa	<ul style="list-style-type: none">Orokorrean uste da Udaleko web orrialdearen bidez egiten den Tokiko Agenda 21ekin zerikusia duten gaiei buruzko komunikazioa urria dela, ez dela egonkorra eta ez dela behar adina eguneratzen. (!)Batzuetan, sentsibilizazio kanpaina puntualak egiteko asmoz, hedapen handiagoko beste bitarteko batzuk erabiltzen dira, adibidez, tokiko telebista, prentsa edo aldizkaria.Ez dago Tokiko Agenda 21ekin zerikusia duten alderdiak ezagutarazteko berarizko planik, jakinarazi beharreko helburuak, kanalak eta edukiak zehazten dituena. (!)Azken lau urteotan nabarmen hazi da herritarrek Tokiko Agenda 21i buruz duten ezagutza. Zarauzko Tokiko Agenda 21i buruz hitz egiten entzun duten herritarren portzentajea % 30etik 48ra igaro da, beraz, balioaren igoera benetan aipagarria da. Era berean, 2008an gai horrekiko ezjakintasuna adierazi zuten pertsonen portzentajea % 51koa izan zen eta 2004koa % 69koa. Tokiko Agenda 21i buruz zerbait entzun duten herritarren kopuru altu eta geroz eta handiago horrek egiten diren komunikazio jarduerak eraginkorrak direla adierazten du.	



Iturria: Ihobe. 2008ko Ekobarometroa

- Tokiko Iraunkortasun Txostena egin da eta horren emaitza 2002-2008 aldirako Tokiko Ekintza Planaren gauzatzearen eta lortutako emaitzen balantzea izan da. Gainera, izaera

komunikatiboagoa duen **liburuxka** bat ere egin da, txosten horren laburpena barne hartzen duena.

- **Tokiko Iraunkortasun Txostena eta horri lotutako dibulgaziozko liburuxka egin izana nabarmentzekoa eta positiboa dela uste da.** Izan ere, herritarrei tokiko iraunkortasun politika publikoetako **konpromisoak zenbateraino bete diren jakinarazten** laguntzen diete, eta baita herritarrak ekintzetan parte hartzera bultzatu ere. Era berean, komunikazioari dagokionez, egiten ari diren planaren **berrikuspen prozesurako abiapuntu egokia** osatzen dute.

Sentsibilizazioa

- Tokiko Agenda 21en esparruan egindako sentsibilizazio ekintzak modu positiboan baloratzen dira; alde batetik, martxan jarri diren kanpaina edo **ekimen kopuruagatik** eta, bestetik, **tratatu diren gai mota ezberdinengatik** eta **publiko hartzailearen aniztasunagatik**.
- Udalerriko ingurune naturala babestu eta kudeatzeko ekintza guztiekin batera, dibulgazio kanpainak egin dira: argibide taulak jarri dira Talai Mendin, Santa Barbaran, Pagoetan eta Inurritzan. Gainera, biotopoari eta hondartzaren erabilerari buruzko informazio triptikoak banatu dira eta Zarauzko ingurune naturalean egin daitezkeen ibilbideen mapak argitaratu dira.
- Era berean, **hondakinen esparruan**, herritar guztiei eta udalerriko sektore zehatzei zuzendutako ekimen ezberdinak jarri dira martxan: "Onenen artean gaude, baina hobetu dezakegu" kanpaina, dendetan liburuxkak banatzea, industria sektoreari zuzendutako kanpainak, ikastetxei zuzendutakoak, etab.
- **Uraren kontsumoari** dagokionez, 2008ko azaroan sentsibilizazio kanpaina berri bat jarri zen martxan: udalerriko hainbat puntutan eranskailuak banatu ziren, bisita gidatuak egin ziren araztegiara eta ibaira, kalean antzerkia egin zen eta tokiko telebistan iragarki bat eman zen.
- Datu positibo gisa, azpimarratzekoa da **Eskolako Agenda 21** udalerriko sei **ikastetxeetan ezarrita dagoela**: La Salle, Salvatore Mitxelena, Antoniano, M^a Inmaculada, Orokieta, Lizardi eta Oteitza lizeoa (azken horretan, 2008/2009 ikasturtetik).
- Hainbat gai landu dira esparru horretan, besteak beste, biodibertsitatea, mugikortasuna, kontsumo arduratsua, zarata, ura edo energia.




Partaidetza

- Gaur egun, udalerriak ez du **Tokiko Agenda 21en foro** egonkorrik.
- Foroa 2001ean jarri zen martxan. 2002an Ekintza Plana onartu zenetik, 15 bilkura egin dira guztira. **Lehenengo etapa**, planaren diseinuaren fasearekin eta ezarpenaren lehen urteekin bat etorri zena, **oso aktiboa izan zen** (egindako bilkura kopuruagatik, bertaratutakoen kopuruagatik eta horien partaidetzagatik). **Hala ere, sendotu beharrean, foroak indarra galdu du urteekin. (!)**



- Udalak antolatutako hainbat bilkuratan parte hartu duten pertsonen zerrenda bat dago. Zerrenda horretan 54 pertsona daude guztira, nahiz eta azken urteetan egindako bilkuretara azaldu direnen batezbestekoa 14-15 pertsonakoa den.
- Herritarrek ere, foroaren bidez, **egungo partaidetzaren egoerari buruzko kezka eta gogo falta** adierazi dute. (!)
- Foroaren lehen etapan, **bilkuretako partaidetza handia eta, era berean, adierazgarria** izan zen. Norbanako gisa bertaratutako herritarrez gain, foroan udalerriko elkarten ordezkariak egon izan dira eta, neurri txikiagoan, tokiko enpresa eta/edo dendetakoak.
- **Eztabaidetan erabilitako dinamikak ez dira beti egokienak izan eta, orokorrean, informatzaileak izan dira.** Udalak partaideek bilkura ezberdinetan egindako proposamenak bildu ditu, baina **foroari ez zaio jakinarazi** proposamen horiek zenbateraino ezarri diren. (!)
- **Sektore izaera duten eremuei dagokienez, 2007an, HAPN berriaren elaborazioarekin batera, Udal Plangintzako Aholku Batzordea** sortu zen, hiritarrek gai horretan parte hartzeko eremu gisa. Esparru horretan, 2008an Hirigune Historikoa Birgaitzeko Planei eta bertako ingurunearen berrikuntzari buruzko proposamenak biltzeko bost foro egin ziren.
- Mugikortasunari dagokionez, **TAO sistemaren balorazioa** egiteko foro bat egin da eta **malekoian bidegorri bat jartzeko aukerari** buruzko kontsulta egin zaie herritarrei. Horretarako, lan talde bat sortu da eta guztira hiru bilkura egin dira.
- Era berean, **Berdintasunerako Aholku Kontseilua** osatuko da, une honetan diseinu fasean dagoen udalerriko Berdintasunerako II. Plana egiteko.




Iturria: Zarauzko Udala

- **Partaidetza soziala bultzatu eta indartzeko beharrari buruzko akordio politikoa** dago. 2007an Herritarren Partaidetzako Batzordea sortu zen eta, gaur egun, Herritarren Partaidetzarako Plan Gidariaren elaborazioan lanean ari da.
- Gaur egun, **herritarren partaidetzak ez dauka eragin**

esanguratsurik Udalean adosten diren politika eta erabakietan.

- Azken lau urteetan, inkestetan Tokiko Agenda 21en foroetan parte hartzea gustatuko litzaikeela adierazi duten herritarren kopurua hazi egin da. Datu hori positiboa da Ekintza Plan berriaren diseinu eta ezarpenerako. Hala ere, parte hartzeko alde aurretiko jarrera hori ez dator bat benetan herritarrak mobilizatzeko dauden zailtasunekin. Horrek hau isla dezake: alde batetik, herritarrek inkestetan adierazten dutenaren eta gero duten portaeraren arteko ezberdintasuna, eta, bestetik, Udala erabiltzen ari den partaidetza tresnen eta formatuen eraginkortasun eskasa.



Iturria: Ihobe. 2008ko Ekobarometroa

Elkartek^(COM)

- Zarauzko elkarten sarea hauek osatzen dute, besteak beste: mugimendu ekologistek, auzo elkarteek, erretiratuen elkarteek, kirol ezberdinetako elkarteek, kultur elkarteek, ikasleen gurasoen elkarteek, etab.
- Udal erregistroan guztira 76 elkarte daude izena emanda: 15 GKE, kulturaren esparruan lan egiten duten 25 elkarte, 7 auzo elkarte, 27 kirol erakunde edo elkarte, dendarien elkarte bat eta ingurumen gaiekin eta Zarauzko ingurune naturalaren babesarekin erlazionaturako elkarte bat.
- 1.000 biztanleko 3,36 elkarte daude. Kopuru hori Gipuzkoako batezbestekoa baino askoz ere baxuagoa da, izan ere, Gipuzkoako 1.000 biztanleko 7,3 elkarte ingurukoa da. Beraz, ezin da esan Zarautz elkarten sare aberatsa duen udalerrria denik. (!)
- Emakumeek elkarteetan duten partaidetza gizonezkoena baino txikiagoa da eta, orokorrean, oso eremu zehatzetara mugatzen da, adibidez, jarduera artistikoetara edo gizarte ekintzetara. Era berean, kasu gehienetan gizonezkoek hartzen dituzte elkarte ezberdinetako presidente karguak.



AURREKO TOKIKO EKINTZA PLANA

Lotura duten ildo eta programak (*Lotura duten ildo eta programen kode eta tituluaren erreferentziak*)

- 1. NATURA ETA PAISAIA BALIOAK INDARTZEA, UDALERRIKO ELEMENTU BEREZI GISA
- 1.3 Udalerriko sistema naturalak hedatzeko jarduerak egitea
- 4. HONDAKINAK ETA HORIEK INGURUNEAN DUTEN INPAKTUA GUTXITZEAREN, BERRERABILITZEAREN ETA BIRIZIKLATZEAREN ALDE EGITEA
- 4.1 Herritarren sentsibilizazioa eta hiri hondakinen murrizketan eta birziklapenean duten partaidetza areagotzea
- 5. IRAUNKORTASUN BALIOEI BURUZKO SENSIBILIZAZIOA EGITEA ETA INGURUMENAREN KUDEAKETA INDARTZEA
- 5.4 Herritarrek Tokiko Agenda 21en garapenean duten partaidetza sustatzea
- 5.5 Garapen iraunkorrerako heziketa sustatzea

Garatzeke dauden eta garrantzitsuak diren indarreko ekintzak

- 1.3.1. Indarrean dauden arauak hedatzea, udalerriko eremu naturalak kontserbatzeko.
- 1.3.4. Zarauzko biodibertsitateari buruzko sentsibilizazioarekin, ezagutzarekin eta hedapenarekin zerikusia duten planak bultzatzea (argitalpenak, jardunaldiak, erakusketak, etab.)
- 4.1.1. Biztanleria hiri hondakinak birziklatzera bultzatzeko informazio kanpainak egitea (udan areagotu egingo dira).
- 4.1.2. Hondakinak minimizatzen laguntzen duten kontsumo ohiturak sustatzea.
- 5.4.3. Partaidetza foroa dinamizatu eta sendotzea, foroari udalerriko Tokiko Agenda 21en prozesuaren segimendu eta dinamizazioan nagusitasuna emanez.
- 5.5.1. Iraunkortasunerako heziketa programa bat garatzea.

LOTURA DUTEN PLAN ETA ARAUDIAK

Udalerrian

- Herritarren Partaidetzarako Plan Gidaria (garatzen)

EAEan

- 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa (III. titulua, IV. kapitulua, VII. atala. Herritarren partaidetza, plangintza aurkeztu, bideratu eta onartzeko garaian)
- 3/1998 Lege Orokorra, otsailaren 27koa, Euskal Herriko ingurumenaren babesari buruzkoa

LEHENTASUNEZKO JARDUKETA EREMUAK

Udal eskumena

- Udalerriko Tokiko Agenda 21 hedatzeko komunikazio plan espezifiko zehaztea.
- Zarauzko Partaidetzarako Plan Gidaria martxan jartzea, herritarren partaidetzarako oinarriak berregituratzeko.
- Biztanleriak Tokiko Agenda 21ean parte hartzeko mekanismo egonkorra ezartzea.
- Formatu edo partaidetza eremu berriak sustatzea, politikek duten inpaktuan mugikortasun, dinamismo eta trazabilitate handiagoa lortzeko asmoz.
- Egungo sentsibilizazio jarduerak finkatzea eta eremu berrietara hedatzea (adibidez, aldaketa klimatikoa eta kontsumoaren aztarna klimatikoa).
- Udalerriaren egungo elkarten sarea indartzea eta elkarte berrien sorrera bultzatzea.
- Planeko jarduera jakinetan tokiko erakundeekiko loturak eta baterako kudeaketa indartzea.

Udalaz gaindiko eskumena



- Eremu honetan ez da identifikatu Udalaz gaindiko eskumeneko lehentasunezko jarduketa eremurik.





BARNEKO KOORDINAZIOA ETA ZEHARKAKOTASUNA

Lotura duten Aalborgeko konpromisoak:

1. GOBERNATZEKO MODUAK

AZPIEREMUA	DIAGNOSTIKOA	BALORAZIOA
Barne koordinazioa eta komunikazioa	<ul style="list-style-type: none">• 2007an Herritarren Partaidetza eta Tokiko Agenda 21 Batzordea sortu zen, Ekintza Plana bultzatu eta horren segimendu handiagoa egiteko. Izaera guztiz politikoa duen batzorde hau hilean behin biltzen da.• Oraindik egitura tinkoaz hitz egiteko goiz bada ere, dudarik gabe, Tokiko Agenda 21i bultzada emateko oinarri ona dela esan daiteke.• Maila teknikoan, batzordeak komunikazio arina eta Tokiko Agenda 21ekin lotura duten alderdietan inplikatzeko gaitasuna dauka. Hala ere, maila honetan ez dago koordinazio mekanismo egonkorrik. Beraz, zailtasunak egon daitezke zeharkako ekimenak sustatzeko orduan. (!)	
Tokiko Agenda 21 kudeatzeko ereduaren ezarpena	<ul style="list-style-type: none">• Indarreko Ekintza Planak ingurumen izaera nabarmena du eta, ondorioz, planaren ezarpen eta segimenduan gehien parte hartzen duten eragileak ingurumen eta lurralde kontuez arduratzen direnak dira.• Gutxienez hasita dauden planeko ekintzen % 66 Tokiko Agenda 21eko koordinatzaileak ez diren eragileen ardurapean daude. Horrek, Gipuzkoako batez besteko datuekin alderatuta, zeharkakotasun maila ertaina adierazten du.• Esan daiteke Tokiko Agenda 21eko Ekintza Planaren urteko kudeaketa eredu (ebaluazioa, programazioa eta adierazleak kalkulatzeko) Udalean guztiz ezarrita dagoela.• Azpimarragarria da urteroko ebaluazio eta programazio prozesua eta tokiko iraunkortasun adierazlearen kalkulua teknikarien laguntzarekin egiten dela. Teknikari horiek Ekintza Planaren sartuta dauden ekintzak barne hartzen dituzten eremu edo zerbitzuetakoak izaten dira.• Azken bi urteetan 78 iraunkortasun adierazle kalkulatu dira guztira. Hori oso datu positiboa dela uste da. Horri esker, Zarauzko udalerrak iraunkortasunari dagozkion gaietan dituen joerak analizatzeko informazio objektiboa dauka.• MUGI 21 aplikazioa Ekintza Planaren gauzatze maila eta urteroko programazioa ebaluatzeako, eta Tokiko Iraunkortasun Adierazleak kalkulatzeko, erabiltzen da. Egoera horrek prozesuaren informazioa zentralizatuta eta eguneratuta izatea ahalbidetzen du, eta baita eskuragarri egotea ere, kargu politiko edo tekniko bakoitzaren kudeaketa beharren arabera.	

	<ul style="list-style-type: none"> • Tokiko Agenda 21ekin zerikusia duten gaien buruzko barne komunikazioa onargarria dela uste da, izan ere, urtero aurkezten zaizkie Ekintza Planaren ebaluazio eta segimenduaren emaitzak tartean dauden eragileei. Dena den, analisi kualitatiboak (GPS 21, 2007) erakusten duenaren arabera, urtean zehar ez da egon Tokiko Agenda 21i buruzko komunikazio fluxu egonkor eta egituraturik. Gainera, Tokiko Agenda 21en koordinazioari dagokionez, analisiak barne komunikazioa hobetu beharreko alderdia dela azpimarratzen du. (!) • 2008an, Tokiko Agenda 21i buruzko prestakuntza saio bat egin zen, udal teknikari batzuei eta kargu politiko guztiei zuzendutakoa. Saio horren helburua Tokiko Agenda 21i buruzko ezagutza handitzea eta prozesuan (planaren berrikuspen hau barne) duten parte-hartzea indartzea zen. Hala ere, bereziki politikariei zuzendutako prestakuntza saio gehiago egiteko beharra dagoela ikusi da. (!) • Duela gutxi, Iraunkortasun jardunbide egokien argibideak banatu zitzaizkien Udaleko langileei. 	
Baliabide teknikoak	<ul style="list-style-type: none"> • 2006tik pertsona bat arduratzen da Tokiko Agenda 21eko koordinazio eta kudeaketa lanez eta, aldi berean, Udaleko ingurumen teknikari kargua du. Prozesuaren erreferentzia gisa pertsona egonkor bat egotea alderdi positiboa eta oinarritzakoa da, dudarik gabe, prozesua modu eraginkorrean zabaltzeko. 	
Lidergo politikoa	<ul style="list-style-type: none"> • Ordezkeri politiko guztiek prozesua babestu dute eta babes hori 2008ko maiatzaren 29an osoko udal bilkuran hartutako akordioan formalizatu zen. Akordio hori Zarauzko Tokiko Agenda 21i bultzada berria emateko eta Ekintza Plana zeharkako tresna, eraginkorra, estrategikoa, parte-hartzailea eta iraunkortasunaren aldekoa izatea lortzeko egin zen. • Bestalde, 2004an osoko udal bilkuran Aalborgeko konpromisoak hartzea adostu zen. Urtero aztertzen da zein izan diren konpromiso horiei erantzuna emateko egindako jarduerak. • GPS 21 ebaluazio kualitatiboaren bitartez egindako lidergo politikoari buruzko balorazioa onargarria da. Hala ere, politikari guztiek Tokiko Agenda 21eko Ekintza Planean duten parte-hartzea indartzeko beharra azpimarratzen da. (!) 	

AURREKO TOKIKO EKINTZA PLANA

Lotura duten ildo eta programak (*Lotura duten ildo eta programen erreferentziak*)

- 5. IRAUNKORTASUN BALIOEI BURUZKO SENTSIBILIZAZIOA EGITEA ETA INGURUMEN KUDEAKETA INDARTZEA
- 5.1 Zehazki udal ingurumen kudeaketari lotutako giza baliabideak indartzea

Garatzeke dauden eta garrantzitsuak diren indarreko ekintzak

- Ez dira identifikatu.

LOTURA DUTEN PLAN ETA ARAUDIAK

Udalerrian

- Ez da eremu honekin lotura duen udal plan edo araurik identifikatu.

EAEen

- Ez da eremu honekin lotura duen plan edo arau autonomikorik identifikatu.

LEHENTASUNEZKO JARDUKETA EREMUAK

Udal eskumena

- Udal politiketan zeharkakotasun maila altuagoa lortzea, iraunkortasunari dagokionez koordinazioa eta sailen arteko lankidetzak eskatzen duten proiektuak sustatuz.
- Tresna berrien erabilera sustatzea, Udaleko komunikazioa eta sailen arteko lana errazteko.
- Udaleko politikari eta teknikariek osatutako barne mekanismo bat edo Tokiko Iraunkortasun Batzorde bat sortzea.
- Udaleko politikariei Tokiko Agenda 21i buruzko ezagutza zabalagoa ematea.
- Tokiko Agenda 21en ebaluazio eta segimenduaren emaitzak interpretatzeko barneko bilkurak sustatzea.
- Barne koordinazioko mekanismoaren eta herritarren partaidetza mekanismoaren arteko lotura sustatzea, Tokiko Agenda 21en urteko kudeaketa egiteko.

Udalaz gaindiko eskumena

- Eremu honetan ez da Udalaz gaindiko eskumeneko lehentasunezko jarduketa eremurik identifikatu.

4.4 GARAPEN SOZIAL ETA EKONOMIKOA



BIZTANLERIA

AZPIEREMUA DIAGNOSTIKOA

BALORAZIOA


Lurralde kokapena eta testuingurua

- Gaur egun, Zarautzek 22.577 biztanle ditu. Kopuru horrek Urola Kosta eskualdearen % 31,9 eta Gipuzkoako biztanleria osoaren % 3,2 osatzen du.
- Zarauzko biztanle dentsitatea 1.560 biztanlekoa da km²-ko, hau da, probintziako altuenetakoa (Urola Kosta eskualdekoa eta Gipuzkoakoa baino askoz ere altuagoa da, izan ere, horien dentsitatea 213 eta 360 biztanle ingurukoa da km²-ko, hurrenez hurren).
- Bere inguruan biztanleria dimentsio handiena duen udalerrietako bat da eta eskualdeko udalerrri nagusia da.




Biztanleriar en bilakaera

- Azken urteetan Zarauzko biztanleriak izan duen bilakaerak goranzko joera egon dela adierazten du. Gipuzkoak izandakoa baino pixkanakako igoera zerbait altuagoa izan du. Horrela, biztanleria zarautzerra % 2,4 hazi da 2004 eta 2008 artean (Gipuzkoa osoan % 1,8).



Iturria: Zarauzko Udaleko errolda




Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia

- Horrez gain, badirudi hazkunde erritmoa pixkanaka jaisten ari dela. 1996 eta 2001 artean, erregistratutako igoera % 9,8 baino handiagoa izan zen; 2001 eta 2004 artean, portzentaje hori % 4,6 arte jaitsi zen; eta, azkenik, azken 4 urteotako igoera % 3 baino txikiagoa izan da.


Egitura demografikoa

- Zarautzek Gipuzkoa osoarena baino egitura demografiko gazteagoa dauka. Udalerrri honetan, 25 urtetik beherako gazteek biztanleriaren % 30 osatzen dute eta 15 urtetik beherakoek ia % 16,3. Gipuzkoan, portzentaje horiek % 22 eta % 13,6-koak dira, hurrenez hurren.



Iturria: Zarautzko Udaleko errolda. 2008. urtea

- 65 urtetik gorako biztanleriak, aldiz, Zarautzko biztanleriaren % 14,8 hartzen du eta, Gipuzkoan, % 18,4. Era berean, 75 urtetik gorako biztanleak nahikoa gutxi dira (% 7,3).
- Grafiko honetan ikus daitekeen bezala, zifra hauek egonkorak izan dira azken urteotan; haurren (15 urtetik beherakoen) eta adinekoen (75 urtetik gorakoen) kopuruak ez du ia aldaketarik izan.



Iturria: Udalmap

- Biztanleriaren egungo egitura ikusita, eta 15 eta 24 urte arteko biztanle kopurua murriztu egin dela kontuan hartuta (Gipuzkoako batezbestekoa baino altuagoa bada ere), **datozen urteetan jaiotza tasa nabarmen jaitsiko dela aurreikusten da**, orain arte ez bezala.

Mugimendu naturala

- Udalerri baten biztanleriaren hazkunderan bi faktorek eragiten dute gehienbat: lehenengoa, barneko izaera duena, mugimendu naturala; eta, bigarrena, kanpoko, migrazio mugimendua.
- Azken urteotan jaiotza tasa, % 12 ingurukoa, eta heriotza tasa, % 7 ingurukoa, egonkorrak izan dira.
- **Azken urteotako hazkunde begetatiboa positiboa izan da**, udalerrian erregistratu diren jaiotzen kopuru altuagatik.
- 2006an, jaiotza tasa (11,6 jaiotza 1.000 biztanleko) heriotza tasa (% 7,5) baino % 54,6 altuagoa zen.



	Jaiotzak, guztira	Heriotzak, guztira	Hazkunde begetatiboa	Jaiotza tasa (‰)	Heriotza tasa (‰)
1999	257	148	+109	12,4	7,1
2001	236	149	+87	11,0	6,9
2003	262	151	+111	12,0	6,9
2004	264	169	+95	12,0	7,7
2005	256	161	+95	11,5	7,2
2006	259	168	+91	11,6	7,5

Iturria: Eustat

Migrazio mugimendua

- Erroldatutako atzerritarren kopurua oso altua ez bada ere (1.288 pertsona inguru, hau da, 2008ko biztanleria osoaren % 5,7) **2003tik etengabe hazten ari da**. Gainera, erroldatu gabe Zarautzen bizi diren etorkinen kopurua altuagoa dela uste da.
- **Kanpoko migrazio saldoa beti izan da positiboa** (immigrazio handiagoa emigrazioa baino), baina, **bereziki altua izan da 2005etik aurrera**. 2007an, Zarautzik joan zirenen (219 pertsona) eta bertara etorri zirenen (487 pertsona) arteko balantzea 270 pertsona ingurukoa izan zen (1.000 pertsonako, 10,66; Gipuzkoako batezbestekoa % 6 ingurukoa da).



	Biztanle atzerritarrak, guztizkoarekin alderatuta (%)	Kanpoko migrazio saldoa (‰)
2003	2,46	5,00
2004	2,98	5,37
2005	3,66	11,04
2006	4,32	--
2007	4,86	10,66
2008	5,70	--

Iturria: Udalmap

- Komunitateaz kanpoko immigrazioaren fenomenoa nahikoa murriztua da Gipuzkoa osokoarekin alderatuta (% 25,9 Zarautzen eta % 33,2 Gipuzkoan).

**Biztanleriar
en lurralde
banaketa**

- Zarautzek, erdiguneaz gain, beste hiru biztanleria gunek ditu: Aitze, Elkano eta Urteta. Barreiatutako biztanleek biztanleria osoaren % 5 inguru osatzen dute.



AURREKO TOKIKO EKINTZA PLANA

Lotura duten ildo eta programak

Ez dira identifikatu

Garatzeke dauden eta garrantzitsuak diren indarreko ekintzak

Ez dira identifikatu

LOTURA DUTEN PLAN ETA ARAUDIAK

Udalerrian

Ez dira identifikatu

EAEEn

Ez dira identifikatu

LEHENTASUNEZKO JARDUKETA EREMUAK

Udal eskumena

- Ez da identifikatu lehentasunezko jarduketa eremurik.

Udalaz gaindiko eskumena

- Ez da identifikatu lehentasunezko jarduketa eremurik.



GARAPEN EKONOMIKOA ETA LAN MERKATUA

Lotura duten Aalborgeko
konpromisoak:

- 8. TOKIKO EKONOMIA BIZIA ETA IRAUNKORRA
- 9. BERDINTASUNA ETA JUSTIZIA SOZIALA

AZPIREMUA


DIAGNOSTIKOA

BALORAZIOA

JARDUERA EKONOMIKOAREN EGITURA ETA MAILA


Jarduera
ekonomikoaren
bilakaera

- Udalerriko ekonomia eta enpresa sareak bilakaera positiboa izan du azken urteetan. Hazkundera izan da establezimenduetan (% 8,1eko hazkundera 2006 eta 2007 artean) eta enplegetan (hazkunde txikixeagoa, % 4,8koa).
- Zarautzek guztira 2.243 establezimendu eta 7.053 enplegu zituen 2007an.



Iturria: EUSTAT. Jarduera Ekonomikoen Direktorioa


- Establezimendu berrien sorrera oso nabarmena da gaur egun; 11,65 establezimendu berri sortu dira 1.000 biztanleko (2006an baino ia 3 puntu gehiago).



Iturria: Udalmap

Eredu ekonomikoa eta sektore egitura

- Argi eta garbi hirugarren sektoreara bideratutako udalerrria da. Turismo sektoreak oso pisu handia du bertan. Inguruko beste udalerrietan gertatzen denaz bestela, haietan industriak presentzia handia baitu, Zarautzek ez du bereziki garrantzitsua den bigarren sektorerik. Hori erakusten du jarduera sektore desberdinek sortutako Balio Erantsi Gordinari eginiko ekarpenaren azterketak: hirugarren sektoreari dagokio 2005ean sortutako BEGaren % 72,23, eta % 33,61 industria sektoreari.



Iturria: Udalmap


- Hirugarren sektoreak pisu erlatiboa irabazi du azken urteetan, industria sektorearen kaltetan, aurreko grafikoan ikus daitekeen bezala.
- Gaur egun, enpresa sarearen hiru laurden baino zertxobait gehiago hirugarren sektoreko establezimenduek osatzen dute. Eraikuntzari dagokio % 14,5 eta industria sektorea, berriz, ia ez da % 10era iristen.

SEKTORE EGITURA ESTABLEZIMENDUEI DAGOKIENEZ (2007)

	Establezimendu kop.	%
Jarduera sektorea		
Industriak eta energia	210	9,4
Eraikuntza	326	14,5
Zerbitzuak	1.707	76,1
Guztizko jarduera	2.243	100,0

Iturria: EUSTAT. Jarduera Ekonomikoen Direktorioa

- Zarauzko enpresa establezimenduen tamaina oso txikia da; 10 establezimendutik 8k 3 langile baino gutxiago dituzte. Mikroenpresek sortutako enplegua guztira sortutako enpleguaren % 50 inguru da.



Iturria: EUSTAT. Jarduera Ekonomikoen Direktorioa

- Eskualdeko buru izan arren, industria enpresa handirik ez duenez, ez du enplegu asko erakartzen.

Lehen sektorea

- Udalerriaren ezaugarriak eta udalerriko nekazaritza eta arrantza jarduerak duten pisu urria kontuan hartuta (sortutako BEGari egiten dioten ekarpena ia ez da % 0,74ra iristen) ez da beharrezkotzat jo jarduera sektore honen azterketa sakonagorik egitea.

Bigarren sektorea


- Enpresa traktore gisa jarduten diren industria enpresa handi gutxi daude.
- Industria sektoreak beste udalerrri industrializatuago batzuetan baino pisu erlatibo txikiagoa du: Zarauzko industria establezimenduen batez besteko tamaina 8 langile ingurukoa da, era honetako establezimenduek beste udalerrri industrialago batzuetan izan ohi duten tamaina baino askoz txikiagoa.
- Zarautz-Azpeitiko LPPak Abendaño industrialdea eta hirugarren sektoreko beste eremu bat hedatzea aurreikusten du.



Zerbitzu sektorea

- Zerbitzu sektoreak oso pisu handia du. Merkataritza eskaintza zabal eta dibertsifikaturik ezak, ordea, askok merkataritza eskaintza zabalagoa duten udalerrrietara (Donostiara, adibidez), edo hurbileko merkataritza guneeetara (Urbil), alde egitea eragiten du. (!)
- Merkataritza eskaintzak ia ez du bilakaerarik izan azken urteetan, txikizkako merkataritza dentsitatea (% 16,94 2007an) eta merkataritza azalera (1,5 m² 1.000 biztanleko) nahiko egonkor eta Gipuzkoan erregistratutako batezbestekoaren oso antzera mantendu dira.





Iturria: UDALMAP

- Hirugarren sektoreko jarduera adar nagusiak merkataritza, finantza bitartekaritza eta enpresentzako zerbitzuak dira.

HIRUGARREN SEKTOREKO JARDUERA ADAR NAGUSIAK

	Establezimendu kop.	%
Zerbitzuak	1.707	100,0
Merkataritza; ibilgailu motordunen konponketa	569	33,3
Ostalaritza	166	9,7
Garraioa, biltegiatzea eta komunikazioak	141	8,3
Intermediación financiera y servicios a empresas	467	27,4
Bestelako zerbitzu jarduerak	364	21,3

Iturria: EUSTAT. Jarduera Ekonomikoen Direktorioa

- Salerosleen elkarteak udalerrian merkataritza gune handiak jartzearen aurka azaltzen da. Iritako Hiri Antolamendurako Plan Berezia onartu ondoren, ordea, gune teknologiko berri bat sortzea aurreikusten da.

Turismo eta ostalaritzako sektorea

- Turismoa da udalerraren baliabide nagusietako bat, eta establezimendu turistikoaren eskaintza oso zabala du.
- Hala ere, merkataritza eskaintzarekin gertatzen den bezala, turismo eta ostalaritzako eskaintza nahiko egonkor mantendu dira azken urteetan: 2007n Zarautzek turistek ostatu emateko ia 74 plaza zituen 1.000 biztanleko (EAEn 1.000 biztanleko plaza indize handiena duten udalerrietako bat) eta ostalaritzako eta sukaldaritzako % 7 establezimendu baino zertxobait gehiago (Gipuzkoako batezbestekoaren antzera; 6,81 establezimendurekin).
- Turista asko ibiltzen da bertan: udan ia bikoiztu egiten da biztanle kopurua. Joera horien erakusgarri da bigarren etxebizitzaren presentzia handia (etxebizitza guztien ia % 20); asko dira udan bakarrik Zarautzen bizi direnak.
- Uda garaitik kanpo nabarmen murrizten da merkataritza eta ostalaritza mugimendua. (!)
- “Hondartza turismoa” eta surfari loturiko turismoa dira turismo modalitate nagusiak. Horiez gain, gastronomiak ere turista asko erakartzen ditu.
- Zarauzko Udalak, turismo bulegotik, turismo sektorea sustatzeko hainbat ekimen bultzatu ditu. Nabarmentzekoa da kalitate turistikoaren programetako parte-hartzea. Udalerririk honetako 22 establezimendu turistiko hartu dute



parte dagoeneko sektorea profesionalizatzen bideratutako "Praktika Onak" programan. Halaber, udalerriko hotel batek eta turismo bulegoak berak kalitate turistikoaren Q bereizgarria dute.

- Gaur egun Plan Estrategiko Turistikoa prestatzen ari dira.

Familiaren ongizate ekonomikoaren maila


- Biztanle bakoitzeko errenta gordin mailak (12.350 €) eta errenta pertsonal erabilgarria (12,355 €) Gipuzkoako batezbestekoaren gaineratik zeuden 2003an (12.100 € inguru lehenengoa eta 11.833 € inguru bigarrena). Errenta handienak dituen udalerrietako bat da.
- Hala ere, errenta pertsonal erabilgarriak 2001ekoaren aldean izandako bilakaera nahiko urria izan da, urteko batez besteko hazkunde tasa metakorra % 2,68koa izan da (Gipuzkoan erregistratutako % 3,29koa baino zertxobait txikiagoa). Hori dela eta, errenta hendieneko udalerrien rankingean behera egin du.



ENPLEGUA ETA LAN MERKATUA

Jarduera eta okupazio tasa

- Zarauzko jarduera tasa, 2006an, Gipuzkoako jarduera tasa baino handiagoa zen (Zarautzen % 74,9koa eta Gipuzkoan % 70ekoa), baina Urola Kostako gainerakoan (% 79koa) baino txikiagoa.
- Hala ere, oso alde nabarmenak daude generoaren arabera. Emakumeen jarduera tasa askoz ere urriagoa da: gizonezkoen artean % 85,6koa da jarduera tasa, eta emakumezkoen artean, aldiz, ia ez da % 63,8ra iristen.




Iturria: EUSTAT. Lan merkatuaren errolda

- Nolanahi ere, II. Berdintasun Plana prestatze aldera eginiko azterlanaren arabera, emakumezkoen jarduera tasa askoz handiagoa da Gipuzkoa mailan, baina ez eskualde mailako zifrak erreferentzia gisa hartuta.

- Okupazio koefizienteak etengabeko igoera izan du 2001 eta 2006 artean (2006an % 69,1ekoa zen eta 2006an % 73,0koa). Jarduera mailarekin gertatzen den bezala, koefiziente hau eskualdearen gainerakoan erregistratutako mailaren (% 77,1) azpitik dago, eta alde nabarmenak dadue generoaren arabera (% 84,4koa gizonezkoen artean eta % 61,2koa emakumezkoen artean).
- Egungo krisi egoera dela eta, bilakaera positibo honek okupazio mailetan beherakada orokorra izatea aurreikus daiteke.

Langabeziaren azterketa eta bilakaera

- Langabezia tasak Zarautzen izan duen bilakaerak Urola Kosta eskualdean eta Gipuzkoan izandakoaren antzeko joera erakusten du. Hala ere, tasa hau Gipuzkoan erregistratutakoa baino portzentajezko puntu bat txikiagoa izan da.
- Langabezia tasak, azken urteetan beherakada txiki bat izan ondoren, 2007 eta 2008 artean ia % 11ko hazkundea izan du (% 5,5etik % 6,1era igaro da), eta, krisiaren ondorioz, are gehiago haz daiteke datozen urteetan.




Iturria: Lanbide

- Langabezia tasa askoz ere handiagoa da emakumezkoen artean gizonezkoen artean baino. (!)

Kontratazioa

- Eginiko kontratu kopurua % 9,6 hazi da 2005 eta 2007 artean, eta horrek % 4,8ko gehikuntza ekarri du kontratatutako pertsonen dagokienez. Hala ere, badirudi zifra hauek behera egin dutela 2008rako.
- 2007an 211,8 kontratu egin ziren mila biztanleko eta, beraz, 99,3 pertsona kontratatu ziren mila biztanleko. Zira hauek pertsonako 2,1 kontratuko kontratu errotazio indizea erakusten dute.





Iturria: Udalmap

- Laneko egonkortasun indizea ez da oso altua; 2007an 2006an baino ere baxuagoa izan zen; 2007an eginiko kontratu guztien % 10,3 bakarrik izan ziren kontratu mugagabeak. Ez dago alde handirik gizonetzkoen eta emakumezkoen artean.
- 2008ko azken hiruhilekoan eginiko kontratuei erreparatuz gero, kontratu gehienak hirugarren sektorean, eta zehatzago, garraio eta merkataritza adarretan (hiruhileko horretan eginiko kontratuen % 27,2 eta % 16,1 hurrenez hurren) egin ziren, osasun eta ostalaritzako jarduerak segidan dituztela.

KONTRATAZIOA JARDUERA EKONOMIKOEN ARABERA (2008ko 4. hiruhilekoa)

Kontratua	Guztira	%
Garraioa	301	27,2
Merkataritza	178	16,1
Osasun eta albaitari jarduerak	127	11,5
Ostalaritza	104	9,4
Industria	78	7,0
Bestelako gizarte jarduerak	78	7,0
Enpresen zerbitzu jarduerak	77	7,0
Hezkuntza	77	7,0
Eraikuntza	49	4,4
Herri administrazioa	18	1,6
Finantza bitartekaritza	11	1,0
Nekazaritza	6	0,5
Etxerako langileak hartzen dituzten familiak	3	0,3
Guztira	1107	100,0

Iturria: SISPE

Lan mugikortasuna, bertako laneratzea eta autosufizientzia

- 2001eko datuen arabera, udalerriko bertako laneratze maila % 59koa zen; aurreko urteekin alderatuta, beheranzko joerarekin.
- Gaur egun lanean diharduten Zarauzko biztanleen % 44 inguruk udalerrian bertan egiten dute lan (2008ko Ekobarometroa).



Enplegu eta prestakuntza politikak

- Zarauzko Udalak ez du enplegua sustatzeko zerbitzurik kudeatzen. Urola Kostako Mankomunitateko enplegu zerbitzuaren bidez ematen da zerbitzu hau.



AURREKO TOKIKO EKINTZA PLANA

Lotura duten ildo eta programak (*Lotura duten ildo eta programen kode eta tituluaren kode eta erreferentziak*)

- 9. UDAL EKONOMIA SUSTA DADIN BULTZATZEA
- 9.1. Udalerriko dibertsifikazioaren alde eginez enpresa ekimen berriak sustatzeko eta babesteko programa
- 9.2. Lehen sektorearen babes eta sustapen ekonomikorako programa
- 9.3. Udalerrian turismoa garatzeko eta sustatzeko programa
- 9.4. Laneratzeko eta aukera berdintasunerako programa

Garatzeke dauden eta garrantzitsuak diren indarreko ekintzak

- 9.4.1. Zarautzen gizon eta emakumeen Aukera Berdintasunerako Plana garatzea (laneratze eremuan).

LOTURA DUTEN PLAN ETA ARAUDIAK

Udalerrian

- Gaur egun Plan Estrategiko Turistikoa garatzen ari dira.

EAEEn

- Merkataritza Jarduerari buruzko Legea
- 6/1994 Legea, martxoaren 16koa, Turismoaren Antolamenduari buruzkoa.
- Merkataritza ekipamenduen lurralde plan sektoriala
- EAEko turismoaren lehiakortasun plana

LEHENTASUNEZKO JARDUKETA EREMUAK

Udal eskumena

- Uda garaitik kanpo merkataritza eta ostalaritza jarduerak bultzatzea.
- Tokiko denda txikiak indartzea eta bultzatzea.
- Turismo jarduera udalerriko motore ekonomiko gisa sustatzen jarraitzea.
- Udalerrian bertan enplegu gehiagoren sorrera bultzatzea enplegu gune berriak aztertuz.
- Emakumeen eta behar handieneko kolektiboan laneratzea sustatzeko neurriak ezartzea.
- Udal zerbitzuen eta Mankomunitateko enplegu zerbitzuen arteko lankidetzaren eta koordinazioaren handitzea.



GIZARTE ONGIZATEA ETA GIZARATERATZEA

Lotura duten Aalborgeko
konpromisoak:

7. OSASUNERAKO TOKIKO EKINTZA
9. BERDINTASUNA ETA GIZARTE JUSTIZIA

AZPIEREMUA


DIAGNOSTIKOA

BALORAZIOA

GIZARTE ZERBITZUEN PROBLEMATIKA ETA KUDEAKETA

Gizarte
problematikak


- 2008an egindako Ekobarometrotik ondorioztatzen denaren arabera, Zarauzko biztanleentzako lehentasunezko gizarte alderdiak ondorengoak dira, ordena honetan: etxebizitza eskuratzeko aukerak, langabezia, osasun zerbitzuen hobekuntza eta gazteentzako zerbitzu eskaintza zabalagoa.
- Hirugarren adina: 65 urtetik gorako biztanleen % 17 baino zertxobait gehiago bakarrik bizi dira (bereziki nabarmentzekoa da emakumeen taldea). Hirugarren adinekoentzako zerbitzuak ez dira nahikoak talde honen beharrei erantzuteko. (!)
- Immigrazioa: 2009ko urtarrilaren 1ean, atzerritarrak biztanle guztien % 6,4 inguru dira (1.452 atzerritar). Hala ere, pobrezia eta bazterkeria arazo handienak dituztenak dira; arazo horiek areagotu egiten dira emakumezkoen kasuan.
- Zarautzen Caritasek hartzen dituen pertsonak nagusiki Erdialdeko Amerikatik eta Hego Amerikatik datozen emakume etorkin langabeak dira.



Iturria: Caritas Zarautz

- **Pobrezia mailak:** gizarte larrialdiko laguntzak eta oinarrizko errenta jasotzen dutenen kopurua murriztu egin da 2007an, 2006an zertxobait hazi ondoren.

- Gizarte larrialdietarako laguntzak jasotzen zituztenak, 2007an, biztanleen % 3,2 ziren, eta oinarrizko errenta jasotzen zutenak, berriz, % 1,8 baino ez.
- Zarautzen pobrezia ratioak EAEko beste udalerri batzuetakoak baino askoz ere txikiagoak dira.




Iturria: Udalmap

Gizarte zerbitzuak eta ekipamenduak

- Gizarte zerbitzuen eta ekipamenduen hornikuntza oso adierazgarria da. Zarauzko Udalak berak kudeatzen dituen Oinarrizko Gizarte Zerbitzuez gain, udalerriak Urola Kostako Mankomunitatearen Oinarrizko Zerbitzuak ere baditu. ☹️
- Udalak hainbat esku-hartze garatzen ditu gizarte arlo ezberdinetan identifikatutako beharrei erantzuteko:
 - Laguntza ekonomikoen kudeaketa
 - Hirugarren adinekoentzako etxez etxeko laguntza eta egoitza zerbitzuak
 - Droga Mendekotasunen Prebentzio Komunitarioko Zerbitzua
 - Genero indarkeriako biktimen arretarako zerbitzua
 - Etorkinentzako integrazio, sentsibilizazio, orientazio eta aholkularitza programak
 - Ezgaitasunen bat duten pertsonentzako laguntzak
- Mankomunitatean gizarteratze programak garatzen ditu, besteak beste.
- Hirugarren adinekoentzako eguneko zentroetako eta egoitza zentroetako plazetan ez da aldaketa nabarmenik izan azken urteotan; eguneko zentroetan 1.000 biztanleko (65 urtetik gorakoan artean) 7 plaza inguru daude eta egoitza zentroetan, berriz, 29 plaza inguru. Zentro horien okupazioa % 100ekoa da eta zerbitzu horien eskariak egun dagoen eskaintza gainditzen du.


- Partaidetza bilkuran adinekoentzako ethez etxeko laguntza indartzeko beharra azpimarratu zen.
- 2007an genero indarkeriaren biktima kopurua murriztu egin da aurreko urtean erregistratutakoari dagokionez: 2006an gizarte zerbitzuetan 76 pertsona artatu ziren eta 2007an, berriz, 48.
- **Prebentzio Komunitarioko Zerbitzua:** Zarauzko Udalak, Prebentzio Komunitarioko zerbitzuaren bidez, informazioa (ikastaroak, hitzaldiak, etab.), orientazioa eta prebentzioa (prebentzio jardunaldiak eta kanpainak) eskaintzen ditu hiru eremutan, hots, eskola, familia eta komunitatea, ohitura osasungarriak ezarri eta drogen kontsumoa murrizte aldera.
- **Biztanleek gizarte zerbitzuekiko erakusten duten gogobetetze maila handia da.** Hala ere, eta 2004ko eta 2008ko Ekobarometroetan lortutako emaitzak aintzat hartuta, nabarmen murriztu da lortutako gogobetetze maila.
- Era berean, **Zarauzko emakumezkoek eta gizonezkoek duten pertzepzioa apur bat ezberdina da,** emakumeek baitute gogobetetze maila txikiagoa. Gauza bera gertatzen da osasun zerbitzuen erabilgarritasunaren inguruko pertzepzioarekin: gizonezkoen kopuruarekin alderatuta, emakume gutxiagori iruditzen zaie osasun zerbitzuak beren etxeetatik oinez 15 minutura baino gutxiagora daudela. Bi balorazioak garrantzitsuak dira, oro har, emakumezkoak baitira laguntzaile gisa osasun zentroetara gehien joaten direnak.

BIZTANLEEK GIZARTE ETA OSASUN ZERBITZUEKIKO ERKUSTEN DUTEN GOGOBETETZE-MAILA SEXUAREN ARABERA



Iturria: 2008ko Ekobarometroa

OSASUN ZERBITZUAK ETXETIK OINEZ 15 MINUTURA BAINO GUTXIAGORAKO ESKURAGARRITASUNA




Iturria: 2008ko Ekobarometroa

- Ez dago aurrez ezarritako koordinazio protokolorik gizarte


zerbitzuen eta Udaleko gainerako zerbitzuen artean. (!)

Udalak gizarte zerbitzuetan egiten duen gastu ekonomikoa

- Gizarte Zerbitzuetan egindako gastu ekonomikoak goranzko joera erakutsi du, bai udal aurrekontuko per capita gastuari dagokionez (2005ean 41,51 euro pertsonako) bai guztira egindako per capita gastuari dagokionez (2004an 235,39 euro pertsonako). Hala ere, zenbateko horiek dezente txikiagoak dira Gipuzkoako batezbestekoekin alderatuta (57,49 eta 325,59 euro, hurrenez hurren).



Iturria: Udalmap





Iturria: Udalmap


BERDINTASUNA

Emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasun egoera

- Gizonen eta emakumeen arteko egoeraren azterlan diagnostikoa egin da, Aukera Berdintasunaren II. Plana prestatu aurreko urrats gisa.
- Azterlan honetatik ondorioztatzen denaren arabera, generoen arteko ezberdintasunak adierazgarriak dira hainbat eremutan.
- Lan merkatuari dagokionez, langabezia tasa altuagoa da emakumezkoen artean, baita kontratuen behin-behinekotasuna ere, eta, oro har, gizonezkoek baino soldata txikiagoa dute.



	<p>Desberdintasun horiek emakumeen egonkortasuna eta autonomia baldintzatzen dute eta horrek eragotzi egiten du beren garapen pertsonal eta soziala.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gizarte laguntzen titularrak oro har emakumezkoak dira. Hala ere, gero eta gizonezko gehiago dago egoera horretan, oso profil zehatza dutenak: bakarrik daudenak, tarteko adinekoak, arazo psikologikoak dituztenak, etab. • Etxebizitza lortzeari dagokionez, gizonen nahiz emakumeen arazoa dela ikus daiteke. Nolanahi ere, zenbait emakume taldek are laztasun handiagoz jasaten dute arazo hori: gazteak, etorkinak, etab. • Udalerriko elementu sinbolikoek (monumentuek, eskulturek, kaleen izenek...) batez ere gizonezkoek egiten diete erreferentzia. Horrek garbi uzten du ezberdin baloratzen direla emakumeen eta gizonen ekarpenak edo merezimenduak.
<p>Berdintasun arloko udal kudeaketa</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Azken urteotan hainbat eratako ekimen eta tresna ugari garatu dira emakumeen eta gizonen artean gero eta berdintasun handiagoa lortzeko. Nabarmentzekoa da Berdintasun Arloaren sorrera, udal langileen trebakuntza, eta etxeko tratu txarren eta sexu eraso biktimentzako arreta hobetzeko neurrien protokoloaren onarpena. • Udal langileek sentikortasun ezberdina dute berdintasunarekiko; oro har, ez da beharrezkotzat jotzen genero aldagaia prozesu gehienetan sartzea. • Nolabaiteko zailtasuna antzeman daiteke sexuaren araberako informazio berezia lortzerakoan. Gaur egun, Udalak darabilen informazio estatistiko gehiena ez dago berezia. (!). • Ikastetxeekin elkarlanean, azken urteotan hezkuntza jarduerak egin dira genero berdintasunaren inguruan. Hala ere, jarduera horiek jarduera zehatzak dira.
<p>HERRITARREN SEGURTASUNA, OSASUNA ETA IKTak</p>	
<p>Herritarren bizikidetzeta eta segurtasuna</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Herritarren segurtasuna ez da zarautzarrak gehien kezkatzen dituen alderdietako bat; 10 biztanletik 9 seguru sentitzen da udalerrian (2008ko Ekobarometroa). Segurtasunaren pertzepzioa, hala ere, 2004an baino txikiagoa da. • 2005ean delitu tasa handitu ondoren (% 40,1), 2007an behera egin du eta 37,51n kokatu da 1.000 biztanleko. 
<p>Osasuna eta osasun zerbitzuak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Zarautzek osasun zentroa (eskualdeko anbulatorioa) eta Etengabeko Arretako Gunea (EAG) ditu, baina 7 botika ere udalerrira osoan banatuta. • 10 biztanletik 9k diote osasun zerbitzu nagusietatik oinez 15 minutura baino gutxiagora bizi direla: familiako medikua, anbulatorioa, botika... (2008ko Ekobarometroa). Hala ere, osasun zerbitzuen hobekuntza Zarauzko biztanleek lehentasunez jotzen dituzten alderdietako bat da. (!) • Eraikin berria irekitzeak osasun zerbitzua nabarmen hobetzea ekarri 

	du. Hala ere, biztanleen ustez, beharrezkoa da osasun espezialitate berriak barneratzea Donostiaraino joan beharrik ez izateko.
Prebentzio Komunitario ko Zerbitzua	<ul style="list-style-type: none"> • Prebentzio Komunitarioko Zerbitzuak Droga Mendekotasunen Prebentziorako Plana prestatu du. Planaren helburu nagusia prebentzioa lehenestea da, ohitura osasungarriak ezarri eta drogen kontsumoa murrizte aldera.
Telekomunikazioak eta IKTetarako irisgarritasuna	<ul style="list-style-type: none"> • Ez dago informaziorik Zarauzko biztanleek eta enpresek IKTekiko duten irisgarritasun eta erabilera mailen inguruan. • Udalerriak KZ Gunea du eta, aurreko ekintza planaren esparruan, udalerrria informazioaren eta ezagutzaren gizartean integratzeko tresnak ezartzera bideratutako jarduketak abiarazi ziren (WIFI sarearen zerbitzua instalatu zen udal liburutegian eta malekoian). 

AURREKO TOKIKO EKINTZA PLANA

Lotura duten ildo eta programak (*Lotura duten ildo eta programen kode eta tituluaren erreferentziak*)

- 10. OINARRIZKO ZERBITZUAK BERMATZEA
- 10.1. Udalerriko gizarte eta osasun zerbitzuen baldintzak garatzeko eta egokitzeko programa
- 10.2. Hirugarren adinekoen bizi kalitatea hobetzeko programa
- 10.3. Droga mendekotasuneko arazoei heltzeko programa
- 10.4. Gizarte ongizateko beharrei erantzuteko programa
- 10.5. Udalerrian informazioaren eta ezagutzaren gizarte ezartzeko programa

Garatzeke dauden eta garrantzitsuak diren indarreko ekintzak

- 10.2.1.: 3. Hirugarren adinekoentzako zentro berria eraikitzea
- 10.3.1.: Droga Mendekotasunen Prebentziorako Plana garatzea
- 10.4.2.: Gizarteratze eta laneratze zerbitzua finkatzea

LOTURA DUTEN PLAN ETA ARAUDIAK

Udalerrian

- Zarauzko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Plana, 2004-2007 (II. Plana onartu arte luzatua). Berdintasunerako II. Plana garatze bidean da.
- Zarauzko udalerrian etxeko tratu txarren eta sexu erasoen biktimetzako arreta hobetzeko neurrien protokoloa.
- Droga Mendekotasunen Prebentziorako II. Tokiko Plana, 2004-2009.

EAEen

- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzkoa.
- EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana.
- Etxeko tratu txarren eta sexu indarkeriaren biktima diren emakumeentzako arreta hobetzeko erakunde arteko II. erabakia.
- 18/1998 Legea, droga mendekotasunen arloko prebentzioari, laguntzari eta gizarteratzeari buruzkoa
- 61/2007 Dekretua, apirilaren 17koa, immigrazioaren eta kultur arteko bizikidetzaren arloetan jarduerak egiteko laguntzak arautzen dituenak.
- Gizarte Zerbitzuen lege proiektua
- Gizarteratzeko II. Euskal Plana
- Immigrazioko II. Euskal Plana (2007-2009).
- EAEko Droga Mendekotasunen V. Plana
- Euskadi informazioaren gizartean Plana

Estatuan

- 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22an, emakumeen eta gizonen benetako berdintasunari buruzkoa
- 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzkoa
- 27/2003 Legea, uztailaren 31koa, etxeko indarkeriaren biktimak babesteko agindua arautzekoa
- 39/1999 Legea, azaroaren 5koa, langileen familiako eta laneko bizitza bateratzen laguntzekoa.
- 28/2005 Legea, tabakoaren aurkako osasun neurriena eta tabako produktuen salmenta, hornikuntza, kontsumoa eta publizitatea arautzekoa.

LEHENTASUNEZKO JARDUKETA EREMUAK

Udal eskumena

- Gizarte zerbitzuak ugaritzea eta hobetzea, gizartearen behar berriei erantzuteko, esate baterako, hirugarren adinekoentzako zerbitzuak ugaritzea (etxez etxeko zerbitzua areagotzea eta hirugarren adinekoentzako zentroetako plazak gehitzea).
- Koordinazio protokoloen bidez udal zerbitzu ezberdinen artean (gizarte zerbitzuak, laneratze zerbitzuak, osasun zerbitzuak, etab.) koordinazio handiagoa sustatzea.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna faboratzera bideratutako zerbitzuak abiarazten eta finkatzen aurrera egitea.
- Etorकिन harrera eta integrazioa sustatzeko beharrezko baliabideak martxan jartzea eta ematea.
- Zarautzen droga kontsumoaren eta erabileraren egungo egoera aztertzea eta biztanleei ohitura osasungarrien inguruan informatzeko, sentsibilizatzeko eta orientatzeko beharrezko ekintzak eta tresnak ezartzea.

Udalaz gaindiko eskumena

- Osasun zerbitzuak hobetzea eta osasun zentroan eskainitako osasun espezialitateak gehitzea.



HEZKUNTZA, EUSKARA, KULTURA ETA KIROLA

Lotura duten Aalborgeko konpromisoak:





5. HIRIGINTZA DISEINATZEA ETA PLANIFIKATZEA
9. BERDINTASUNA ETA JUSTIZIA SOZIALA


AZPIEREMUA	DIAGNOSTIKOA	BALORAZIOA																																																
HEZKUNTZA																																																		
Hezkuntza eskaintza	<ul style="list-style-type: none"> • Hezkuntza ekipamenduen zuzkidura oso osatua da. Banaketa orekatuari eta komunikazio egokiari esker, biztanleek udalerriko zona desberdinetara joateko aukera dute. • Zarautzek 10 ikastetxe ditu gaur egun; 5 pribatu-hitzartuak dira, eta beste 5ak, berriz, publikoak. Horietako 6 ikastetxetan haur eta lehen hezkuntza ematen dute eta beste 4ek, berriz, Batxilergoa, lanbide moduluak edo helduentzako hezkuntza. • Haur eta lehen hezkuntzako eskaintza pribatu-hitzartua da nagusiki. Lehen hezkuntzako ikastetxe bakarra eta haur eskola bat dira publikoak. Ikasleei dagokienez, berriz, bi ikastetxe publiko hauek oso ikasle kopuru handia hartzen dute (% 37,2). • B eredu mantentzen duen ikastetxe bakarrak, udalerriko erlijio ikastetxe bakarrak, laster bere jarduera amaitzea aurreikusten da. <p>MATRIKULATUTAKO IKASLE KOPURUAREN BILAKAERA HEZKUNTZA MAILEN ARABERA</p> <table border="1"> <thead> <tr> <th></th> <th>05-06</th> <th>06-07</th> <th>07-08</th> <th>08-09</th> <th>% Δ 05-09</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>Haur hezkuntza</td> <td>1002</td> <td>1039</td> <td>1055</td> <td>1072</td> <td>% +7,0</td> </tr> <tr> <td>Lehen hezkuntza</td> <td>1430</td> <td>1474</td> <td>1467</td> <td>1507</td> <td>% +5,4</td> </tr> <tr> <td>Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza</td> <td>1022</td> <td>1026</td> <td>1069</td> <td>1079</td> <td>% +5,6</td> </tr> <tr> <td>Erdi Mailako Heziketa Zikloa</td> <td>176</td> <td>189</td> <td>200</td> <td>261</td> <td>% +48,3</td> </tr> <tr> <td>Goi Mailako Heziketa Zikloa</td> <td>154</td> <td>149</td> <td>129</td> <td>93</td> <td>% -39,6</td> </tr> <tr> <td>Batxilergoa</td> <td>434</td> <td>444</td> <td>445</td> <td>505</td> <td>% +16,4</td> </tr> <tr> <td>Guztira</td> <td>4218</td> <td>4321</td> <td>4365</td> <td>4517</td> <td>% +7,1</td> </tr> </tbody> </table> <p><i>Iturria: Zarauzko Udala</i></p> <ul style="list-style-type: none"> • Matrikulatutako ikasleen kopuruak etengabe gora egin du azken urteetan, ia hezkuntza maila guztietan. Goi mailako heziketa zikloak dira salbuespena; % 40ko murrizketa izan dute 2005-2006 eta 2008-2009 ikasturteen artean. 		05-06	06-07	07-08	08-09	% Δ 05-09	Haur hezkuntza	1002	1039	1055	1072	% +7,0	Lehen hezkuntza	1430	1474	1467	1507	% +5,4	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	1022	1026	1069	1079	% +5,6	Erdi Mailako Heziketa Zikloa	176	189	200	261	% +48,3	Goi Mailako Heziketa Zikloa	154	149	129	93	% -39,6	Batxilergoa	434	444	445	505	% +16,4	Guztira	4218	4321	4365	4517	% +7,1	
	05-06	06-07	07-08	08-09	% Δ 05-09																																													
Haur hezkuntza	1002	1039	1055	1072	% +7,0																																													
Lehen hezkuntza	1430	1474	1467	1507	% +5,4																																													
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	1022	1026	1069	1079	% +5,6																																													
Erdi Mailako Heziketa Zikloa	176	189	200	261	% +48,3																																													
Goi Mailako Heziketa Zikloa	154	149	129	93	% -39,6																																													
Batxilergoa	434	444	445	505	% +16,4																																													
Guztira	4218	4321	4365	4517	% +7,1																																													
Hezkuntza eskaria	<ul style="list-style-type: none"> • Eskolarako adinean diren biztanleen kopurua (0 eta 16 urte artekoak) % 8 hazi da 2001 eta 2006 artean, horrek dakarren hezkuntza eskariaren gehikuntzarekin. • Bereziki nabarmena da 0 eta 5 urte arteko haur kopuruan izan den hazkundera. 																																																	

ESKOLARAKO ADINEAN DIREN BIZTANLEEN BILAKAERA. 2001-2006

	2001	2006	% Δ
Haur hezkuntza (0-2 urte)	624	752	% +20,5
Haur hezkuntza (3-5 urte)	667	766	% +14,8
Lehen hezkuntza (6-11 urte)	1254	1363	% +8,7
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (12-16 urte)	1071	1023	% -4,5
Guztira	3616	3904	% +8,0

